

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-09-01
ASTELEHENA
463. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS

TOKIKOM



ENEKO AZKARATE

"Erreferendumaren gaineke mugimendu handiagoa espero nuen Eskozian"

Xabi Igartua | Gure Esku Dago | 7

Pottoka ezagutzera emateko jardunaldia egin dute Oñatin | 11



Debagoieneko ordezkaritza polita aurten Zinemaldian | 29



Antzuolak irabazi du Bergara Hiria, finalean UDA mendean hartuta | 24

Markel Uriarte,
Tourmalet gainean,
bizikleta jasota lorpena ospatzen.



Gurpil bakarraren gainean igo du Tourmalet Markel Uriartek



Aretxabaletakoak buruan ditu beste bi erronka; lehena, asteen, Aralar | 22

Orbeako riderra, gurpil bakarraren gainean Tourmalet igotzen. | MARKEL URIARTE

SINADURAK

	OIHANA ELORTZA 8
	EDUARDO ZUBIAURRE 8
	PEDRO GARITANO 17
	LUKENE IGARTUA 18
	OLATZ PAGALDAI 19
	OIHAN VEGA 37
	MARKOS VALENTZIAGA 40

Abuztu ona izan da aurtengoa turismoan

Bisitari ugari ibili da Debagoieneko herrietan eta asko lotan geratu dira, gainera: ostalariak ere pozik | 2



XABI ETXEBARRIA

Bi brigadista oñatiar, Saharatik kanporatuta | 6



Jaengo taldea Oñatiko unibertsitatetik irteten. | OIHANA ELORTZA



Bikote kataluniarra, Bergarako Errekalde jauregi aurrean. | JULEN IRIONDO

Bisitari ugari eta ostatuetan ere pozik aurtengo uda sasoiarekin

- Bisitatu ez ezik, gehiagok pasa dute gaua bailaran
- Kataluniar ugari, eta Europatik, frantziarrak gehien
- Talde handietan baino, familian etorri dira batez ere

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Datu batzuk, adibide: egubakoi-tza bitartean –hilak 29–, Oñatiko turismo bulegotik 2.327 pertsona pasa ziren abuztuan –bisita gidatuetan 1.036 lagunek hartu dute parte–; bostetik bat, euskal herritarrek; bertakoak beste, ia, kataluniarrak (398) –valentziarrak (258) eta andaluziarrak (243) ondoren–, eta Europatik iritsitako bisitarien artean frantziarrak, nabarmen, gehien (206).

Oñatira bisitan etorri diren asko, beste bulegoren batean gomendatuta etorri omen dira, eta behin herria ezagututa, "merzi duela" esaten dutela dio turismo bulegoko Edurne Urteagak. "Askok esan digute barrualdean ibiltzeko gogoia zutela, kostaldea beste urte batzuetatik ezagutzen zutela, eta nahi zutela gehiago barrualdea ikustea".

Zenbakiakin pozik ageri da Urteaga: "Aurten, gainera, ikusi

dugu taldeak, agentzietatik-eta, gutxiago datozela agian, baina solteko pertsona horiek bisitak hartu dituztela beste urte batzuetan baino gehixeago. Herriko jendea ere gehiago geratu da bertan, eta eurek ere hartu dituzte bisitak, batzuek errepikatu egin dute gainera, euren lagunak ekarrita: funtzionatzen ari da". Egunero bi bisita eskaini, eta ia-ia denak irten ei dira. Antolatutako talde handiak, oro har, gutxitu arren, justu Jaengo autobuskada zuten egunean egin zizkigun ber-bok turismo bulegoko gidariak. Oñati eta Arantzazu zituzten bisitatzekoak.

Ba, hain justu, Arantzazun, beste bikote bat, madrildarra –handik etorritako bisitariak ere asko izan dira, ohi bezala–, Edurne Urteagak zioen bezala, kostalderako baino barru alderako gogo gehiago zuten horietakoa: "Egun batzuk pasatzera etorri gara, eta

hau pixka bat ezagutzera. Donostian egonak ginen, eta Hondarribian, baina beste zerbait ere ikusi nahi genuen. Oraingoan gauza gehiago ikusi ditugu. Arantzazun hartu dugu ostatu, ez zenez oso garestia...".

Ricardo eta Maribel, Arantzazu oinarritzako kanpaleku hartu eta handik irteerak egiten, "ingurura": "Lau egun egon gara eta itzuli egin behar dugu, lanera joan behar dugu-eta. Lan egin behar dugu, jateko eta bueltatzeko, hau polita da-eta. Bermeon izan gara, Matxitzako lurmuturrean, Loiolan eta Antiguaren bai, Urbiara joan gara... Eta orain Idiazabal gazta batzuk erostera joatekoak gara. Oñatin ere egon gara, noski; oso herri polita. Elizak, ermitak... ikusten ibili gara. Gasteiz ere ezagutu dugu, katedrala, alde zaharra... Dena gustatu zaigu; niri mendia gehiago gustatzen zait itsasoa baino. Ani-

IZARRA ARRIARAN
MAIALDE LANDETXEA

"Gaur egun, edo Interneten presentzia duzu, edo ez zara existitzen"

El getako ostatuaren-tzatoporsasoi ona izan da aurtengoa.

Hilabete onak, hortaz.

Uztaila eta abuztua oso onak izan dira, aurten iaz baino hobeak. Jendeak aurrez hartu du lekua, eta oso ondo lan egin dugu. Nik uste bailara deneko kontua izan dela. Ni Bergaran bizi naiz eta Bergaran ere turismo asko ikusi dut.

Nongo jendea izan da?

Denetarik egon da, baina gehienak kataluniarrak izan dira, gero valentziarrak ere asko eta hortik aurrera madrildarrak, andaluziarrak... Horrez gain, kanpotarrak ere denetarik, errusiarrak, australiarrak... Eta beste asko Portugalera bidean pasieran geratu direnak, belgikarrak eta holandarrak...

Eta asmo garbiekin etorritakoak, edo zuei ere eskatu dizkizue gomendioak?

Normalean denak etortzen dira Bilbo, Donostia, Gasteiz... ikusteko asmoarekin. Hau oso puntu ona da horretarako. Baina horrez gain, informazioa eskatzen digute eta beti bideratzen ditugu hemen ingurura: Oñatira, Bergara, Elorriora... Eta jendeak eskertzen du hori. Urbiara ere jende asko bideratzen dugu, eta jendea-ri asko gustatzen zaio. Mendirako asmoarekin ere asko etortzen dira.

Nola izan dute zuen berri?

Urruneko jende horrek, Internet bidez. Gaur egun, edo hor zaude, edo ez zara existitzen. Atari asko daude, eta bertatik egiten dute erreserba, edo han begiratu eta gero telefonoz deituta.

maliak ikustea, basoa... Eta jan oso ondo egiten da".

Arantzazu eta Arrikruz

Bisitariak ez, Arantzazun ohikoak direnei galdetuta, zioten jende asko ibili dela han ere abuztuan, "beste urte batzuetan baino gehiago"; aparkalekua egunero beteta egon dela, eta matrikulak begiratz gero, kanpoko jende asko ibili dela esan daitekeela.

Hori berresten dute Aizkorri-Aratzeko parketxeko datuek ere, "hobekuntza nabarmena" izan dela bisitari kopuruan. Abuztuarekin batera, uda hasiera, ekaina ere ona izan zela diote zenbakiak. Eta bisitarien jatorriari dagokionez, Arantzazun ere ohiko joera, nahiz eta hurrenkeran nabarduraren bat egon: Madril, Katalunia, Andaluzia; eta Alemania, Holanda, Frantzia.

Arrikruzen ere pozik egoteko moduko datuak batu dituzte, 2008 urtetik hona onenak, azken urteetako beherako joera kolpetik etenaz. Kobak zabaldu osteko aurreneko bi urteetatik, 2.000 bisitarira iritsi gabe zeuden abuztuan –iaz, adibidez, 1.716 izan ziren; aurten, aipatutako langa gaititu eta hilabeteko hainbat egun izan dituzte sobera–.

Bergaran ere jende asko

Bergarak ere erakartzen du turistarik uda sasoiari; datu zehatzik oraindik ez, baina kanpaina ona izan den –izaten ari den– pertzepzioa bai. Ohiko bisita gidatuak egin dituzte, monumentuena eta San Pedro parrokiakoa, baina jende gehienak bere kabuz ezagutu ohi du herria, turismo bulegoko Alaia Aberasturiren arabera: "Turismo Bulegora etortzen diren gehienek bertan dugun esku-orria hartzen dute eta horrekin euren kabuz egiten dute ibilbidea; esku-orrian bi ibilbide desberdin proposatzen ditugu. Gainera, eraikuntzetan ere badaude informazio plaka batzuk. Batzuk gogoarekin geratzen dira oraindik, eta horiek bisita ere egiten dute gero".

Beste batzuk, ordea, turismo bulegotik –aurten, aurrenekoz, Errekalde jauregian– pasa ere ez: "Banatzen ditugu esku-orriak beste turismo bulegoetan, hotelan, nekazal-turismoetan... Eta



Elorretako errota bisitatzen, Eskoriatzan. | UBANE MADERA



Lasarteko erretiratu taldea, Aizkorri-Aratzeko parketxean, Arantzazun. | JULEN IRIONDO

ESANAK

"Talde gutxiago etorri dira agian, baina solteko pertsonak bisitak hartu dituzte"

EDURNE URTEAGA | OÑATI

"Esku-orria hartu eta euren kabuz egiten dute gehienek ibilbidea"

ALAIA ABERASTURI | BERGARA

"Abuztuan beste urte batzuetan baino jende gehiago ibili dela esango nuke"

IÑAKI AGIRREURRETA | LEINTZ GATZAGA

informazio horrekin Bergarara etortzen dira eta asko ez dira gugana etortzen, ze eurek badute informazioa. Kanpoan ere promozioa egiten dugunez, batzuk lanak eginda etortzen dira".

Horietako bikote bat, Consuelo eta haren senarra, Bartzelonakoak, turismo bulegotik pasaterako herriko eraikin esanguratsuenen bila, gida eskuan: "Zortzigarren urtea da Euskal Herrira gatozena. Asko gustatzen zaigu inguru hau. Hilaren 22an etorri ginen, eta Bilbon egin genituen lau egun, eta orain Donostian gaude, eta handik egiten ditugu irteerak. Dena gustatzen zaigu hemendik, kostaldea, barrualdea, jendea, jana... Jendea oso adeitsua da, edozer galdetu eta oso ondo azaltzen dizute, oso ondo, horregatik errepikatzen dugu".

Zortzi urtean Euskal Herriko hamaika txokotan izan dira, batzutan behin baino gehiagotan: "Leku herrietara joaten gara, baina bada errepikatzen dugunik

ere, hobeto ikusteko, ikusi gabe utzi ditugun gauzak eta... Gaztelugatxera, adibidez, bi aldiz joan gara, ilusioa egiten zigun berriz ere kaperara igotzeak. Oraingoan ari gara ikusten aurrekoetan ikusi gabeko barrualdeko herriak. Kostaldea ia osorik ezagutzen dugu. Bergara oso polita ari zaigu iruditzen. Garai bateko eraikinekin, eta dena oso kontzentratuta dago erdigunean; beste herri batzuetan gehiago ibili behar izaten da, baina hemen ez".

Bergaran goiza, gero Azpeitia, Azkoitia eta Tolosa, asmoa, lotarra Donostiara itzuli aurretik. Senar-emazte hauen kasua ez da, beraz, baina bai Bergarako eta bai Oñatiko turismo bulegoetan zioten irudipena dutela aurtzen beste batzuetan baino bisitari gehiagok hartu dutela ostatu gurean; zenbaitetara deituta, hala baieztatzen dute: "Beteta" izan dutela diote Oñatiko Torre Zumeltzegi hotelean, egunetako egonaldiekin gainera; eurek gehiago

"pasoko jendea" izan dutela Bergarako Ormazabal; eta "topera" ibili direla Eskoriatzako Goro-sarri landa apartamentuetan.

Leintz Gatzagan gustura

Eskoriatzan bertan abuztu hasieran egon zen herriko ondarea bisita gidatuekin ezagutzeko aukera, eta, maldan gora, Leintz Gatzagan izan ei dute Eskoriatzan ostatu hartuta zegoen bat baino gehiago, beste hainbat jenderekin batera, herria bera, Dorletako santutegia eta Gatz museoa ikusten: "Hamar lagunetik gorako taldeak izan ezean –eta batzuk izan dira–, asteburuetan egin ditugu bisita gidatuak. Baina bi zubi izan dira, San Inaziorena eta Ama Birjinarena, eta hor hiru-lau egunez egon da zabalik"; aurtengo abuztuan, "beste urte batzuetan baino jende gehiago" ibili dela Leintz Gatzagan ere, hala zioen Iñaki Agirreurretak, turismo gaiez arduratzen den zinegotziak.



Bisitariak erosketak egiten, Txokolateixan. | OIHANA ELORTZA

Txokolateixiaren lehen abuztua, ona

Udan zabaldu dute Oñatin Txokolateixia kokapen eta izaera berriarekin, eta aurreneko abuztua izan du, beraz, amaitu berri dena. Eta bisitarien artean izan duen harrerarekin oso gustura geratu dira bertakoak, Oihana Diazek azaldu bezala: "Gu oso konforme gaude izan duen harrerarekin. Turista aldetik abuztua ona izan da; nik uste, igarri dela giroa ere nahasia izan dela orokorrean, eta kosta aldera joan gabe jendea hona etortzea ekarri du. Asko mugitu da bakarkako turista, familiak, senar-emazteak, talde handiak baino gehiago. Etorri den jendea harrituta geratu da, halako herritxo baten nola litekeen halako historia egotea".

Bisitarien artean askotariko asmoekin joandakoak izan omen dira: "Batzuk eroatera bakarrik etorri dira; adibidez, gaurko taldea [Jaengoak], orain Arantzazura zihoazen, eta denbora askorik gabe, sartu, erosi eta listo. Baina norbere kontura etorri den turista, etorri da, galdetu du, erakusketa erakutsi diogu...".

"Turistei asko gustatzen zaizkie, adibidez, bonboi kuboak. Herriko monumentuen irudia dute; trufen kaxek ere bai... Bilgarri oso dotoreak dira eta detaile modura eramateko oso ondo daude", zioen Diazek, jendeak erosi dituenen gainean galdetuta.




MARI KARMEN URDANGARIN LASARTE

"Urtero jartzen dute irteera abuztuan, eta ohiturari eutsi egiten diogu. Arantzazu gustuko dugu. Parketxera bisita, eguerdian meza eta Urrestillara goaz gero bazkaltzera. Eta arratsaldean Azpeitira, trenaren museora".



SVENJA ELSCHNER ALEMANIA

"Alemania hegoaldekoak gara, eta oso ondo gabilta hemen. Familia etorri gara bi asterako Euskal Herrira, oporrak pasatzera. Donostian izan ginen eta Getaria inguruan ere bai; gustatu zaigu, Euskal Herria oso polita da".



LACHLON THIEU AUSTRALIA

"Lehen aldia dut Euskal Herrian. Oso gustuko ditut hemengo janaria, hiriak, kultura... Oso ondo pasa dut orain arte. Azken bi egunetan izan gara hemen, eta Donostiara goaz hemendik. Lauzpabost egun egingo ditugu".



M.TERESA, M.DOLORES, LUISA, YOLANDA ETA YOLANDA JAEN

"Jaengo Huelma herritik etorri gara. Autobusean etorri gara, 55 lagun denera. Astebete pasatzera etorri gara Euskal Herrira, eta Oñatin ez ezik, Bilbon, Gernikan eta Bermeon ere izan gara. Lehen aldia da Euskal Herrira etorri garela eta, asko gustatzen ari zaigu, egia esan behar bada. Lagunei gomendatzeko modukoak dira paraje hauek, bai horixe. Bide batez, eta aukera hau aprobetxatuz, hemengoak ere gonbidatu gura ditugu Andaluziara joan daitezen".

MATRIKULA ZAITEZ

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiaz eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Automatizazioa eta Robotika Industrialak

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energiaren horniketaz arduratzen dira

Mekatronika Industrialak

Robotaren muntaiaz eta mantentze-lanez arduratzen dira

Lanerako gertu!

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP



www.mondragon.edu/gmhz

Unai Iturriotz | 'Herriko Tabernen' auziko abokatua

"Baieztapen asko daude sententzian frogarik gabe"

- "Astakeria juridiko" jo dute epaia, frogarik gabe ei daudelako arrazoiketak
- Irailaren 4ra arteko epea dute orain auzipetuek errekurtsuak jartzeko

USOA AGIRRE | ARRASATE

Uztailaren bukaeran etorri zen *Herriko Tabernen* auziko epaia: 103 herriko taberna konfiskatzeko agindu eta kartzela zigorra ezarri zien hogeitaz laguni Auzitegi Nazionalak, fiskaltzaren tesiarekin bat eginez. ETaren finantzaz sarea osatzea egozten diete. Bailerako elkartearen defentsan dihardu Unai Iturriotz abokatuak.

Zein da momentuko egoera? Errekurtsorik jartzeko asmorik badago?

Irailaren 4ra arteko epea dago errekurtsuak egiteko. Zigortuak izan diren edo konfiskatuak dauden herrikoen egoera epaiaren aurreko egoera bera da, neurri kautelarrek indarren jarraitzen dute; kontuen bahikuntza mantentzen da. Errekurritu daitekeen

nez, sententzia ez da irmoa. Ikusi beharko da Auzitegi Gorenak zer dioen, horren arabera exekutatuko dira zigorrak.

Bailerako artean libre geratu da baten bat?

Aretxabaletako Urbaltzen kontrako akusaziorik ez zen formulatu epaiketan eta neurri kautelarrak altxatzekotan daude.

"Astakeria juridikotzat" hartu duzue

epaia. Zein dira hori esateko dauden arrazoiak?

Baieztapen asko egiten dira sententzian inolako frogarik gabe. Gainera, arrazoibidea askotan zirkularra da. Ez da ez prozesu logiko baten arabera ez mahai gainean egon diren frogen arabera egiten arrazoiketak. Boto partikularra irakurtzea besterik ez dago; justu horixe kritikatzeko die beste bi epaileei. Behin eta berriro esaten du beste bi epaileek kausa bat esateko, batetik, oinarritzat hartzen dituzten kausak eta, bestetik, arrazoitzeko duten modua ez dela ez zuzenbidearen arabera ezta logikaren ara-

berakoa ere. Adibidez, bi epaileek esaten dute ondorio nagusi moduan elkarteak izan direla ETarentzat finantzabidea. Aldi berean aitortzen dute ez dagoela ez dokumenturik ez testigantzarik ez ezer frogatzen duenik iritsi denik elkarte batetik zentimorik ETara. Aldiz, berresten dute hori izan dela oinarri ekonomikoa.

Boto partikularra zela baloratzen duzue?

Oso esanguratsua eta garrantzitsua da guretzat epaiketa batetik nola iritsi daitezkeen bi epaile akusazioarekin bat egitera eta beste bat justu kontrakoa esatera, ia defentsaren tesia bere egitera.

Horrek erakusten du epaiketa politikoa izan dela?

Oso adierazgarria da sententziako pasarte batean esatea "hau ez da epaiketa politiko bat", eta hori arrazoitzen saiatzea. *Excusatio non petita, accusatio manifesta.*

Ane Miren Alberdi bergararra aske utzi zuten abuztuan, zigorra beteta

U.A. | ARRASATE

Ane Miren Alberdi abuztuaren 6an askatu zuten, Frantzia zigorra bete ostean. Rennes-ko kartzelatik irten eta Madrilgo Barajas aireportura eraman zuten, han libre geratu zelarik.

Frantziako poliziak 2003an atxilotu zuen Akizen, Carlos Saiz de Egilaz eta Cristina Goirizelaiarekin batera. Hamabost urteko espetxe zigorra jarri zioten; gutxienez zigorraren bi heren betetzera behartu eta Frantziako

Estatuta itzultzeko debekua ezarritik.

40 urte etxetik kanpo

Alberdik ia 40 urte egin ditu etxetik kanpo, erbestean lehenengo eta kartzelan gero. Lagun eta senideek harrera beroa egin zioten aske geratu zen egunean bertan, Bergarara iritsi zenean. Artatse elkartearen egin zioten ongi-etorria, luntx batekin.



Ane Miren Alberdi, eskuman, Bergarara iritsi zen unean. | GOIENA



Azken Ostiraleko elkarretaratzea, Arrasaten. | IMANOL SORIANO

Euskal presoek eskubideen alde mobilizatzeko deia

USOA AGIRRE | ARRASATE

Joan den egubakoitzean, abuztuko azken ostirala izanik, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea egin zuten 50 bat arrasatearrek Herriko Plazan.

Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde egitearekin bate-

ra, Arrasateko euskal preso guztiak urrunduta daudela salatu nahi izan zuten, eta Kepa Arkauz eta Txus Goikoetxearen egoera salatu zuten bereziki. Kepa Arkauz ekaina ezkerreko bakartuta dago Villepinteko espetxean (Frantzia); eta Txus Goikoetxeak eta beste euskal presoek Sevilla II espetxean

duten egoera ez da hobetu (iazko urria-azaroan gose greba egin zuten, espetxean duten egoera txarra salatzeke eta bizi baldintza duinak eskatzeko).

Hala, presoek eskubideen aldeko mobilizazioetan parte hartzeko deia egin zuten, bi hitzordu nabarmenduz: irailaren 13an Arrasaten egingo den Elkartasun Eguna; eta Sarek (euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko sare herritarra) irailaren 20an Euskal Herri osoan egingo dituen mobilizazioak.

Atxilotu bat Arrasaten, haur pornografia zabaltzeagatik

U.A. | ARRASATE

Eduki pedofilodun fitxategiak gorde eta Internetez zabaltzeagatik, 27 urteko gizonak atxilotu zuen Espainiako Poliziak Arrasaten martitzenean, Europa Press albiste agentziak jakinarazi duenez. Ordenagailu eramangarria, hiru disko gogor, marihuana eta haxixa atzitu zizkion Poliziak.

Atxilotuak haur pornografia erakusten duten irudiak ordenagailuan gorde eta Internet bidez zabaltzen zituela azaldu du Espainiako Gobernu Ordezkaritzak.

Atxilotuak Espainiako Poliziaren Donostiako Brigada Judizialak gauzatu zuen ikerketa egin ostean, atxilotua haur pornografia zabaltzen zebilela ikusi eta gero. Atxilotetan ordenagailu eramangarria, hiru disko gogor, 31,98 gramo marihuana eta 0,95 gramo haxix atzitu zizkion Poliziak 27 urteko gizonak. Epailearen esku utzi du Poliziak, jada, atxilotua, Adingabeen Usteltze delitua egotzita.

Hitzaldia Ukrainaz, nazismoaz eta erresistentziaz

U.A. | ARRASATE

Askapenarekin irailean Donbassera abiatuko den brigada aurkeztearekin batera, Asier Blas politologo eta herrialde sobietar ohietan adituak Ukrainaz, nazismoaz eta herri-erresistentziaz egingo du berba Arrasaten.

Hitzaldia irailaren 10ean izango da, eguaztena, Irati tabernan, 19:00etan.

Bizikleta osten saiatzeagatik atxilotua

U.A. | ARRASATE

Zapatu goizean 27 urteko gizonak atxilotu zuten ertzainek bizikleta bat osten saiatzen zebilela Grupo San Juanen, Arrasaten. Segurtasun Sailaren arabera, inguruan zeuden bi motorretako gordetegiak ere apurtu zituen, eta lapurtutako motxila bat zeraman.

Oñatiarren eta donostiarren brigada bat kanporatu dute Sahararik

Marokoko gobernuak abuztuan kanporatu duen bigarren euskal brigada da

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Askapenako brigada abuztuaren 15ean abiatu zen Saharako lurralde okupatueta. Bigarren brigada zen, lehenengoa kanporatu egin zuelako Marokoko gobernuak abuztuaren 4an. Bigarren brigada hori bi oñatiarrek eta lau donostiarrek osatu dute, eta joan den astelehenean, abuztuaren 25ean, kanporatu egin zuten Saharako lurretatik.

Turista gisa

Ekiñe Zurututza eta Xabi Etxebarria dira Oñatiko bi brigadistak, eta eurek eman dute kanporaketaren berri: "Euskal Herriatik Saharar herrialde okupatura joandako aurreko brigadako kideek arazo ugari eduki zituztela eta kanporatuak izan zirela jakinik, gure plangintza moldatu beharra izan genuen gure helburua lortzeko; hau da, Aaiunera iritsi eta bertako eragileekin lan politikoa burutu". Hori horrela, Marokon eta Saharar herrietan zehar –Marrakex, Sidi Ifni, Dakhla...– ibili ziren turista gisa egun batzuetan, "diskrezio osoz". Saharar lurralde okupatura sartzearekin batera, baina, egoera aldatu egin zen: "Presentzia poliziala

nabarmen areagotzen dela konstatatzea ez da batere zaila: kontrolak, kalean militarrek, armadaren eraikinak, harresiak non-nahi... Egon garen herrietan txakurren jarraipenak eduki ditugu 24 orduz, nahiz eta hondartza besterik ez zapaldu".

Poliziak "aztoratuta"

Joan den astelehenean Dakhlatik Aaiunera bidean irten ziren, bertako hainbat eragileekin biltzeko asmoarekin. "Ibilbidean zehar zazpi kontrol igaro genituen; guztiak nahiko lasai joan ziren, azkena izan ezik. Azkenekoan autobusetik jaitsarazi gintuzten, eta kaleko jantziak zituzten 40 polizia inguru genituen itxaroten. Poliziak aztoratuta zeuden: hara eta hona korrika, guri grabatzen eta argazkiak ateratzen... Horrela, inolako argudiorik eman gabe, Aaiunera sartzerik ez genuela esan ziguten". Debeku horren zergatia jakin gura izan zuten brigadako kideek, baina erantzunik ez, eta giroa "gaiztotzen" eta poliziak are gehiago "aztoratzen" ari zirela ikusita taxian sartu eta alde egin zuten. Taxi bakarrean, sei lagunek, 700 kilometro inguru egin zituzten.

Eguenean itzuliko dira etxera, baina aurretik beste ahalegin bat egingo dute: "Saharako lurralde okupatuetatik kanporatuak izan arren, gure lana ez da amaitu eta Marokoko hainbat eragileekin elkartzen saiatuko gara".



Xabi Etxebarria eta Ekiñe Zurututza, egunean Marokon. | XABI ETXEBARRIA

XABI ETXEBARRIA | BRIGADISTA

"Giza eskubideen aldeko eragileekin edo ezkerreko mugimendukoekin elkartzea da asmoa"

Ekiñe Zurututzarekin batera dago Marokon Xabi Etxebarria, Saharako lurralde okupatuetatik kanporatu ostean. Eguenean itzuliko dira. **Bigarren brigadako kideak zarete; aurrekoa kanporatu egin zutela jakinik joan zineten...**

Bai; gu saiatu ginen turista moduan sartu eta hondartzetan eta antzeko tokietan ibiltzen. Ez ginen inorekin elkartu, gainera, aurreko brigada kanporatzeko aitzakia hori izan zelako. **Sahararaino iritsi zineten, ezta?**

Marokoko kostaldetik Saharara hegoalderaino joan ginen, 15 ordu autobusean eginda, 1.300 kilometro inguru. Gero iparraldera jo genuen berriro, eta gure azalpena zen bidaia oso luzea zenez Aaiunen (Sahara erdialdean) geratu beharra genuela atsedean hartzeko. Baina kanporatu egin gintuzten. **Uneoro atzetik izan dituzue poliziak?** Saharan sartuz geroztik bai, 24 orduak; ostatutik irteterrako zain genituen, hondartzara ere atzetik... Jarraipenok errespetua sortzen dute,

baina komikoak ere badira. **Tentsio momentuak bizi izan dituzue?** Bota gintuztenean bai. Saharan sartzeko herri guztietan daude bi kontrol-gune eta hasieran nahiko lasai pasatu genituen, baina Aaiunera sartzeko ezohiko kontrola zegoen 40 lagunekin. Guk azalpenak eska-

"Saharan sartuaz bat 24 ordu izan ditugu atzetik poliziak; egoera komikoa ere bada"

tzen genizkien, baina eurak nahiko aztoratuta zeuden eta taxia hartu eta alde egitea erabaki genuen.

Ez duzue izan inorekin elkartzeko aukerarik?

Ez. Gainera, ekidin egin dugu kontaktua espainiarrak gaila esanaz, eta euskal egoeraz edo bertako egoeraz berba egitea saihestuz.

Orain Marokon zaudete; zein asmorekin?

Giza eskubideen alde lan egiten duen eragileren batekin edo ezkerreko mugimenduren batekin elkartzeko asmoarekin. Agadirren ikasle mugimendua dago eta sahararren senideak ere bai; hortaz, elkartzen saiatuko gara. Lehen egunetan hemen ere izan dugu jarraipena, baina orain ez dugu igartzen.

Ernaiko kideak Herrialde Katalanetan egingo diren Gazte Jardunaldietara joango dira

Sabadellen elkartuko dira irailaren 11tik 14ra, eta Diadarekin bat egingo dute

E. AZKARATE/M.ALTUBE | OÑATI

Herrialde Katalanetara irteera egingo dute Debagoieneko Ernai gazte antolakundeko kideek, hango errealitatea bertatik bertara ezagutzeko asmoarekin. Bartzelonako Sabadell hirian elkartuko dira irailaren 11tik 14ra bitartean, eta hainbat ekitalditan parte hartu; besteak beste, irailaren 11ko Diadako ospakizunetan. Izena emateko epea zabalik dago.

'Hazi, Hezi, Izan' dinamika

Joan den maiatzean, Sabadellgo Arran Gazte antolakundekoak izan ziren Debagoienean, Arrasaten eta Oñatin, eta, orain, hemengoak joango dira Kataluniara. "Aurreko ikasturtean *Hazi, Hezi, Izan* dinamika abiatu genuen Debagoieneko gazteok eta ikasturte berriarekin batera independentzia eta burujabetzaren aldeko dinamika honi jarraipena ematera gatoz", diote Debagoieneko Ernaiko kideek.

Hala, dinamikarekin bat egin eta Kataluniako egoera ezagutzera animatu gura dituzte eskualdeko gazteak. Horretarako, izena eman behar da helbide honetara idatzita: haziheziizan@gmail.com, edota "ohiko" lekuetan. 50 euro



Sabadellgo Arran Gazteko kideak eta Ernaikoak, maiatzean Oñatin. | GOIENA

ordaindu behar dira joan-etorria eta egonaldia; edozelan ere, adierazi dutenez, "dirua ez dadila oztupo izan" izena eman gura dutenendako.

Diadarekin bat

Datozen egunotan Katalunian antolatuko diren hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera izango dute euskal gazteek. Irailaren 10ean, eguaztena, *Nosaltres deci-*

dim hitzaldia izango da, Sabadellgo bertako herri mugimenduak antolatuta. Irailaren 11n, ostera, Diadarekin bat egingo dute eta Esquerra Independentistak Bartzelonan antolatutako ekitalditan parte hartuko dute, besteak beste. Eta, irailaren 12an eta 13an, Herrialde Katalanetako "gazteen errealitatea eta mugimenduen borrokak" bertatik bertara eza- gutzeko aukera izango dute.

Energia eta elektrizitate eta Smart City ikastaroak antolatu ditu Mankomunitateak

M.A. | DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateak energiaren eta elektrizitatearen gaineko oinarritzko ikastaroa antolatu du, eta irakatsiko dituzten gaiak dira, besteak beste: instalazioak, eskaera energetikoa eraikinetan, argiteria, energia berriztagarriak eta energiaren eraginkortasuna. 100 orduko ikastaroa da eta urritik azarora iraungo du.

Bestalde, Smart City ikastaroa ere egingo dute irailaren 17tik urriaren 10era bitartean. Kudeatzaile energetikoa, APPak,

energiaren eraginkortasuna eta telekudeaketarako sistemak irakatsiko dituzte, besteak beste. Ikasketa horiek jasotzeko, baina, ingeniarietako edo goi mailako teknikari titulazioa behar da.

Izen-ematea zabalik

Izena emateko Debagoienean bizi eta erroldatua egon behar da, eta langabezian. Argibide gehiagorako eta izena emateko Arrasaten dagoen Mankomunitatearen bulegora jo behar da (Nafarroa etorbidea 17).

Gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko laguntzak iragarri dituzte

M.A. | DEBAGOIENA

Gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko laguntzen 2014 deialdia. Lehen aukera programa jarri du abian Lanbidek, eta helburua da titulua edo prestakuntza izanda ere esperientzia txikia edo batere ez duten gazte langabeak euskal enpresek kontratatzea. Hain zuzen, 4.999.276 euro bideratu dituzte horretara.

Hala, lanik barik dauden gazteak kontratatzen dituzten

enpresek, elkarteek eta erakundeek diru laguntzak jasoko dituzte. Baldintzak hauek dira: 30 urtetik beherako gazteak kontratatzea; eta gutxienez sei hilabete iraungo duten praktikaldiko kontratuak egitea, Euskal Autonomia Erki- degoko lantokietan lanpostuak betetzeko.

Argibide gehiagorako, haxe da helbidea: www.lanbide.net. Eta eskaera egiteko azken eguna irailaren 12a da.

Xabi Igartua | Gure Esku Dago ekimeneko kidea

"Independentziaren aldeko eskoziarrek diote aberatsago izango direla burujabe izanez gero"

- Eskoziaren oraingo egoera bertatik bertara ezagutu du abuztuan Xabi Igartua oñatiarrak
- Kaleetan irailaren 18ko erreferendumaren gaineko kartel gutxi ikusi dituela dio hark

ENeko AZKARATE | OÑATI

Oñatiko Gure Esku Dago ekimeneko kidea da Xabi Igartua eta abuztuko oporrak aprobetxatu ditu Eskoziara bidaiatzeko. Autoa alokatu eta herririk herri ibili da. Inguru ederrez gozatu ez ezik, irailaren 18ko independentzia erreferenduma eskoziarrek zela bizi duten bertatik bertara eza-gutzeko aukera izan du.

Eskoziaren izan zara udan. Irailaren 18ko herri galdeketa izan da arrazoa?

Bai. Aurten nire hautua Eskozia izan da. Erreferendumaren bezperan gaude eta Eskozia osoa alderik alde egin gura nuen: jendearekin egon, hiriak, herriak, kaleak... bertatik bertara ezagutu... Errealitatea ezagutu gura nuen. Abuztuaren 12tik 19ra egin dut han. Hegazkinean joan, autoa alokatu eta hara-hona ibili. Neu bakarrik.

Zer aurkitu duzu?

Erreferendumaren gaineko mugimendu handiagoa espero nuen. Kanean-eta letreroak ikusi ditut, baina banaka batzuk, eta etxe partikular aurretan-eta. Pertsona bakan batzuk ere bai. Uste dut beranduago hasiko direla. Kampaina ofizialaren hasierak harri-patu ninduen han eta uste dut berotzen joango dela galdeketa eguna hurbildu ahala.

Herritarrek izan zara, haiekin luze berba egiteko aukerarik izan duzu?

Bai. Baiezkoaren aldekoek, nor-tasun nazionala garatuago daukaten heinean, samurrago adierazten dizute zergatik aldarrikatzen duten Eskoziaren independentzia. Ezezkoaren aldekoek, oster, beldur puntu horretatik bizi dute egoera. Orain ez daudela txarto eta abentura berrietan, alda-ketetan, hasiz gero, okerrera egingo luketela.

Independentziaren aldekoak ala kontra-koak ikusi dituzu gehiago?

Nik aldekoak ikusi ditut gehiago, baina hauek esan didate inkestek diotela eze-koaren aldekoak gehiago direla. Edinburgotik iparralderantz egin dut eta han daude independentziaren aldekoagoak. Bestetik, herri txikietan ere gehiago dira independentziaren aldekoak.

Legebiltzarkideekin edo herri ordezkari-ekin egoteko aukera ere izan duzu. Zer moduz?

Baiezkoaren aldeko parlamentari batekin egon nintzen, SNPkoa. Oso kurio-
soa da; izan ere, parlamentari-
ek zona edo eskualde bateko herri-
tarrek ordezkatzeko dituzte Parla-
mentuan eta herri-

tarrekin harremanak izateko bulego edo denda moduko bat daukate kanean. Iradokizun, eskaera edo dena delakoak bideratze-ko eta herritarrengana hurbiltze-ko oso modu egoki eta logikoa dirudi. Eskualde bateko ordezkariak dira alderdi batekoak baino gehiago.

**Ze iritzi zeukan galdeketa-
ren emaitzaz?**

Oso baikor ikusi nuen. Agian, herritarren artetik, baikorren. Politikaria delako izan daiteke, eta baikortasuna saltzea komeni zaiolako. Alex Saldmond-en alderdikoa zen. Ongizateari ematen zion garrantzia. Eskozia burujabe izanez gero, etorkizunera begira, hobe zela kudeaketa haien esku egotea eta ez Erresuma Batuko gobernuaren eskuetan.

Nazio izaerari, identitateari edo hizkuntzari baino gehiago, ekonomiari eta ongizateari ematen diote garrantzia independentziaren aldekoek?

Bai, hori sumatu dut. Aldeko argumentuen %80 horri buruzkoak dira: gizarte politikak diseinatu, ongizate zerbitzuko osak zela bideratu, pentsioak... Hortaz, diote burujabe izanez gero Eskozia aberatsagoa izango litzatekeela eta gizarte ongizateari dagokionez Europako zortzigarren herrialderik oparoena izango liratekeela; gaur egun Erresuma Batua 20. postuan dago. Europako iparraldeko herrialdeekin gura dute konparatu, Suedia edo Norvegia modukoekin, eta, horretarako, beharrezkoa zaie baliabideak haiek kudeatzea. Horretaz gain, inportantzia ematen zioten arma nuklearrik bako herrialde izateari. Erresuma Batua buru nuklearrak dauzka eta Eskoziako iparraldean daude batzuk. Horiek ez dituzte gura. Izaera nazional, kultural edo identitateari lotutako argudioen aurrean, ekonomiko edo praktikoagoak lehenesten dituzte. Hemendik begiratuta harrigarria da, baina Eskoziak baditu bere kirol selezioak, nazio izaera ere mundu mailan onartuta dago, jendeak badaki zeintzuk diren eta non dauden... Eta, bestetik, hizkuntzaren aldetik, gaelikoa oso gutxi hitz egiten dute.

Petrolio eta energia baliabideak ere badaude eztabaidan, ezta?

Hala da. Argudio nagusietako bat da. Lehen, Eskozia, herrialde txiro moduan hartzen zen Erresuma Batuan. Londrestik ere hala adierazten zen. Baina ohartu dira Ipar Itsasoan dauden petrolio putzuak uste baino opa-



Xabi Igartua, eguenean, Oñatiko Olabarrieta auzoan. | ENeko AZKARATE

"Ipar Itsasoan dauden petrolio putzuak kudeatu gura dituzte"

"Alex Saldmond izan da BBCko bigarren eztabaida saioan irabazle"

"Erresuma Batuan onartzen dute eskoziarrei dagokiela erabakia"

roagoak direla. Hortaz, Norvegiarekin alderatzen dute euren burua eskoziarrek baliabide eta aberastasunari dagokienez. Konturatu dira haiek direla baliabideen jabe, baina beste batzuek kudeatzen dituztela. Eta horri buelta eman gura diote. Euren kudeatu gura dituzte euren baliabideak. Zelanbait, txiro konplexu hori saihesteko aukera eman die petrolioak.

Zer diote inkestek?

Orain artekoek ezezkoa ematen dute garaile, baina gutxigatik: %55 independentziaren aurka eta %45 alde, gutxi gorabehera. Baina inportantea da jakitea zenbatek emango duen botoa. Orain arte, hauteskundeetan, %45 inguru joan dira botoa ematera eta erreferendumean aurreikusten da %80k parte hartuko dutela. Ikuskizun dago parte hartze handi horrek zeini egiten dion mesede. Eta, bestetik, jakiteko dago inkestean balioa zenbatekoa den,

horren parte-hartze handi eta ezohikoa aurreikusten denean.

Hiri handietan ala herri edo nekazaritza guneetan dira independentziaren aldekoagoak?

Herrietan independentziaren aldekoak dira nagusi. Baiezkoak kaleko indarra dauka. Ezezkoak, oster, komunikabide nagusiena, BBCtik hasi eta irrati eta papezkoena. Hiriburuetan ezezkoaren aldeko letrero eta bulego gehiago ikusi dut. Halere, leku guztietan, kanean-eta, baiezkoaren aldeko ikur, kartel, bulego... gehiago ikusi dut. Eskozia hegoaldean ezezkoarenak ere nabaritu ditut, iparraldean baino gehiago. Hedabideak ezezkoaren aldekoak dira.

Duela aste batzuk izan dugu hemen Erresuma Batuko hainbat kultur-gile eta artistaren gutunaren berri, non elkarrekin jarraitzeko hautua egiten zuten. Komentatua izan da hori Eskozian? Oihartzun handia izan du hedabideetan-eta?

Bai. Enpresaburuena ere agertu da beste bat. Diru asko irabazten duten pertsonak dira horiek eta diru asko irabazten dutenek, oro har, esperimendu gutxi gura dute, gauzak ez aldatzea, alegia. Ondo bizi dira eta berdin jarraitu gura dute.

Duela gutxi izan da Alex Saldmond Eskoziako lehen ministroaren eta Alistair Darling unionistaren bigarren eta azken telebistako eztabaida saioa eta, denek diotenez, lehen izan zen garaile. Erabakigarria izango da hori irailaren 18ko bozketan?

Nabarmen izan da irabazle Saldmond bigarren eztabaida saio honetan. Lehenengoan, Darling izan zen irabazle, gutxigatik, inkestean arabera. Antza, lehenengora ez ei zen oso ondo prestatuta joan Saldmond eta Darling-ek txanponaren gaia mahai gainera atera zuenean ez zuen erantzuten jakin. Bigarren eztabaidan ondo prestatuta joan zen Saldmond eta, Darling-ek, oster, lehenengo lepotik jarraitu zuen. Oso jarraituak izan dira saioak. Eta badirudi eragina izan deza-keela emaitzan. Ezezkoaren aldekoak ahulduta atera ziren, argumentu barik. Inkestek diote bi puntura jaitsi dela bien arteko alde eztabaidaren ostean: %47 ezezkoaren aldekoak eta %45 baiezkoaren aldekoak.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

EDUARDO ZUBIAURRE
goiena.net/komunitatea/



Berritzaileen beharra

Gero eta argiago dago aldaketa sakoneko garaian bizi garela: krisi larri eta luze batean murgilduta, teknologia eta globalizazioaren garapen azeleratuaren eraginpean, aurreko mendetik datozen ideologiak indargabetuta eta mende honetako erronken aurrean asmatzeko pentsamolde berrien faltan. Azken finean, jakintsu askok garai hau definitzeko erabiltzen dituzten hitzak ekarriz, errenazimendu berri batean sartzen, baina erreferente argirik gabe.

Eduard Punset-en esanetan, erreallitate berrien aurrean giza-taldeak ("la manada", berak dioen moduan) gazteak aukeratzen ditu gidari gisa: aurre-baldintza gutxiago dauzkate, ausartagoak dira eta batez ere berritzaileagoak. Beraz, asmatuko badugu –hau da, mende honetan ere ongizatezko herri bat bagara– berrikuntzaren bitartez izan beharko da, eta horretarako pertsona eta asmo gazteen premia dugu. Badago bai non eraberritu, esate baterako, arlo pertsonalean hobetzen eta eskakizun berrietara egokitzen, enpresa eta lan harremanen eremuan berrehun urtez indarrean egon diren jarduerak baztertu eta egun arrakastatsuak direnetatik ikasten, eta politikan eta herri-erakundeetan zerbitzuaren zentsua berreskuratzen eta kudeaketa pribatuaren irizpideak ezartzen.

Balore partekatuak, bikaintasun pertsonal zein profesionala eta jarrera berritzailea izan dira beti arrakastaren ezinbesteko osagaiak. Horren aurrean, era guztietako adibideak ikusten ditut nire inguruan: Adegi-ren enpresa kultura berri baten aldeko apustu txalogarria eta bere aurka azaldu diren hainbat iritzi zaharkitu; Mondragon taldeak hasi berri duen hausnarketa saio itxaropentsua eta kooperatiba entzutetsuena porrotera eraman arte eman diren hainbat jokabide oker; Osakidetzan, Ertzaintzan eta herri erakunde ezberdinetan efizienteagoak izateko ekimenak eta sindikatuen erantzun ozen bezain arduragabeak... Honetan bai gure esku dagoela zer aukeratu.

"Errenazimendu berri baten sartzen, baina erreferente argirik gabe"

USTEAK USTE

OIHANA ELORTZA | oelorza@goiena.com

Opor osteko kafea

Lankide denok ez gara egun berean bueltatu lanera udako oporren ostean. Lehen lan egunetako kafe orduak, beraz, kontu askokoak izan dira. Opor kontuak denak, bai, baina batean eta bestean gertatutakoak, ikusitakoak eta bizitakoak. Hasierako aldapa arintzeko tarteak. Lanik gabe segitzen dutenek ere hartuko lukete horrelako hasiera, nagikeriak alde batera utzita. Eta oporrak bukatu diren arren, langabezia kontuak ez dira amaitu. Batzuk lanean hasi garen arren, beste batzuk lanik gabe jarraitzen dute eta irailaren hasieran lanik gabe gelditu dira hainbat, enpresaren esanetan aldi baterako izan arren. Ikasturte hasieran, albiste berri gutxi.

KALE INKESTA

ELA moduan ezaguna den esklerosi gaixotasuna dutenen alde izoztutako urez 'bustitzen' ari dira. Zer iruditzen?



LUIS JAVIER GARCIA
ARRASATE

"Tontakeria bat iruditzen zait. Benetan dirua ematen dute? Dirua batzen bada oso ondo, baina ura burutik behera botatzea tontakeria da".



PILAR ZUBILLAGA
ARRASATE

"Ez naiz asko enteratu, kanpoan egon naiz eta. Dena dela, beti da gauza ona dirua biltzea gaixotasuna dutenendako".



MARIA JESUS LOITI
ARRASATE

"Ondo iruditzen zait. Hala ere, kontuz ibili beharra dago, denek ez dute berdin onartzen–eta ur izoztua burutik behera botatzea".



BEGOÑA OZAETA
ARRASATE

"Burutik behera ura izoztuta botatze hori zorakeria iruditzen zait. Badaude dirua batzeko beste modu batzuk eta horien alde egingo nuke".

HANDIK ETA HEMENDIK

Katalunia, bost amaiera posible

Xabier Letona
argia.com/blogak/xabier-letona/

Madriilen bizi den Fernando Betancor ekonomilari iparramerikarrak bost amaiera posible ikusten dizkio Kataluniak bizi duen egoerari, eta horietako bakoitza gauzatzeko ikusten dituen aukerak ere finkatzen ditu.

Artikulua bere blogean idatzi zuen ingelesez eta Vilawebek osorik itzuli du.

Analisia apirilekoa da, baina bete-betean erantzuten dio orain Katalunian bizi den egoerari.

Betancorrek sakon aztertzen du aukera bakoitza eta iritzi publikoan egun sustraituen dauden bi balizko egoerei ematen die berak ere aukera gehien: kontsulta Espainiaren debekuaren gainetik egitea edo hauteskunde autonomikoak aurreratzea.

-Kolaborazioaren aukera. Erreferenduma eta prozesu independentista bertan behera uztea eta Estatu espainiarraren egungo egoera onartzea. Betancorrek %0 aukera ematen dio egoera honi.

-Veneto aukera, erreferendum ez ofiziala. Erreferendumaren debekua eta kontsulta debekuaren gainetik egitearen tarteko aukera litzateke. Ez litzateke ofiziala, baina Espainiako Gobernuak ezikusiarrena egingo luke. Veneton (Italia) iragan martxoan Italia uzteko egindako erreferenduma jartzen du adibide gisa. Aukeren %10 ematen dio.

-Aukera krimearra. Erreferenduma egitea, baimendu gabe bada ere. Bere ustez hau da Artur Masen aukera gogokoena katalanek euren iritzia eman dezaten. Gainera, Betancorren esanetan, estatu batetik aldentzeko biderik ohikoena da. Espainiak gogor erantzun lezake eta aukera zabala luke horretarako. Legebiltzarra edo Estatutua bertan behera uztea, agintarien atxilotetak... Aukeren %45 ematen dio hautu honi.

-Plebiszitu hauteskundeak. Madrilgo debekuari erantzunez hauteskunde autonomikoak aurreratzea. Hauteskundeetako gai nagusia erreferenduma litzateke eta haren aldeko kanpaina egingo luke, adibidez, CiUren eta ERCren arteko zerrenda bateratuak. Egilearen ustez, herritarren botoa egungo

Espainiako legedia urratu barik agertuko litzateke eta aukera sendoak ikusten dizkio (%40) hautuari. Bere alde ahula: ez dela erreferendum bat bezain indartsua eta argia.

-Aldebakarreko independentziaren aldarrikapena. Espainiak bere bideak itxita, erreferendumik gabe edo hauteskunde aurreratuen ondoren emango litzateke. Aukera muturrekoena litzateke eta egileak aukeren %5 bakarrik ematen dio.

Sentsualtasuna, eguzki hiltzaillia eta piropuak

Oier Gorosabel Larrañaga
eibar.org/blogak/orakulua/

Queen taldian musikiakin hasitta, etxekoandrea bigotedunok pozik; erretzaillaeстетikoki sentsualak, baiña odorifikoki "cortapedikoak"; hondarrera eguardixan juatian eskizofrenia (moreno jarri nahi, baiña protektorez kokoteraiño); Ondarruko graffiti polemikuen harira, Oihane Agirregoitia Bilboko zinegotzixakin desadostasuna. [...]

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Uihane Madera
Sailletako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarria
Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

Xinkona: gaztetxoen sormena eta gaitasuna lantzeko txoko proposa

- Irailean, ikasturte berriarekin batera, matrikula egiteko epea zabalik egongo da
- Belar artifizialez jantzitako txoko berrian haurrendako masajeak egingo dira

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Alaitz Jauregi antzuolarrak garbi zeukan: umeenganako maitasuna ogibide bilakatu nahi zuen. Halaxe sortu zuen Xinkona orain dela hiru bat urte. Eskulanak egiteko txoko soil bat izatetik haratago doa egun. Etengabeko eboluzioa izan du, eta orain, sormena eta gaitasunak lantzen dira bertan. "Aurreko ikasturtea bukatzeko ekintza berri bat probatu nuen zenbait talderekin; emaitza oso aberatsa izan zen. Aurregiak elkarri margotzen aritu ziren. Haurrei askotan margotu diegu aurpegia, baina elkarri sekula ere ez. Lorpenak eta ondorioak asko dira: konfiantza sendotzea, euren artean kontaktua edukitzea... oso ondo pasa genuen! Lortu zen konplizitatea benetan berezia izen zen, gainera", dio.

Masajeak elkarri

Xinkonan txoko berezia dute: belar artifizialez jantzitako txokoa, hain justu ere. "Haurrek elkarri masajeak ematea posible da txoko berriari esker. Umeak aztoratuta daudenean lasaitzeko balio du, gainera; teknika ikasi eta komunikazioa lantzeko aukera paregabea ere zabaltzen digu", kontatu du Alaitz Jauregik.

Gaitasunen arabera

Xinkonak ez duela txikien eta handien arteko bereizketarik egiten nabarmendu du Jauregik. "Eskulanak egiteko orduan denek denetarik egin dezaten saiatzen naiz. Eskulan berbera modu askotan moldatu behar izaten dute, baina ez adinaren arabera, norberaren gaitasunen arabera egin dezaten gura dut. Xinkonako helburuetako bat sormena lantzea da, eta ez arte-lan ikaragarriak egitea. Betiere, giro politoan eta alaitasunean. Hau beti lortu izan dugula azpimarratu gura dut".

Matrikulazioa zabalik

Xinkonak ikasturte berria abiatu du aipatutako berrikuntza guztiak praktikan jartzeko.

Hala, irailaren 8tik 20ra bitartean izena emateko aukera izango dute interesa duten antzuolarrak. Prezioa 45 euro da eta irailetik abendura arteko ikastaroa izango da. "Ikastaroak aurreko hiruhile-



Irailean abiatuko den ikasturtean, eskulanak egiteaz gain, ekintza ugaritarako aukera izango da txoko berrian. | ALAITZ JAUREGI

koan estreinatutako txoko berrian egingo dira. Oraingoan, hiruhileko luzea da: irailetik abendura artekoa".

Udazken eta negu sasoia oso aberatsa dela eskulanak egiteko dio. "Neguan beti egiten ditugu eskulan gehiago. Gusturago egoten

gara barruan, eta, hotzagatik arropa gehiago jantzen ditugunez, gauzak egiteko aukera asko zabaltzen da. Gainera, Gabonak gertu izateak ere asko laguntzen du".

Denetariko eskulanak egingo dira ikasturte berrian ere. Bai lehengo ohiturei eusten dietenak:

joskintza, puntua eta horren modan dagoen kakorraz-lana. Eta nola ez, egungo material berriei egindako eskulanak egiteko aukera ere egongo da.

Azken horiek arrakasta dute eta gaztetxoei ilusioa egiten diela dio Alaitz Jauregik.

Balioak landu eta indartzeko

Xinkonako txoko berrian gauza asko lantzeko bidea dago: "Autoestimua, segurtasuna, konplizitatea, gaitasunak, sormena... egun haurrei hain gutxi baloratzen dizkiegun eta oso garrantzitsuak diren balioak lantzeko aukera daukagu Xinkonako txoko berrian", azpimarratu du Alaitz Jauregik. Joan den ikasturtean proba egin ostean, ikasturte berrian abian jarriko dira.



Komunikazioa, autoestimua eta gaitasunak lantzeko txokoa. | A.J.

DATUA

80

HAUR

4 eta 12 urte bitarteko umeak batzen dira egunero Xinkonan. Askotarikoak lantzeko balio izaten die han pasatako denborak.

ESANAK

"Masajeak bidea ematen dute umeak lasaitzeko eta komunikazioa lantzeko"

ALAITZ JAUREGI | XINKONA



Mozorroturik, bizikletaz joan ziren osintxuarrak Sorluzera egubakoitzean. | IMANOL SORIANO

BERGARA

Aniztasunez eta koloretsu Osintxun

Musika, gastronomia eta jolasak nagusi Kofraixetan

USOA AGIRRE | BERGARA

Oporretatik bueltan, auzoko jaie-tan murgilduta izan dira aste bukaeran osintxuarrak. Egubakoitzean hasi zituzten jaiak "indarrez", Jon Olivares auzo-alkateak esandakoaren arabera. Izan ere, azken urteotan kontzertu erakar-garria antolatzeko lana egin izan dute eta aurtengorako ere kartel bete zuten: Izaki Gardenak, The Potes eta Patxuko Nice. Kanpoko jende asko erakarri zuen kontzertuak. Hori baino lehen, arratsaldean, bizikleta martxa, mozo-rrotuta, egin zuten Sorluzera, eta Osintxun kultur-aniztasuna dagoen adierazgarri, munduko pintxoan dastaketa egin zuten.

Zapatua, auzotarrendako

Egubakoitzeko egitaraua jendea erakartzeko bada, zapatukoa auzotarrek disfrutatzeko eguna

izan ohi dela azaldu zigun Olivaresek. Hala, bertso poteoa, koadrilen arteko bazkaria, marmitako txapelketa, herri-afaria eta erromeria egin zituzten. Uste baino jende gehiago ibili zelaa-

zaldutako Olivaresek, eta erromeria goizeko ordu txikiak arte luzatu zen.

Domekan, besteak beste, meza, pilota partidak eta poteoa izan zituzten jaiak bukatzeko.



Hamar bikotek parte hartu zuten marmitako lehiaketan. | USOA AGIRRE



JON OLIVARES
AUZO-ALKATEA

"Topera hasi ginen egubakoitzean kontzertuekin eta zapatuan herriarrendako festa izaten da".



BEÑAT
AUZOTARRA

"Ia urtero parte hartu dugu marmitako lehiaketan. Uste dugu ona irteten zaigula, nahiz eta ez dugun sekula irabazi".



REDA ETA ALAIN
AUZOTARRAK

"Ping-pong, igeleak eta futbolinean aritu gara arratsaldean. Buruhandietan ere ibiliko gara; gustatzen zaigu buruhandiek jotzea".



NEREA, JONE, JON ETA ANA
AUZOTARRAK

"Marmitakoa egiten dugun lehen aldia da. Hasiberriaren zorteagan sinesten dugu eta lehiaketa irabazteko esperantzarekin gaude. Teoria, behintzat, ondo dakigu. Jaietako lehen egunean nekatuta geunden oporren bueltarekin, baina zapatuan festa egingo dugu".

BERGARA

Sardina-jate jendetsua, San Lorentzoko jaietan

U.A. | BERGARA

Aurten ere San Lorenzo auzoko jaiak egin dituzte abuztuko azken zapatuan. Egun bakarreko festa izanik, egun guztia kalean egin zuten San Lorentzoko auzotarrek, antolatutako ekitaldietan parte hartuz. Goizean, dardo-jokoa, miga jana, toka eta igel txapelketak eta

trikitilariak alaitutako poteoa izan zituzten.

Arratsaldean, umeendako jolasak, txokolatada, buruhandiak, meza eta, jaiak bukatzeko, urtero arrakastatsua izaten den sardina-jatea eta dantzaldia izan zituzten. Aurten ere auzoko eta herriko jende ugari ibili da San Lorentzon.



Umeendako jolasak. | USOA AGIRRE



Sardinak erretzen aritu zen taldea. | IMANOL SORIANO

BERGARA

San Matei jaiak berrindartuta, gauerdira arteko festa Uberan

U.A. | BERGARA

Aurten arte domeketan ospatu izan dituzte San Matei jaiak, baina aurten zapatuan egin dute festa, eta horrek jaia berrindartu du auzotarren artean.

Egunez San Mateiko ermitan egin zuten festa: kalejira, meza, pintxoak, bola-jokoa eta bazkaria egin zituzten goizean. 50 lagun inguru izan ziren auzo-

bazkarian. Bazkalosterako, aurtengo berrikuntza zuten prestatuta: jolasak. Hiru talde-tan banatu eta askotariko jolasak egin zituzten bazkaria joandakoek. Irabazlerik ez zela izan esan digu Gorka Buruaga auzo-alkateak, baina galtzaileek afaria prestatu behar izan zuten. Afalosteko karaokearekin gauerdira arte iraun zuen festak.



Auzo-bazkaria egin zuten ermitan. | IMANOL SORIANO



Pottokalekun, bisitan parte hartu zutenak pottoka orrazten. | JOSETXO ARANTZABAL



Parketxeko bideo emanaldian, pottokaren historia ezagutzen. | J.A.

ONATI

Pottoka errespetatzeko, pottoka ezagutzera eman

Euskal arrazako historiaurreko zaldia ezagutu zuten hainbat lagunek

MIREN ARREGI | OÑATI

Pottokalekuk eta Arantzazuko parketxeak antolatuta, pottoka ezagutzera emateko jardunaldia egin zuten atzo. Hamabost lagun batu ziren Arantzazun euskal arrazako animalien historia ezagutzeko. Ondoren, Pottokalekun, jatorria historiaurrean duen zaldia zuzenean ezagutzeko aukera izan zuten. Horiek ukitu, laztandu, gidatu, eta haien gainean ibili ziren ekintzan parte hartu zutenak:

"Oso animalia argiak dira pottokak. Errespetuz tratatuz, euren erantzuna ere horrelakoa da", dio Jon Elortzak, Pottokalekuko ardura-dunak.

Europako zaharrena

Pottoka ezagutzera ematea zen atzoko egunaren helburua: "Jende askok ez daki antzinako animalia dela, euskal jatorrikoa, eta Europako zaldirik zaharrena. Historiaurreko gizakiak Ekainen mar-

gotu zituenak pottokak ziren", dio Elortzak. "Euskaldunok pottokak ehizatu egiten genituen historiaurrean; ondoren, zelten eta erromatarren garaian, zaldiaren kultura hedatu zen. Zaldiaren gainean ibiltzen hasi ginen orduan, eta gerretan erabili genituen", gaineratu du.

Pottoka galtzeko zorian dagoen animalia dela ere nabarmendu zuten atzo: "Hori horrela, garrantzitsua da ezagutzera ematea".

DAVID CARRIZO
IRUN

"Zaldiak asko gustatzen zaizkio bikotekideari, eta etorri egin gara. Ez genuen, gainera, pottokaren historia ezagutzen, eta asko ikasi dugu".

SAIOA BIAIN
OÑATI

"Nik ezagutzen dut Pottokaleku, baina gaur familiarekin etorri naiz. Alaba oso gustura dabil pottokekin; leku ederra da hau".

ARITZ MAIZA
ALEGIA

"Zaldia orraztu, laztandu eta gainean ere ibili gara. Pottokekin kontaktu estua izan dugu".

IDOIA OLAIZOLA
ZARAUZ

"Umeeekin etorri gara, eta merezi izan du. Pottoken historia ezagutu dugu, ingurune paregabean".

ARRASATE

Jai giroan, bukaera ederra eman diote Zarugaldeko bizilagunek abuztuari

Kalea autoendako itxi eta sekulako jai giroan igaro zuten zapatua auzotarrek

M.A | ARRASATE

Arrasateko Zarugalde kalean, jaiak ospatuz ematen diote bukaera abuztuari. Hala, zapatuan, jai giro ederrean pasatu zuten eguna. Egun osoan zehar izan ziren

ekintzak, eta jende dezente batu zen; esaterako, umeendako antolatutakoetara –umeendako jolasak, bonba japoniarrak, buruhandiak eta suzko zezena–, gaztetxo mordo animatu zen.

Gainontzeko ekintzak ere ez ziren atzean gelditu parte-hartzeari dagozkionez; izan ere, bertso poteoa jendetsua izan zen eta afaritarako 96 lagun elkartu ziren; dantza ugari egin zuten ondoren.



Neska-mutiko koadrila zapatu arratsaldeko umeendako jolasetan. | M.A.



Xabier Igoa bertso poteoan. | M.A.

OÑATI

Arrikrutzek eskaintzen dituen aukerak baliatuz

M.A | OÑATI

Haitzuloko toki ezkutatuak ezagutzeko aukera izan zuten zapatuan Arrikrutz sistema karstikoan barneratu ziren 26 lagunek. Hiru ordu inguruko ibilbidean, estalaktitik eta estalagmitak, kobako txoko ezkutatuak eta han-

go fauna eta flora –historiaurreko animalien erreplikak, haitzuloko onddo eta animalia txikiak– ezagutzeko modua izan zuten. Lurrazpiko mundu misteriotsuan murgiltzeak, Arrikrutzen beste aurpegi bat erakutsi zien parte hartu zutenei.



Espeleo Txiki Abenturan parte hartu zuen taldea. | M.A.

ARRASATE

Cata hasi da kontratazioekin, urrian ekoizpenari ekin ahal izateko

Enpresa kataluniarretik jakinarazi dute kontratatutako "ia denak" Etxetresnetako langile ohiak direla

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Cata enpresa kataluniarrek urrian abiarazi gura ditu Garagartzako eta Eskoriatzako lantegiak eta gainontzekoak, abuztu erdialdean jakinarazi zutenez, azaroa eta

martxoa bitarteko epean irekiko lituzkete, asmoak betez gero. Hala, irekiko dituzten lehen bi lantegietako lantalde eta zuzendaritzak kontratatzen hasi dira eta ohar bidez jakinarazi zutenez,

langile "ia denak" [Fagor Etxetresnen] bazkide eta langile ohiak dira". Irailean gainera, merkataritza jarduerarekin hastea da Catako arduradunen nahia eta enpresak eginga du dagoeneko

datozen hilabeteetarako produkzio plana. Hain zuzen, hasiak dira ekoizpenari aurre egiteko osagaiez hornitzen hurrengo asteetarako asmoak betetzeko. Fase horren ostean, azarotik

aurrera gainerako ekoizpen lerro guztiak martxan jartzeko lanean hasiko dira. Gainontzeko lantegien makineriaren eta instalazioen egoerak baldintzatuko luke azken fase hori lehenago ala geroago gauzatzea.

Edesa, zalantzez betea

Basauriko zatiari dagokionez Bizkaiko Aldundiaren eta enpresa kataluniarren arteko ulermen ez da erraza izaten ari. Bi aldeek oraindik ez dute mahaia- ren bueltan jartzerik izan Edesa zenaren eta bertako langileen egoeraz berba egiteko.

ARETXABALETA

Silikosiarengatik aitortza handiagoa, Olazabalen jardundako langile bati

J.B./U.M. | ARETXABALETA

Euskadiko Auzitegi Gorenak errekarua onartu zien Fundiciones Olazabal Aretxabaletako lantegian lanean ibilitako langile baten prestazioei. A.G.G. langileari aitortutako prestazioetan %40ko igoera, hain justu. CCOO sindikatuak eman du jakitera sententzia eta horrekin batera, prebentzio neurriak

eskatu dizkie fundizio alorrean diharduten enpresei. Sindikatuak emandako xehetasunen arabera, A.G.G. langileak 37 urte eman ditu Fundiciones Olazabal enpresan lanean, 1972tik 2009ra, hain justu. Gizarte Segurantzak 2012an aitortu zion erabateko lan-ezintasuna, lanpostuan silize-hautsa arnastearen kalteengatik.



Bergaran egin zuten elkarretaratzea. | IBAI REDONDO / TWITTER

BERGARA



Aitor Arregi bergararra, Cadizekin

Cadiz CF taldeak Aitor Arregi 24 urteko futbolari bergararra aurkeztu zuen abuztuaren 4ean. Urtebetez jokatu du Cadizen Arregik. Bergararrak esan zuen "oso pozik eta ilusionatuta" dagoela "aro berria Cadizekin hastearren". Eibarren jokatu du azken denboraldietan eta Cadizen ere mailaz igotzea izango du helburu.

OÑATI



OIHANA ELORTZA

Lizargarateko egun ederra

Aurreko Mendiko nagusiek omenaldia jaso zuten eta herri kirolak ere izan ziren aurreko domekan Oñatiko Lizargarate. Trikiti doinuak ere ez ziren falta izan egun guztian. Jaia berreskuratu eta Oñatiko Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatzen du, urtero, Udalaren laguntzarekin eta jendetza batu zen festara.

DEBAGOIENA

'Herriko Tabernen' auziko ondasunak, kautelan oraingoz

Lokal eta ondasunek dekomisatuta jarraituko dute Gorenaren epaiaren zain

J.B./U.M. | ARRASATE

Uztailaren 30ean jakinarazi zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak Herriko tabernen auzi-ko epaia. Dekomisatutako 110 lokalen artean 11 Debagoienekoak dira eta konfiskatuta jarraituko dute. Jarraitu, ze sententzia ez da irmoa oraindik orain eta Gorenaren azken erabakiaren arabera etorkizun bat edo beste izango dute ondasunek eta oraingoz kautelako neurri bezala, zeudenetan

jarraituko dute ondasunek. Hala, denbora pasatuko da gauzatu arte, tartean, errekursoak jartzeko denbora zabaldu behar dute-eta, Ibai Redondok, Debagoieneko Sortuko ordezkariak esplikaturakoaren arabera. Errekurtsoa jarriko dute eta horretarako epea eguenean amaituko da. Auzitegi Gorenak emango du hurrengo epaia eta hori exekutagarri izango da. Arrasaten, Irati taberna, Arrano elkarte

eta beste hiru lokal; Bergaran, Arrano taberna, Artatse elkarte eta beste lokal bat; Arrano taberna eta elkarte eta hirugarren lokal bat, Oñatin: horiek dira 35/02 sumarioaren epaiketan sartzen direnak.

Mobilizazioak

Epaia- ren harira, mobilizazioak egin zituen Sortu alderdiak Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, "eraso judiziala" salatzeke.

ARAMAIO

Fernando Etxebarria eta Argi, txapeldun

Fernando Etxebarriak urtetan Arabako Artzain Zakur txapelketan txapelketan parte hartu eta gero, Argi txakurarekin batera lortu zuen lehen postua. Arabakoa eta gero, Euskal Herrikoan hartuko du parte, Axpen.



GOIENA

ARETXABALETA

Kiroldegiko zorra, erditik gora murriztuta, kitatzeko akordioa lortu du Udalak

Akordioa lortu dute Galdiano enpresa eraikitzailearekin eta iazko jarduneko soberakinekin ordaintzea da gobernuaren asmoa, bi zatitan

J.B. | ARETXABALETA
Udalak eta kiroldegia eraiki zuen Galdiano S.A enpresak akordioa lortu zuten uztailean, Udalak enpresarekin zituen zorrak kitatzeko. 1.100.000 euro ordaindu

beharrean, 400.000 euro ordainduko dizkio Udalak Galdianori, Ana Bolinaga alkateak uztailari dagokion osoko bilkuran jakinarazi moduan. "Negoiazio gogorra baina ona" izan dela adierazi

zuen opor aurreko azken bilkura saioan.

Ordainketa, bi zatitan
Alkateak aurreratu zuenez Udalak iazko jarduneko soberakine-

kin egingo dio buru ordainketa-ri eta asmoa da bitan banatzea ordainketa: irailean 150.000 euro ordaintzea eta urtarrilean geratzen diren 250.000 euroak. "Zartada handia" dela aitortu zuen Bolinagak baina nabarmendu zuen ez dela hasieran ordaindu beharreko kopurua, milioi bat euro. Negoiazioa "gogorra" izanik", ona izan dela azpimarratu zuen Aretxabaletako alkateak eta, aldi berean, aurreko agintaldietan izan duten "aurreikuspen eza" salatu zuen.

ARRASATE

Gizonezko larri, zekor batek Valtierran adarkatuta

Zenbait lekukoren arabera, Valtierran (Nafarroa) zekor bat xaxatzen zebilela abereak sabelean adarkada jota larri eraman zuten Tuterako ospitalera abuztuaren 20an. Haren egoera larria zela-eta eta adarrak organoren bat hautsi ziolakoan, Iruñeko ospitalera eroan zuten 64 urteko Esteban Laskurain.



Kalakan eta Easo Abesbatza Arantzazuko Santutegian. | IMANOL BELOKI

OÑATI

Arrakasta erabatekoa Kalakanek eta Easo Abesbatzak Arantzazun

Sarrerak agortu ziren Donostiako Musika Hamabostaldirako gertatutako saioan

J.B. | OÑATI
Arantzazuko Santutegia jendez mukurru bete zen Kalakan taldea eta Donostiako Easo Abesbatzak eman zuen kontzertuan, abuztuaren 8an. Sarrera guztiak agortu ziren. Donostiako Musika Hamabostaldira ekarri zuen proposamen berezia eta *a capella*, zein instrumentuz jotako kantez emozioz bete zuten Arantzazuko Santutegia. Easo abesbatzaren gizonezko ahots sendoen eta Kalakan hirukoaren tradizio musikala ulertzeko modu bereziak uztarketa apartekoa egiten dutela garbi geratu zen Santutegiko saio berezian. Modu nabarian, joan zirenek asko disfrutatu zuten emanaldiaz. Arantzazuko Santutegia guztiz bete zen eta gutxi batzuk kanpoan gelditu behar izan zuten. Bestalde, automobil kopuru handia zela-eta Oñatiko udaltzaingoa zirkulazioa bideratzen ibili zen eta aparkalekua ere lepo bete zen.



UBANE MADERA

Sutea Oñatiko Ane mertzerian

Kalte handiak eragin zituen abuztuaren 1ean sute batek Oñatiko Lazarraga kaleko dendan, batez ere, keak eraginda. Lekukoek kontatutakoaren arabera, azkar egin zuten lan suhiltzaileek eta horri esker suteak ez zuen kalte gehiagorik eragin.

ARETXABALETA

Carlos Jimenez azkarrena izan zen Leintz Bailarako 76. ziklismo lasterketan

210 parte-hartzaileen artean lehen izan zen



Lasterketako podiuma. | IMANOL GALLEGO

J.B. | ARETXABALETA
Aretxabaletako jaien barruan jokatzeko den Leintz Bailarako ziklismo lasterketan Ciudad Real (Espainia) Carlos Jimenez txirrindularia izan zen irabazlea. Harekin batera Zirauna taldeko Imanol Estevez eta Gipuzkoa taldeko Aritz Bagues igo ziren podiumera. Guztiek nabarmendu zuten froga horretan taldeak duen garrantzia, eta maila horretan Caja Rural taldeak eskuratu zuen taldeari dagokion saria. Horrekin batera, mendian onena Gomur taldeko Mikel Bizkarra izan zen. Guztiek irribarretsu eta pozik jaso zituzten alkateak, kirol zinegotziak eta alkate txikiak banatu zituzten sariak. Aurtengo froga azken urteetako jendetsuena izan da, 210 txirrindulariarekin. Gainera, aurtun lehen aldiz Audio eta Amurrioko frogekin batera Aretxabaletakoa Udako Kriteriumaren parte izatea lortu zuten. Hala, Amurrioko froga irabazi ostean, eta Aretxabaletakoan bigarren postura lortuta, Imanol Estevezek criteriumeko elastikoari eutsi zion.



DEBAGOIENKO FRACKING EZ TALDEA

DEBAGOIENA

Fracking-aren kontra, Urbiako jaian

Fracking-aren aurka agertzeko elkarretaratze deialdia egin zuten Urbiako jai egunean bertan. Debagoieneko Fracking Ez taldeak egin zuen deialdia eta "orain arte erakutsitako aurkakotasun trinko" horri eusteko deia egin zuten. Honekin lotuta bi dira jada udalbatzarrek hala erabakita 'Fracking Gabeko Udalerrri': Bergara eta Leintz Gatzaga. Bergarak uztailean eta Gatzagak abuztu hasieran, Fracking Ez taldearen mozioarekin bat egin zuten. Jaurilaritzak eskatutako ustiapenak eta Espainiako Ministerioak baimendutako batek ibarra ia osotasun guztian hartzen dute.

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



XABIER ATXA ZUGASTI. 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASKURAIN. 2013ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate

- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragarriak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 13an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.eus-en sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilariei profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidaltuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - **Facebook bidez**, [facebook.com/udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookeez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatetik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarentako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

Parrokiako arkupeko San Juanen irudia apurtu dute

J.B. | ARRASATE
Zapatuko 04:00etan izan zen apurketa. Arkupeko ateburuan dagoen San Juan Bataiatzailearen figurari beso bat eta paldoa (makila) kendu zioten eta baita oinetako bildotsa erauzi ere. Berrehun urtetik gora du irudiak. Udaletik jakinarazi dute apurtutako piezak aurkituz gero udaltzaingora jo dadila. Horazio Argarate parrokoak penatuta esan du "mendetako ondarea" galtzen dela eta "arrasatear guztiena" dela galera eta salatu du halako erasoak "betiko kontua" direla.

Apurketatik berreskuratu ahal izan duten pieza bakarra bildotsa izan da – herritar batek aurkitu zuen domeka goizean Arbolapetan – eta horri ere hankak, belarriak, muturra eta buzana falta zaizkio. Udaleko Babes Zibileko arduradun Jose Luis



Ateburuko figura. | MIREN ARREGI

Etxebarriak eskatu du inork falta diren zatiak aurkituz gero udaletxera deitzeko (943 25 20 00). Horazio Argarate parrokoak penatuta, "betiko kontua" dela salatu du. Elizaren aurkako erasoak ohikoak direla dio, txixa ala pintadak modukoak.

'Pitxi'-ren memoriala datorren asteburuan da

ITE Hondarribia, Urdaneta eta Elgoibar taldeen aurka lehiatuko da Ford Mugarri

J.B. | ARRASATE
Irailaren 13an eta 14an, zapatua eta domeka, jokatuko da aurten Arrasate Eskubaloi taldeak urtero antolatzen duen Jesus Maria Herrero Pitxi-ren memoriala. Hamargarrena, aurten; Ford Mugarriekin batera lehiatuko dira ITE Hondarribia, Urdaneta eta Forging Group Elgoibar. Zapatuan 16:00etan hasiko dira partidua eta Urdaneta eta Elgoibar, batetik, eta Hondarribia eta Ford Mugarri, bestetik, izango dira aurrez aurre. Domekan 10:30ean izango da 3. eta 4. postuak erabakitzeko partidua eta finala 12:15ean hasiko dela iragarri dute Arrasate Eskubaloioek.



Iazko finaleko une bat. | ARTXIBOA



TTAKUN TALDEA

Txalapartariak Pirinioetan

Ttakun Txalaparta Taldea Pirinioetan egon da, hango Broto herriko El Perdido Meeting Bar tabernak deituta. Perkusio instrumentu hori nondik datorren eta zelan jotzen den azaldu eta ordubeteko emanaldia egin zuten taldeko kideek. Modu tradizionalean jotzeaz gain, alboka, pandero eta yembe perkusio instrumentuak lagunduta ere jo zuten txalaparta taldeko kideek.

Irailaren 6an maukak kalera Merkemerkauan

Ibai-Arte elkarteko 35 komertzio inguruk hartuko dute parte kalean eta Biterin ipiniko duten karpa baten

JON BEREZIBAR | ARRASATE
Irailaren 6an, Merkemerkaurekin batera, dendariek elkartek ortuko produktuekin osatutako 100 otzara banatuko ditu gaurtik aurrera bezeroen artean.

Eskaintza eta maukak, kalean
Merkemerkauari dagokionez, datorren zapatuan, irailak 6, izango da aurten eta dagoeneko 30 dendatik gora daude konfirmatuta; arropa, osagarri zein oinetako dendak, oro har. Generoa kalera atera eta eskaintza bereziak ipiniko dituzte merkatariek datorren zapatuan 10:00etatik 20:30era, eten barik, egun osoan. Alde zahar inguruko dendariak kalean bertan ipiniko dituzte saltokiak eta erdigunetik kanpoko komertzioak Biteriko karpa baten egongo dira.

Horrekin batera, eta hileko hirugarren astean izango den Aste Berdearen ekintzen barruan, merkatarien elkartek Arrasateko baserriarren produktuen




Maiatzeko Merkemerkaia, Biteriko postuekin. | ARTXIBOA

otzaren zozketa egingo du. Sari-keta horrekin gura dutena da ingurumenarekiko duten konpromisoa erakutsi eta bertako zein sasoiko produktuak kontsumitzearen garrantziaz ohartarazi. Hala, gaur hasi eta hilaren 19ra bitartean, 100 otzara zozketatuko dituzte komertzioetan erosteagatik. Bezeroari unean bertan jakinaraziko zaio

saritua izan den edo ez. Otzara, aldiz, irailaren 20an jaso behar da, 13:15ean, San Frantzisko eliza inguruan, hileroko baserriarren azokaren barruan. Saridunek komertzioaren zigitua daraman erosketa-txartela erakutsi beharko dute otzara jasotzeko. Arrasateko zazpi baserrik gertatu dituzte banatuko dituzten otzarak.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/herearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



Tejero, On Jose Maria Arizmendiarrrietaren azken agurrien

Barinagako Iturbe basarrixen jaixo zan On Jose Maria Arizmendiarrrieta, 1915eko apirilaren 22xen. 1968xen, bihotzak lelengo abixue emun eutzen; 1974ien, lelengo aldiz operau euen, bihotzien balbula artifizial bat ipiñitte; 1976xen, beste operaziño bat egin eutzien, eta urte berien hil zan, azaruaren 29xen. Haren gorpue egun bi egon zan parrokitan. Abenduaren 1ien hiletak izen izen. Eleixie jentez gaiñezka, eta aldare inguruaren 60 abade. Azken agurre kanposantuko atarixen egin eutzien; han atara euen goiko argazkixe. Zerraldueu inguruaren, Uribe basarriko haren loibak, Jesus Larrañaga, Del Arco, Javier Mongelos eta Jose Maria Ormaetxea. Eta hareikin danekin batera, lelengo illeran, bere betiko bigotiekin, orduko Gipuzkuako Guardia Zibillen komandantie, Antonio Tejero Molina.

Felix Bolibar, kamioiekin aurrera eta atzera
Urte asko egin zittuen kamionero Felix Bolibarrek. Berak esaten euen moduen, lan asko eta diru gutxi: "Gaur barrenderuek hobeto pagaute jazak kamionerue baino. Neuri zer pasau jatek? Gorputze hondatu eta duro bat irabazi ez". Kamioi asko konduzidute euen, danetarikuek: "Roneon Mack-a euki neu. Gasoliñie erreten juan... Campsako kamioie be gutxi zuan harentzak. Eterra, barrez, arrankaualdi guztietan biher". Bijaie asko egin zittuen urte askuen, eta, bestiek beste, ardaue ekarten euen Cariñetatik (Zaragoza): "Tabernie eññ aurretik, hemen etxe aurrien tejamana bat gaukan eta hemen hasi gitzu. ardaue saltzen. *El Portal de Belen* deiketan jutzien. Horreik 200 litroko barrikok en *un santiamen* jueten zittuan".

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



ARRIKRUTZ
oñatiko obak

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

ALZU

ALZU, S.L Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beherapena.

AZPEITXI
JATETXEA

AZPEITXI Jatetxea*
Aranerreka kalea 13, Bergara
Tel.: 943 76 55 00
Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.



ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
% 2ko gasolindegian erregaia erosita.
% 2ko dendako produktuetan.



GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

RPS 445-5670



GAHIR Fisioterapia / Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea | Eskoriatza
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



INSTITUTO OPTIKOA
Bidekurutzeta 10 | Bergara
%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan..



GRACIAN Mertzeria
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.



IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa
Burdinate plaza 2 | Bergara
Lehenengo sesioa, sesio erdi..

MIREN GARAI

MIREN GARAI Estetika Etxea
Zarugalde kalea 23, 2 ez. | Arrasate
Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskuetako tratamendua doan.

argia

ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).



ML Ile-apaindegia
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate / Tel.: 943 797 965
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua.
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.



SARA MERENDERUA Jatetxea
Meatzerreka auzoa 19, Kanpazar bidean, 3km-tara – Arrasate
Tel.: 943 77 15 86
Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).

MULTIÓPTICAS
lehenen zerbitzu optikoetan
R.P.S. 149/10 L.L.G

MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..

Markiegi

MARKIEGI JANTZI DENDA
Olarde kalea 2 | Arrasate
Produktu guztietan %10eko deskontua.

TXURI-URDIN
Izotz Jauregia

TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
% 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia).
% 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.

caravanas Oñate

CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otaui Zuhaiztia, 25 | Oñati
50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).

MAGDALENA
GASOLINDEGI

MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erosita.



NEBRASKA taberna
Zarugalde 35 - Arrasate
Tel.: 943 79 09 39
MAHOU garagardo botila, euro bat bazkideentzat
Zapato eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan
Interneteko menuetan %5eko deskontua

NINIK
LORADENDA

NINIK Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikulu guztietan.

AQUARIUM
DONOSTIA SAN SEBASTIAN

AQUARIUM – Donostia
Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena ordainduko da).



GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeen.

LONBIDE
OINETAKOAK

LONBIDE oinetakoak
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara
Tel.: 943761057
Produktu guztietan %10eko deskontua.

TABERNA-BERRI
JATETXEA

TABERNA-BERRI Jatetxea*
Durana kalea 26, Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 67
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero;
Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.



ZABALA Jatetxea*
Labegarieta 14, Bergara
Tel.: 943 76 42 57
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelehenetik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Antonio Lizana saxo-jotzailea. | PALMA.FLAMENCOISTIME.COM

Jazz-flamenko kontzertua, Antonio Lizanaren eskutik

- ▶ Aukeran taldearen ikuskizuna ere jasotzen du iraileko kultura agendak
- ▶ San Martin jaiak ere prest daude; danbor hotsa izango da nagusi herrian

LARRAITS ZEBERIO | BERGARA
Bergarako Udalak iraileko kultura agenda aurkeztu du. Antonio Lizana saxo-jotzailearen jazz eta flamenko saioak —hilak 6—, Aukeran dantza konpainiaren *Geltokia* ikuskizunak —hilak 12— eta *Koka-kola eta barea* antzezlanak —hilak 26— osatzen

dute, besteak beste, helduendako egitaraua. Hurrei dagokienez, *Bertsolharitza* saioa iragarri du Jardunek hilaren 12rako Errotalden. Ipuin eta antzerki emaldia da. Maite Franko ipuin kontalariak, berriz, bi saio egingo ditu hilaren 26an Udal Liburutegian. Sarrera doan da.

Kafe-konponeko kideek hilaren 10erako egin dute iraileko hitzordua, eta biodantza saio irekia egingo dute hilaren 22an Mariaren Lagundia ikastetxean. Bergarako Kirol Zerbitzuak antolatuta, bestetik, Kirola Kalera Eguna egingo dute herriko hainbat txokotan hilaren 21ean.



OIHANA ELORTZA

Ziburu berriak prest daude

Gustura asko estreinatu dute herritarrek Labegarietako kiroledegipareko jolasparke berria. Hilabete darama martxan. Egungojolasparkeek dituzten jolas berriak eta tradizionalak jarri dituzte bertan: tirolina eta ping-pong mahaia eta ohiko zabuak, besteak beste. Orain, guztiok ondo zaintzea komeni da, luze iraun dezaten.

Bedelkarrekoen udako merkealdi azoka hilaren 6an Seminarioko karpan

M.B. | BERGARA
Bedelkarrek, Bergarako Merkatarien Elkartek, udako merkealdi azoka antolatu du datorren zapatarako, irailak 6. Egun osoko azoka izango da, goiz eta arratsalde egongo da zabalik, eta, aurreko aldietan bezala, salgaiak saltoki aurrera atera beharrean, Seminarioan dagoen karpan ipiniko dituzte

postuak, lehenengoz. "Oso prezio murriztuetan saltzeko asmoz", gainera, Bedelkarreko ordezkarien esanetan. Askotariko hamasei saltokik hartuko dute parte merkealdi azokan; besteak beste, emakume, gizon eta haur arropa duten dendek, kirol arropakoek, osagarriak saltzen dituztenek, oinetakoak...

Danborradarako entsegu egunak

Finkatuta daude danborradarako entsegu egunak. Irailaren 1ean, 2an, 3an, 8an, 9an eta 10ean egingo dituzte Seminarioko karpan. 4 urtetik gorako haurrena 19:00etan hasiko da eta helduena, 20:00etan. Antolatzaileek gogorarazi dute gerrikoa eraman behar dela.

San Martin jalak

Danbor hotsa izango da nagusi Bergaran datozen egunotan; izan ere, danborradarako entseguak gaur hasiko dira. Hilaren 13a da feria eguna eta musika bandak 16an egingo du urteroko kontzertua. Xake txapelketa, berriz, hilaren 21erako deitu dute.

Aholkularitza hitzaldiak

Jexux Larretxea yin-yangaren inguruan arituko da hilaren 19an Irizar jauregian, eta Nerea Mendizabal psikopedagogoa mugen eta zigorren inguruan, hilaren 24an, Zabalotegi aretoan. Era berean, erakusketak ere ez dira falta izango. Zazpi egongo dira ikusgai irailean; esate baterako, Gure Esku Dago argazki erakusketa.

Gaur, astelehena, hasiko dira danborradetarako entseguak

Umeena 19:00etan izango da eta nagusiena, 20:00etan, biak ala biak Seminarioko karpan

M.B. | BERGARA

Gero eta gertuago daude San Martin jaiak, eta horrekin batera ume zein nagusien danborradak. Hain zuzen ere, gaur, irailak 1, hasiko dira bien ala bien entseguak. Entsegu egunak izango dira irailaren 1a, 2a, 3a, 8a, 9a eta 10a; hau da, iraileko lehenengo bi asteetako astelehen, martitzen eta eguaztenak.

Seminarioko karpan

Umeen kasuan, 19:00etan hasiko dira entseguak —4 urtetik gorako neska-mutikoeek har dezakete parte— eta nagusien entseguak, berriz, 20:00etan, Seminarioko karpan. Udaleko Kultura Sailetik gogorra ekarri nahi izan dute gerrikoa eraman behar dela entseguetara, danborra ondo lotu ahal izateko.



Umeak entseatzen Pello Garitanoren agindupean. | ARTXIIOA

NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO



Mixerabilia

Lehenengo baten izan nitzan burdindegian erosteko asmoz, arterio simple bat, baina oso beharrezkoa sukaldean, eta izendatzen dotena, *mixerabilia*... —nere ama zenari entzunda. Ez zekien dendako jabeak zer zen, orduan nik esplikatu nion zala makila zapal bat, koilara estilokua, gomazko bi hertz edo txafan, bitartean hartzen dutenak... eta orduan ezan zostan hori zala, *mingaina*...

Bueno, nik esan notsan, ba ondo dagola esanda *mingaina* (nahiz eta adiera asko eduki, ahoko organo bat, kanpaiaren badajoa ere bai, zarraila baten lengetia eta abar...), baina *mixerabilia* ere ondo dagola esanda, neretzat hobeto, gainera, daukan izpiritu zorrotzgatik.

Badakizue sukaldean saltsa eta hainbat arrastu gelditzen direla, eta ez bakarrik arrastotoak, izan leizke mila gauza ondo aprobetxatzea merezi duenak; hor dare angulak, adibidez, eta horrek die *pala-bras mayores* garestiak direlako, edo oso gutxitan jaten direlako. Orduan, derrigorrezkoa da aprobetxatzea ahal dan guztia, eta hor sartzen da hitz gogor, barne zatarrak, eta norberari aurpegira bota ezker, min galanta egiten duena, baina kasu honetan oso ondo ñabartzen duena problemia.

Nere ustez, gehienbat Madura auzoan —hangoa zan ama—, Bergarako euskeraren leku paregabea, nahiz eta prestatutako hitza izan, beste hainbat hitz bezala, hala esaten zala, eta nik hala segiduko dot eskatzen, *mixerabiaren* beharra daukatenean.

"Esan notsan ondo dagola 'mingaina', baina 'mixelabilia' ere"

Irailaren 10ean egingo dute Kafe-konponen hurrengo saioa

Abuztuko etenaren ostean, irailaren 10ean, eguaztena, egingo dute Udalak bultzatutako Kafe-konpon egitasmoaren hurrengo saioa. Berrera-bilpena helburu, etxeko tresnaren bat hondatuta izan eta konpondu nahi duen edonork har dezake parte. San Joxeperen egoitzan batuko dira, 16:00etan.



Ohorezko erregional mailako futbolariak martitzeneko entrenamenduan. | O.E.

Aloña Mendiko 11 futbol talde denboraldia hasteko

Ohorezko erregional mailako taldeak irailaren 14an du lehen partidua, etxean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Guztira, Aloña Mendirekin, 150 lagun inguruk jokatu dute datorren futbol denboraldian. Igor Serrano idiazabaldarrak zuzenduko du lehen taldea, Unai Mendia laguntzaile duela. Etxean jokatu dute denboraldi berriko lehen partidua, irailaren 14an, Martuteneren kontra.

Azkoagain eta Larraña

Abuztuaren erdialdea ezker, Azkoagain ez dago hutsik. Hasi daude futbol taldeko kideak entrenatzen, eta, behin iluntzerako, talde bateko zein besteko jokalariek entrenatzen dihardute egunero. Lehen taldeak, esaterako, ohorezko erregional mailakoak, astean lau entrenamendu saio egiten ditu.

JabiAzpiazurekin batera, Jesus Mari Zelaia ari da talde guztien entrenamenduak koordinatzen. "Larraña futbol zelaia ere hor dago. Argia badago, baina aldagelak falta dira, saioak bukatu ostean dutxa hartzeko. Ari da osatzen hori ere. Asmoa da zelai biak erabiltzea", adierazi du futbol saileko presidenteak.

Igor Serrano

Lehen taldeak, esaterako, uztailan hasi zituen entrenamenduak, lasai. Eta hamabost eguneko oporren ostean, abuztuaren 18an hasi zen denboraldi berria geroz prestatzen. Aurten, Igor Serrano eta Unai Mendia goierritarren aginduetara jokatu dute.

Klubak helburu bat jarri dion arren, Serranoren helburu per-

tsionala denboraldiko lehen partidua irabaztea da. Gainera, Aloña Mendi talde berria da Igor Serranorendako, baina gogoz eta pozik dago Idiazabalgo entrenatzailea. "Klubeko zuzendaritza taldearekin harreman ona dut eta jokalariekin ere bai. Pozik nago. Ikusi dut lanerako gogoz daudela", esan du Azkoagainen.

Irailaren bigarren asteburuan hasiko du denboraldia ohorezko erregional mailako taldeak, eta etxean jokatu du lehen partidua, Martuteneren kontra. Egubakotzean, baina, lagunarteko partidua jokatu zuen Bakion.

Talde horrez gain, baina, beste hamar talde arituko dira futboleko hastar denboraldian, Jabi Azpiazurekin esandako moduan.

Aloña Mendik mendi irteera antolatu du hilaren bigarren astebururako, Pirinioetara

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Monte Perdido mendia ezagutzeko aukera izango dute hilaren 13ko eta 14ko mendi irteeran parte hartzen dutenek. Hilaren 13an Correos paretik irtengo dira, 06:00etan, eta gehienez 25 pertsona taldea joan ahal izango da.

Goi mendiko ibilbidea

Hilaren 13an hamalau kilometro inguru egingo dira, 700 metroko desnibelarekin. Txoko hauek ezagutuko dituzte irteerara joaten direnek: Gavarnie (Col de Tentes), Sarradets, Brecha Roland, Caseret eta Goriz. Bretxa inguruan


elurra egon daiteke, eta kranpoiak eramatea gomendatzen dute antolatzaileek.

Hilaren 14an, oster, 22 kilometroko luzera izango duen ibilbidea egingo da, 1.200 metroko desnibelarekin. Goriztik irten, Monte Perdido joan eta Ordesa ezagutuko dute bertaratutakoak.

Izena emateko epea

Mendi irteeran parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute hilaren 3tik 9ra bitartean.

Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte, bazkide ez direnek 70 euro eta langabeek, berriz,



Monte Perdido. | ALOÑA MENDI

50 euro. FEDME txartela ez daukanak 10 euro gehiago ordaindu beharko ditu aterpetxean eta mendi irteerara joan ahal izateko, gainera, derrigorrezkoa da federatuta egotea.

NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA



Irakasle onporak

Irakasle garenok ekainaren 22 inguruan izaten dugu lehenengoz hizketaldi hau; lagun batekin elkartu eta zera galdetzen digu:

- Jadantik onporretan zaude?
- Oraindik ez.
- Irakasle hartu dituzte ba onporrak! Zuek zertan ari zarete ba orain?

- Ba ikasturteari amaiera ematen ari gara: azken azterketak, memoriak. Eta datorren kurtsoari begira prestaketa lan batzuk egiten ere hasi gara.

Gure laguna ez da azalpen honekin oso konforme gelditzen pentsatzen baitu irakasle ezean irakasleok ez dugula zereginik. Hizketaldi hau behin eta berriro errepikatzen da, eta

azkenean geuk ere zer esan ez dakigu.

Gaur abuztuaren 28 da eta Frantzia aldean gabiltza oraindik. Lagunartean oporren amaiera iristear dela komentatzen hasi gara eta denak (6 ginen) astelehenean lanean hasten garela esan dugu, orduan lagun batek zera galdetu dit:

- Zu ere astelehenean hasten zara?

- Bai, irailaren batean, urtero bezala!

- Irakasle ez duzue baina irailaren 8 arte, zer egiten duzue ba?

- Kafea hartu mutil, kafea hartzen pasatzen dugu guk eguna irakasle hasi artean!!!!

"Kafea hartzen pasatzen dugu irakasleok eguna irakasle hasi bitartean"

San Lorentzon irisgarritasun lanak egin dituzte abuztuan

San Lorentzo auzoan irisgarritasun lanak egiten dihardute. Auzoaren goialdeko etxe inguruan espaloiak zabaldu, zoladura berritu eta zebra-bideak moldatu behar dituzte. Arrapala bat ere jarri behar dute goialdeko aparkalekue-tara iristeko; aldapako espaloia ere konpontzen ari dira.



Espaloiak konpontzen. | O.E.

Kiroldegiak eta helduen liburutegiak ohiko ordutegia izango dute gaurtik aurrera

Zubikoa kiroldegia, esaterako, 07:30etik 21:30era egongo da zabalik aste barruan, gaurtik aurrera; zapatuetan, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:30era, eta domeka arratsaldeetan itxita egongo da. Helduen liburutegia ere neguko ordutegiarekin zabalduko dute; haurrena, berriz, hilaren 8tik aurrera zabalduko dute arratsaldeetan. Udal komunikabideak ere lanean daude.

Moneta sozialari buruzko azken bilera egingo dute bihar, martitzena, osoko bilkuren aretoan

Moneta sozialaren proiektuaren proposamena herriko merkatariei aurkezteko bilerak antolatu dituzte eta bihar, martitzena, egingo dute azkena, bosgarrena. Igeltserotza, aroztegi, elektrizitate eta iturgintza esparruetan lan egiten duten herritarrei dago zuzenduta bilera hori. 09:00etan, 15:00etan eta 20:00etan egingo dute bilera, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta hiru ordu laurden iraungo du, gutxi gorabehera.

Ikasturte hasierako bilera egingo dute Urgain eskolako Errekalde gunean irailaren 4an

Ikasturte hasieran egin ohi duten bilera egingo dute egunean Urgain eskolako Errekalde gunean. Landuko dituzten gaien artean hauek daude: irakasleen aurkezpene, egutegia, guraso elkartearen funtzionamendua eta zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendua (jangela, garraioa, zaintza...). Galde-erreguetarako tarte ere egongo da. Bilera 18:00etan da, eskolako areto nagusian. Haurtzaindegi zerbitzua egingo da.

ESKORIATZA



Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekuari sakonera txikitzen, joan den eguenean. | OHIANA ELORTZA

Igerilekuari sakonera txikituta, aurrera doaz kiroldegiko lanak

117.000 euroko aurrekontua dute eta urri hasierarako bukatuta izango dira

Oinezkoek izango dute lehentasuna Jose Arana, kalean egubakoitzetik

M.A. | ESKORIATZA

Jose Arana kalean oinezkoek lehentasuna izan dezaten gura du Udalak, eta horretarako zein ordutegi ezarri landu zuen uztai-lean; baita autoendako kalea ixteko ordutegiaren proposame-na egin ere. Azken erabakia har-tu aurretik, baina, herritarren

iritzia jakin gura izan dute eta iradokizunak egiteko aukera izan da abuztuan.

Azken erabakia gaur

Udalak lantalde bat eratu zuen bere garaian Jose Arana kaleko peatonalizazioa aztertzeko. Lan-talde horretan daude Obra eta

Zerbitzuetako batzordeko kideak, Mugikortasun arloko ordezkariak eta udaltzainak. Gaur, astelehe-na, elkartuko da lantalde hori herritarrek azken hilabetean egindako iradokizunak aztertze-ko. Eta azken erabakia ere gaur hartuko dute.

Beñat Herce alkatearen esa-netan, Udalak egindako propo-samena aurrera joango da, baina baliteke "zerbait aldatzea" herri-tarren iradokizun horiek kontuan izanda.

O.ELORTZA/M.ALUBE | ESKORIATZA

Manuel Muñoz kiroldegiko igeri-lekuaren sakonera txikitzeko eta makineria gela konpontzeko lane-tan dihardute bete-betea. Izan ere, urrirako bukatuta izan gura dituzte lanok, ikasturte berria hasteko.

Igerilekuko ura berotzen duten galdarak eta gas galdara gordetzen diren gela konpontzeko barruko makineria guztia atera dute. Gela hori ez zegoen batere egoera onean, lurra altxatu egin delako. Bestal-de, igerilekuari sakonera txikitzen dabilta. Orain arte 1,50 metro eta 2,10 metro artekoa izan du eta gero, 1,20 metro, 1,40 metro eta 1,60 metro izango ditu. Horrela, kostua aurreztuko dute; bai ura-rena, bai gasarena, bai uraren tratamendurako produktuen. Sakonera txikitzeak, gainera, bes-te jarduera batzuetarako aukera eskainiko duela jakinarazi du Kirol zinegotzi Igor Ezpeletak; aquagyma egiteko, esaterako.

Lanok egiteko ez da igerileku zerbitzurik egon udan, eta horrek sortu ditu kexak herritarren artean. Ezpeletaren esanetan, baina, "erabilera gutxien" udan izaten du igerilekuak, eta horre-gatik erabaki dute orain egitea.

ordutegia

Egubakoitzean, irailaren 5ean, jarri gura dute abian oinezkoen-dako ordutegia. Hau da Udalak egindako proposamena: astegu-netan, 16:30etik hurrengo egune-ko 06:00ak arte; zapatuetan, 13:30e-tik 00:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, egun osoan. Ordu-tegi horren barruan, oinezkoek izango dute lehentasuna kale horretan. Hala ere, gaurko batza-rraren ostean aldaketaren bat egon daiteke.

ARETXABALETA

Senegal eta Gambiako kontuak ekarriko ditu Mikel Bringasek irailaren 18an

Familiarekin batera bizikletan egin duen bidaiaren berri emango du Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Ikasturte berriari pintura era-kusketak emango dio ongietorria Arkupe kultura etxean. Eguaz-tenean hasita, Marije Carrillo irakaslearen taldeko emakumeek egindako lanak izango dira era-kusketa aretoan.

Era berean, irailarekin batera zabaldu dute hainbat ikastarota-rako izen-emate epea. Aurreko ikasturteetan legez, pintura eta eskulan ikastaroak izango dira urrian hasita, baita moda labora-tegia ere Katalin Antxiarekin. Interesatuak Arkupeko harreran eman behar dute izena.

Antzezlanak, umeek eta helduek Antzezlan bi izango dituzte umeek bi domekatan (17:00). Hilaren 14an, *Mollie Malonen ipuin sine-tezina* Txalo Produzioen eskutik; eta hilaren 21ean, *Galtzagorriei to*, *Inaxito* bertso-antzerkia.



Mikel Bringas eta haren familia, Afrikan. | MIKEL BRINGAS

Helduek, oster, *Ondoko hilo-biko tipoa* komedia izango dute irailaren 25ean, Aitziber Gar-mendia eta Iker Galartza aktore ezagunekin.

Bestalde, hilaren 18an, egue-na, Mikel Bringas donostiarra izango da Arkupen (19:00). Afri-

kara, Senegal eta Gambia herrial-deetara egindako bidaiaren berri emango du argazkiak lagun ditue-la. Rosa Lizaso emaztea eta Eki eta Lur seme-alabak izan zituen lagun bidaiaria hartan, eta han bizi izandakoen gainean jardungo du aretxabaletarrekin.

Gure Esku Dago taldeak antolatuta ekitaldia dago

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Gure Esku Dago lantaldeko kideek lanean jarraitzen dute. Hala, herri-tarrei eskerrak eman gura dizkiete, eta, era berean, hemendik aurrerako bidea marrazten hasi. Horretarako, bi ekintza antolatu dituzte. Batetik, ekitaldia egingo dute egubakoitzean, Herriko Plazan (18:30), bertsolari eta trikiti-lariekin, "ekainaren 8an lor-tutakoa Aretxabaletan ere ospatzeko".

Bestetik, aurrera begirako ibilbidea marrazteko ekarpenak jaso gura dituzte: "Guztiok gare-lako erabakitze eskubidearen aldeko dinamikan ezinbeste-koak". Horretarako, galdetegi bat prestatu dute *on line* eran-tzuteko. Egubakoitzeko ekital-dian ere erantzun daiteke.

NIRE USTEZ



OLATZ PAGALDAI

Hainbeste gai daude...

Heldu da abisua, arti-kulua behar dute. Hemen nago, pantai-la zuriaren aurrean.

Leihotik begiratzen dut, aurtengo abuztuko eguraldi kaxkarraz idatziko dut? Ez. Orri honetan agertzeak gai sakonago bat merezi du.

Ez dakit; pentsatu, Olatz. Eee... Ustelkeriaz? Buf! Esate-ko dagoen guztia ez zait zatitxo honetan sartzen... Atez atekoaz gutxi geratzen da esateke... Ba orduan zertaz!? Kutsaduraz? Irakeko bonbardaketez? Hegaz-kin istripuez? Medikuntzaren merkatuaz? Gizakien trafikoz? Ukrainaz? Afrika eta Latinoa-merikaren arpilatze lotsaga-beaz? Ez dakit ze ozeanotan, ur gainean dagoen plastikozko kontinenteaz?

Bueno, bueno, Olatz, ez pasa! Pentsatzen dut, egune-roko bizitzatik gertu dagoen gai bat hartu... Ongi... Jo, e! Hau da hau! Askatasunak pre-so hartu nau! Hainbeste gai daude aztertze... Ea, arnasa sakon hartu... Erlaxatu... Erla-xatu? Egungo bizitzan ez dago erlaxatzerik. Dena da atzoko, inork ez dauka pazientziarik. Eta pazientzia daukana lelotzat hartzen dugu.

Gloria Fuertesek esaten zuen: "Helmugara iristeko presa daukanak ez daki nora doan. Helburua argi duenak soilik hartzen du denbora hel-mugara iristeaz gozatze".

Badakit! Gloria Fuertes! Berak badauka orri honetan agertzeko behar den sakon-tasuna eta bizitzarekiko ger-tutasuna. Gloria da sendagaia. Zer dago gaur egungo gizarte beharretatik gertuago Gloria Fuertes baino?

"Erlaxatu? Egungo bizitzan ez dago erlaxatzerik"

ESKORIATZA

Eguenera arte zabalik Asturiasera joateko izen-emate epea

Eskoriatzako Olazar erreti-ratuen elkarteak kideak Astu-riasera joango dira urriaren 1etik 7ra bitartean. Cangas de Onis, Llanes, Covadonga eta Oviedo bisitatuko dituz-te, besteak beste. Izena ema-teko erretiratuen egoitzara jo behar da martitzenean edo eguenean (11:00-12:30); azken eguna, irailaren 4a.



Lanak egin ostean Ozkarbi elkarteko sukaldea handiagoa da eta altzairu gehiago ditu. | L.Z.

ELGETA

Uztailean egindako lanen ostean elkarte dotorea gelditu zaie Ozkarbiko bazkideei

Goiko solairuan sukalde zabalagoa eta komun berriak dituzte; behean, berriz, garaiera handiagoa eman diote barrari eta hozkailu berriak sartu dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aldaketa nabarmenenak goiko solairuan antzematen dira. Komun zaharra kendu egin dute eta horrek sukaldea zabaltzeko aukera eman du. Komuna, orain, berria da eta pilota sailak erabiltzen zuen gelan egin dute.

Sukaldea handitzeak aukera eman du tresnak gordetzeko altzairu gehiago ipintzeko, baita izozkailu industrialak sartzeko ere. Handiagoa eta argiagoa ikusten da sukaldea. Eremu guztian, gainera, zorua berritu dute.

Aldaketak barran

Behoko solairuan ere egin dituzte hobekuntza lanak nahiz eta hain agerikoak ez izan. Barrari garaiera handiagoa eman diote eta altzairu berriak sartu dituzte, izozkailuak gehienbat. Antolaketa ere desberdina da; kafea egiteko makina, esaterako, tokiz aldatu dute. Eraikineko leihoak ere berritu egin dituzte.

Ferixa Nagusiko jaien ostean hasi zituzten lanak Ozkarbin, eta elkarteak asteak eman ditu itxita. Aurrerantzean bazkideek eta erretiratuek azpiegitura hobeak dituzte.



Goiko solairuan egin duten komun berria. | L.Z.



Sarrerako barrak garaiera handiagoa du, eta izozkailu berriak daude. | L.Z.

ANTZUOLA

Gaur hasiko dira ikasturteko lehen ekintzak udal gimnasioan

Aurtengo nobedadeen artean daude zunba, 'Indoor Walking Lowcoast' eta 'Spinning Visual'

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Urrian hasiko dira ekintza guztiak udal gimnasioan, baina irailean ere izango da kirola egiteko aukera bertan.

Irailaren 1etik 14ra bitartean pilatesa, spinninga, body tonoa, *Indoor Walking Visual* eta *Spinning Visual* egiteko aukera egongo da. Irailaren 14tik 30era, berriz,

beste batzuk gehituko zaizkie: sasoian egoteko gimnasia, zunba, GAH, karatea, body tonoa, body balancea eta hirugarren adinekoendako gimnasia.

Urritik aurrera martxan izango dira ekintza guztiak eta irailakoei gehituko zaizkie ondorengo hauek, aldaketak izan ditzaleten arren: *Indoor Walking*

Lowcoast, *Spinning Lowcoast* eta zunba gaztea.

Balorzio positiboa

2013-2014 ikasturtearen balorzio positiboa egin dute gimnasioko arduradunek. Azken urteetako "bide negatiboa" atzean utzita, azken ikasturtean "joera positiboa" ikusi dute bai fitness gela erabiltzean eta baita ekintzetako parte-hartzean ere. Horregatik, gimnasioko arduradunek eskerrak eman nahi izan dizkiete erabiltzaileei beraieran jarri duten konfiantzagatik eta animatu nahi izan dituzte irailetik aurrera ere gimnasiora gerturatu eta ekintzetan parte hartzera.

ARAMAIO

'The Romantics' taldeak kontzertua eskainiko du egubakoitzean Sastiñan

Blues doinuak izango dituzte oinarri tolosarreko iraileko lehenengo egubakoitzeko emanaldian

AMAI TXINTXURRETA | ARAMAIO

Kultura eskaintza protagonista izan zen ekaineko egubakoitz guztietan Sastiñan eta udako kontzertuei jarraipena emango zaie irailean ere, egubakoitz honetatik aurrera. The Romantics hirukotea izango da protagonista egubakoitzean, hilak 5, 20:00etan eskainiko duten kontzertuan.

The Romantics 2009. urtean sortutako taldea da, kideek bluesaren alde egindako apustuaren emaitza. Hiru kideek osatzen dute taldea: Iker Pirisek -ahotsa eta gitarra-, Xabier Barrenetxeak -baxua- eta Carlos Sagik -bateria.

Taldeak, blues estiloaz gain, swing doinuak, Chicagoko blue-

sa, funka, rhythm eta blues ukituak ere baditu.

Tolosatik Sastiñara etorriko den hirukoteak emanaldi ugari eskaini ditu dagoeneko eta jaialdi askotan ere hartu du parte. Gainera, Sheilah Cuffy eta Tonky de la Peña musikariek in jo izan dute. Oraingoan, baina, aramaioarrek etxean bertan disfrutatu ahal izango dute taldearen musikarekin.

Kontzertu gehiago

Hilabete honetako egubakoitzetan kontzertu gehiago ere eskainiko dira Sastiñan: hilaren 12an Gasteizko Whisky Dyck taldea izango da eta hilaren 26an, berriz, Algortako La West Bluegrass Band.



Egubakoitzean Sastiñan kontzertua eskainiko duen hirukotea. | HOTSAK.COM

LEINTZ GATZAGA

Ehizarako basoa ustiatzeko enkante deia

21 uso-postu eta oilagorretarako zortzi txartel banatzeko eta ehiza larrirako enkanteak dira

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Ehizarako erabiltzen den Gatzagakomendia basoaren ustiapea esleitzeko bi enkante dei egin ditu Leintz Gatzagako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren baimena jaso ondoren. Bata da ehiza larrian jarduteko, hau da, basurde eta orkatz espezieen ehizan. Horretarako aprobetxamenduko tasazioa 3.630 eurotan ezarri du (BEZa barne).

Beste enkantea dagokio hegazti migratzaileak ehizatzean datzan baso ustiapenari, bai ohiko lerroetako postu finkoak, bai *al salto* direlakoak banatzeko. Lehenengo kasuan, 21 uso-postu dira enkantera ateratakoak eta prezioa ezarri dute 22.110,02 eurotan. Bigarren kasuan, oster, oilagorren *al*

salto ehizarako zortzi txartel edo baimen dira eta 4.000 eurotan zehaztu dute.

Basoaren ehizarako erabiler, bi kasuetan, hiru urterako izango da.

Eskaintzak irailaren 12rako

Eskaintzak Gatzagako udaltxean aurkeztu behar dira (astelehenetik egubakoitzera, 09:00-14:00) eta azken eguna da irailaren 12a, egubakoitza (14:00). Argibide gehiago gura duenak Udaleren webgunera jo dezake www.leintzgatzaga.com; bertan zehaztu dituzte postu bakoitzari ezarritako prezioa, bete beharreko baldintza zehatzak eta eskaintza ekonomikoa aurkezteko eredu, esaterako. Enkante deia, gainera, abuztuaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten.

Goiena Klubeko iraileko zozketak!

Goiena Klubeko bazkidek irabaz ditzakezuan sariak hauek dira. Hartu parte!



Telebista

32 hazbeteko LG Telebista.
Parte hartzeko sariaren izena:
Telebista

Arrasateko hipermerkatua



EROSKI

zurekin



www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra

Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
oñatiko kobak

Arrikruz sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz



Argia

Argiako jokoak

Atlantika 2 joko

Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoa

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Markel Uriarte | Orbea Enduro Crew taldeko riderra

"Igotzea baino, Tourmalet atzeko gurpil gainean jaistea zailagoa da"

- Abuztuaren 22an igo zuen Frantziako mendatetzarra gurpil bakarraren gainean
- Udazken honetan Anboto jaitsi nahi du bizikleta gainean, Arrazola aldera

XABIER URZELAI | ARETXABALETA

Astebete baino ez da igaro Markel Uriartek (Aretxabaleta, 1991) Tourmalet mendatea atzeko gurpil gainean igo zuenetik –*caballitoa* egiten, errazago ulertzeko–, eta jada etxean, Orbeako riderrak onartu du uste baino errazago bete duela erronka. Pentsa, hurrengo egunean –zapatuan, hilak 23– ostera ere Tourmalet igo behar zuten Pic du Midira joateko, eta bigarren saiakera egitera animatu zen; eta hori ere bete.

Giharretako minik?

Ez, uste baino hobeto amaitu nuen. Nekatuta, baina giharretako arazo barik.

Gerrialdea, besoak... Ederra esfortzua.

Ipurdiko mina galanta izaten da [Barre]. Hor sufritzen dut gehien.

Aspaldiko erronka zen Tourmalet modu horretan igotzea.

Bai, urtebete neraman kontu horrekin buruan. Iaz lankideekin apustu bat egin nuen, baietz Udala auzora gurpil bakarrean igo. Eta hura ondo egin nuela ikusita pentsatu nuen Tourmaletekin saiatzea. Noski, Udalak lau kilometro ditu eta Tourmaletek, hogei.

Enduro denboraldia prestatzen hasi zinenean larritu egin zinen, zail ikusi zenuen?

Otsail inguruan proba bat egin nuen, Aretxabaletako auzoetan bi orduz ibili nintzen gurpil bakarraren gainean, eta erabat lehortuta amaitu nuen, bizikletatik jaisteko ere ez nintzen kapaz. Orduan pentsatu nuen benetan zaila izango zela Tourmalet igotzea.

Zorionez, denboraldi hasiera baino ez zen.

Bai, ordutik asko ibili naiz. Ezin dut seguru esan, baina 500 kilometro inguru egingo nituen gurpil bakarraren gainean, proba hau prestatzeko.

Baina ez duzu entrenamendu zehatzik egin.

Ez, ez naiz gimnasioan ibili, eta ez zidan kalterik egingo, egia esan. Bizikleta gainean egin dut



Markel Uriarte, Orbea etxeko mendiko bizikletarekin, Tourmalet igo berritan. | MARKEL URIARTE

entrenamendu guztia. Denboraz ere justu samar ibili naiz: ikasketak, lana, enduroko denboraldia...

Ez da gutxi, kontuan izanda zure modalitatea enduroa dela.

Bai, entrenamendu saioek ez dute zerikusirik. Baina, tarteka, egun batzuk *caballitoa* egiteko aprobetxatzen nituen: Urkulura igo, itzulia eman, jaitsi, Mendiolara igo... Eta halako batean gurpila erortzen bazitzaidan, sekulako haserrealdia hartzen nuen [Barre]. Dena dela, enduroko lasterketetan egindako lanak baino oihartzun handiagoa izaten dute halako erronkek, sare sozialetan eta halakoetan. Horrenbestez, tarteka halako erronkak egin beharko ditugu.

Uztail inguruan jada Tourmaleten izan zinen, mendatea ikusten edo...

Bai, zerbait grabatzeko asmoz joan ginen, mendatea ikusi... Orduan ere igo nezakeen, baina irailerako utzi nahi nuen, eta tarte batzuk gurpil bakarraren gainean igo nituen. Gero, tontorrera iritsita, mendatea *caballitoa* eginez jaitsi nuen.

Gezurra badirudi ere, akaso, hori izango da zailagoa; hau da, igotzea baino Tourmalet gurpil bakarraren gainean jaistea.

Bai, teknikoki zailagoa da jaistea igotzea baino. Igoera nekagarriagoa da, aldapa gora pedalei eragin behar zaielako, eta ia bi orduko lana delako [1.39an igo zuen]. Igoeran kontuz ibili behar nuen haizearekin, albotik jotzen bazuen, batez ere, eta despisteekin. Eta ia bi orduz erabat kontzentratuta joatea oso zaila da. Hasierako kilometroetan ez nuen arazorik, fresko nindoan, baina mendatearen erditik aurrera nekea igartzen da, eta indarrak gorde behar nituen sustoren bat nuen momentuan erreakzionatzeko gauza izateko. Tontorra gerturatu ahal urduritasunak geroago eta handiagoak ziren. Eta sustoren bat edo beste izan nuen, baina gainditzeko modukoak izan ziren.

"Gurpil bakarraren gainean 500 kilometro inguru egin ditut"

"Ia bi orduz kontzentratuta joatea zaila da, eta nekagarria"

Bestalde, banekien hiru ahalegin baino ez nituela, egubakoitzekoa, zapatukoa eta domekakoa. Izan ere, ez zuen zentzurik egun berean bi ahalegin egiteak. Leher egin-da amaitzen duzulako.

Eta ze zailtasun du gurpil bakarren gainean jaisteak?

Jaitsi askoz azkarrago jaisten denez, fisikoki ez da horrenbeste sufritzen. Kontrara, baina, askoz ere zailagoa da bizikleta gainean oreka mantentzea. Hor, atzeko frenoan dago gakoa. Hau da, ezin bestekoa da oreka mantentzeko etengabe atzeko frenoaz *jokatzen* joatea; batetik, gurpil bakarren gainean joan ahal izateko, eta bestetik, bizikletak abiadura larregi har ez dezan. Baina malda behera disko-frenoak berotu egiten dira etengabe zapalduz gero, eta frenatzeko gaitasuna galtzen dute. Hala, minuturo freno askatu behar nuen eta apur bat hozten utzi, baina ostera ere freno sakatzen hasten zarenean ez dago jakiterik frenoak zelan erantzungo duen, noiz helduko dion diskoari. Hala, ukimen onaz ibili behar duzu, oreka mantendu, eta haizea badago kontuz ibili. Eskuin eskuak leher eginda amaitzen du.

Esango nuke bizikleta bat hartu duen edonork egin duela aurreko gurpila altxatzeko ahalegina. Baina hortik eta egiten duzuna egite-ra... Non dago sekretua?

Jende askok egiten didan galdera da hori. Eta ez dago sekreturik, orduak sartzea baino ez. Duela hamar urte inguru mendiko bizikleta txukun bat erosi nuen, eta orduan hasi nintzen lehenengo saiakerak egiten. Orduan, gogoan dut bi pedalkada ematea demasa iruditzen zitzaidala. Eta hasi nintzen metro bat egiten, gero bi... Eta horrela gaur arte. Batek daki zenbat ordu igaro ditudan gurpil bakarreen ibiltzeko entrenatzen.

Beharrezkoa den teknikaren gainean ere galdetuko dizute lagunek.

Bai, baina azalpenak ematerakoan ere zailtasunak ditut, berez ateratzen zaidalako eta askotan ez naizelako kontziente zelan eusten diodan orekari. Eskuin eskuaz frenoari eutsi, gurpila erortzera badoa pedalei eragin, eta konturatzten naiz hankak etengabe zabaldu eta ixten ditudala. Neuk horrela egiten dut, eta lehen esandako moduan, orduak sartu.

Gurpil bakarren gainean ibiltzearena alde batera utzita, enduroa da zure espezialitatea, hor entrenatzen zara gogor, eta aurtan Enduro World Serietan egon zara, Italian eta AEBetan.

Bai, sekulako esperientzia izan da. Orbeako talde ofizialean nagoe-lako parte hartu ahal izan dut lasterketa horietan, eta txarrena da otsailerako erabakita izan behar duzula ze lasterketatan egon nahi duzun. Hala, otsailaren 12an eta 13an Italian izan nintzen,

"Halakoek enduroko probek baino oihartzun handiagoa dute"



Markel Uriarte, Tourmaleten, gurpil bakarren gainean; hainbat egunetan hartutako irudiak dira. | M. URIARTE



Aralar eta Anboto, hurrengo erronkak

Uriartek onartu moduan, enduroko lasterketetan lortutako emaitza onek baino zorion mezu gehiago jasotzen ditu halako erronkak egiten dituen; esaterako, Udalatx bizikleta gainean jaitsi eta Tourmaleta igo: "Enduroko lasterketetan gabiltzanon artean badakigu gutako bakoitzak zer egiten duen, baina horrek ez du aparteko oihartzunik izaten. Kontrara, Tourmaleteko bideoa Youtubera igo eta jende askok zoriondu nau. Hori ikusita, tarteka halako erronkak ere egin beharko ditugu".

Datorren urtera begira badu erronka polit bat buruan, baina oraingoz ez du lau haizetara zabaldu nahi, hainbat gauza lotu nahi dituelako. Epe motzera, baina, baditu erronka politak.

Lehenengo erronka, eguaztenean bertan

Eguaztenean, irailak 3, Espainiako Itzuliko etapa Aralarko San Migelen amaituko da, mendatea igota. Eta hor du Aretxabaletakoak hurrengo erronka: "Asmoa da bizikletari aurreko gurpila kendu, bizkarreko motxilara lotu eta mendatea *caballitoan* igotzea. Egia esan, inoiz ez naiz bizikleta gainean horrela ibili; hau da, aurreko gurpila kenduta, eta inpresioa egingo dit, seguru. Baina probatu egingo dut".

Eta udazkenean Anboto jaitsi nahi du: "Egon naiz nondik jaitsi begira, eta Arrazola aldera posible da %98 bizikleta gainean jaitea. Horretarako, baina, eguraldiak lagundu egin behar du, lainorik ez egotea, siku egotea...".

La Thuilen, eta uztaileko azken astean Coloradon. Proba erabat ezberdinak ziren, Italian sekulako jaitsierak izan genituen, ikusgarriak, eta paraje ederrak. AEBetan, berriz, ibilbide asko artifizialak ziren; hau da, antolatzaileek moldatutakoak: peralte askoko kurbak, pedalei etengabe eragin beharreko zirkuituak... Gu ohi-tuago gaude Italiako parajeetara, nahiz eta halako jaitsiera luze eta gogorrik ez dugun.

Eta gustura egindako lanaz?

Bai, oso. Italian 400 parte-hartzaile izan ginen, eta 75. postuan sailkatu nintzen. Hainbat eroriko izan nituen, baina halako jaitsiera luzeetan normala da erorikoak

Bideoa ikusteko:

eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



izatea, jaitsiera motzenak 1.000 metroko desnibela zuelako. Eta AEBetan 300 bat izango ginen, eta 96. postuan sailkatu nintzen. Hor ere pozik, kontutan izanda halako zirkuituetara ohituta ez gaudela. Gainera, horrelakoetan astebete ematen duzu etxetik kanpora, beste pilotu askorekin ibiltzeko aukera izaten dugu eta horiengandik izugarri ikasten da. Kurbak trazatzeko modu ezberdinak, zelan jaitsi azkarrago... Esperientzia ederra izan da.

"Gurpil bakarreen ibiltzeak ez du sekreturik, orduak sartzea"

"World Serietan parte hartzea ederra izan da, asko ikasten da halakoetan"

FUTBOLA

Bergara Hiria irabazi baina jokalaririk bat galdu Antzuolak

Itxuraz, lesio larria egin zuen Ander Arana aurrelariak, eta horrek mikaztu zien garaipenaren zaporea

EMAITZA

ANTZUOLA

3-2

ARETXABALETA

JULEN IRIONDO | BERGARA

Antzuolak eta Aretxabaletak jokatuak Bergara Hiria torneo-ko finala parekatua izan zen lehenengo zatian. Bi taldeek ekin zioten indartsu partiduari, eta Antzuola izan zen gola egiten aurrenekoa, lehen zatia erdi aldera, Jokin Gorostolaren bitartez. Laster berdindu zuen Aretxabaletak, eta berriz ere Antzuola aurretik jarri arren, atsedena aurretik markagailua bina berdintzeko gai izan ziren Gorka Valleren mutirik. Ander Fernandezek egin zuen banakoa korner batean, Oinatzek antzuolarren bigarrena kontrarioen hutsa aprobetxatuta, eta Imanolek berdinketa, falta baten bitartez.

Aretxabaletakoen entrenatzaile Gorka Valle partiduaren amaieran zioen eurek egindako akatsek kondenatu zutela taldea. Dena den, onartzen zuen Antzuola hobeto ibili zela; behintzat, bigarren zatian. Lehenengo zatiko 15-20 minutu izan ziren, bakarririk, UDAkoenak.

Bigarren zatian, Danelek atzelari biziak irabazita egindako golak eman zien garaipena Antzuolakoari. Ez zuten, ordea, finala pozik amaitu. Izan ere, bigarren zatian zelairatu eta ordu laurdena jokatu min hartu zuen Ander Aranak, eta lesio larria zirudien, probak egin aurretik.

Lehenengo finalerdia

1 eta 2 irabazi zion Antzuolak Bergarari egubakoitz arratsaldean

Agorrosinen jokatuak lehen finalerdian. 0 eta 2 aurreratu ziren antzuolarren lehen zatian, eta bigarrenaren erdi aldera jokalaririk bat gutxiagorekin gelditu arren, garaipena eskuratu zuten.

Antzuolako entrenatzaile Jon Muruamendiaraz gustura zen neurketak bukaeran, batez ere, taldeak defentsiboki egindako lanarekin: "Orain arte landutako gauzak zelaira eramane ditugu". Baloi gabe egindako lanarekin, beraz, pozik antzuolarrenak.

Zelai erdiaren jabe izanda, erasoan ere bi gol egitea lortu zuten, dena den, Muruamendiaraz mutirik, lehen zatia erdi aldera: Ander Aranak egin

zuen lehena eta, urrutitik egindako jaurtiketa batekin, Jokin Gorostolak bigarrena.

Bergarak, berriz, ezer gutxi egin zuen erasoan lehen zatian. Bigarrenean, zerbait gehiago, baina, batez ere, baloiaren jabetza igarri zen aldaketa atsedena ostean. Bergararek lehen zatitik bigarrenera talde osoa aldatuta eta antzuolarren bat gutxiagorekin bigarren zati erditik aurrera -bigarren txartela erakutsita Markel Lete kanporatu zuen epaileak-, baloia mahoneroena izan zen, eta Eñau-tek egin zuen etxekoan gola. Berdinketarik ezin lortu, hala ere, partiduko azken minutuetan.

JON MURUAMENDIARAZ | ANTZUOLAKO ENTRENATZAILEA

"Ez diet aurrendenboraldiko emaitzei inportantzia askorik ematen"

Garaipenarekin ezin izan zuten nahi bezala gozatu.

Torneoa eta gero, eta lesioa alde batera utzita, nola doa prestaketa?

Dauden jokalariekin ondo, oso ondo. Oso ondo ari gara lan egiten, eta jokalariek oso predisposizio ona dute lanerako. Talde motza dugu-

la txarrena, baina ari gara pare bat lagunekin berbetan, eta ea sartzen diren taldean. Denboraldi osorako gutxi dira 19-20 jokalaririk.

Bigarren denboraldia du Antzuolak kategorian; zein izango da asmoa?

Mantentzea. Gero ikusiko dugu nola doan, baina printzipioz mantentzea.

Lehenengo erreferentzia hau



JOSETXO ARANTZABAL

ez da txarra. Bergarari eta Aretxabaletari irabazi: ikusita Aretxabaletak iaz nola bukatu zuen liga...

Aretxabaletak jokalaririk batzuk bigarren taldekoak ekarri ditu, gehienak ez baina... Baina nik ez diet aurrendenboraldiko

emaitzei inportantzia asko ematen. Aurrendenboraldikoa ez da sarri denboraldian islatzen. Beti hobeto irabaztea, baina kontuz.

Denboraldi hasierara ondo iritsiko zarete?

Bai. Ari gara erritmoa eta fisikoa hartzen, eta hamabost egun barru ondo egongo gara. Konpetizioak ematen du puntu hori, baina nik taldea ondo ikusten dut alde horretatik.



Antzuolako jokalaria jauzia eginda, lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren finalerdia

Bigarren finalaurrekoan, 3 eta 1 hartu zuen mendean Aretxabaletak Mondra. Lehen zatia 2 eta 1-ekoarekin amaitu eta gero, bigarrenean Aretxabaletak hantatu egin zuen markagailuko aldean.

Partidua ez zen ona izan jokaririk dagokionez. Fisikoki indartsu hasi zuten lehia bi taldeek, eta presio eta intentsitate handiko minutuak izan ziren hasierakoak. UDA izan zen aurreneko gola egin zuena, lehen zatia erdi aldera. Urtzi Lopezek buruz errematatu zuen sarera albotik egindako erdiraketa. Aretxabaletarrak aurretik jarri bai, baina ez zen denbora asko pasa Mondrak ber-

dintzerako. Faltza batetik egindako jokaldiarekin, Mikel Barberok jarri zuen berdinketa markagailuan. Atsedena iristeko gutxi falta zela, baina, berriz ere aurretik jarri zen Aretxabaleta, eta osteran ere Urtzi Lopez bitartez, Mondraren defentsak gaizki urrundutako baloi bat aprobetxatuz.

Bigarren zatian, bi taldeek egin zuten behera fisikoki, baina Aretxabaletak gehixeago eutsi zion, eta emaitza mantentzeaz harago, neurketak erabakita utzi zuten, hirugarren gola eginaz. Iban Espinosa izan zen azken 3 eta 1-ekoa egin zuena, Bergara Hiria torneo-ko finalerako bigarren txartela ziurtatuz.

GORKA VALLE | ARETXABALETAKO ENTRENATZAILEA

"Asmoa beti da partiduak irabaztea baina iazkoari eusten badiogu, ongi"

Aurreko denboraldia hasia zela taldearen ardura hartuta, oraingoan hasieratik jardungo du entrenatzaile.

Akatsak izan dituzue goletan; dena den, torneoan ikusitakoarekin gus-tura?

Jokalariek egindako esfortzuarekin gelditzen naiz, azken finean entrenamendu saio bat izan da guretzat; denboraldia prestatzeko saioa.

Denboraldia hasteko gertu zaudete, hortaz?

Horretarako lanean dihardugu. Datorren domekan dugu beste partidu bat eta egiten ari garen entrenamenduekin espero dut denboraldia ondo hasiko dugula. **Zein asmorekin hasiko duzue**



JOSETXO ARANTZABAL

aurten liga?

Asmoa da iaz bezala jarraitzea; iaz bigarren buelta oso ona egin genuen, partidu bat galduta eta beste bat berdinduta. Hori da helburua, bide horretatik jarraitzea, baina ikusi beharko dugu nola hasten garen. Noski, helbura beti izan behar da partiduak irabaztea.

Pozik zaudete duzun taldearekin?

Aldaketarik izango da hemendik eta liga hasierara?

Ez, momentuz, ez. Bi baja eta bi alta egon dira; zentral bat joan eta beste bat fitxatu dugu eta berdina hegaleko batekin. Iaz Eibar-rra joan zen jokalaririk bat ere bueltatu da UDARA eta pozik nago ditudan jokalariekin.



Antzuolako kideak, amaieran, garaikurrarekin. | JOSETXO ARANTZABAL



Bergarako eta Antzuolako jokariak lehen. | IMANOL SORIANO



Baloia Mondraren sarean. | IMANOL SORIANO

SASKIBALOIA

Gipuzkoa Basket eta Laboral Kutxa aurrez aurre, bihar, Eskoriatzako kiroldegian

Eskoriatza Kirol Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko partidua izango da

M.A | ESKORIATZA

Gipuzkoa Basket eta Laboral Kutxa Baskoniaren arteko norgehiagoka ikusteko aukera izango da bihar 19:00retan, Eskoriatzako kiroldegian. Eskoriatza Kirol Elkartek 50. urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekintzetan garrantzitsuena izango da hori: "Oso pozik gaude maila horretako taldeak hemen egotea lortu dugulako. Gipuzkoa Basketen ahaleginari esker, puntako partidua ikusteko aukera izango da. Eskerrak eman beharrean gaude", dio Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente Javi Corbalek. Eta gaineratu du: "Hiru urtetan ACB ligako bi partidua izan ditugu herrian eta hori asko da Eskoriatza bezalako herri txiki batendako".

Denboraldiko lehena

Biharko lagunartekoa denboraldiurreko lehena izango da eta beraz, talde biendako aurkezpen partidua ere bai: "Jokalarien aurkezpena egingo da bihar hemen eta horrek ere balio erantsia ematen dio partiduari".

Zaleendako aukera ederra

600 lagunendako toki dago kiroldegian eta dena betetzea espero dute antolatzaileek. "Badakigu Gasteiztik ere jende asko etorriko dela, izan ere, ari gara deiak jasotzen. Zaleendako sekulako



Baskoniako Lamont Hamilton. | BASCONIA.COM

aukera da, disfrutatzen partidua. Bi taldetako maskotak ere etorriko dira, sekulako giroa egongo da", dio.

Bestetik, Eskoriatzako saskibaloio eskoletako neska-mutikoak ere aterako dira bihar kantxara, atsedendietan.

SASKIBALOIA

MU-k Universidad de Valladoliden kantxan hasiko du EBA

JULEN IRIONDO | ARRASATE

EBA mailako ibilia etxetik kanpo jokatzaz hasten egokitu zaio Mondragon Unibertsitateari. Urriaren 19ko asteburuan izango dute arrasatearrek lehen partidua kategoria berrian, eta Universidad de Valladolid edukiko dute aurrean.

Arrasateko zaleek, beraz, aste-bete geroago izango dute taldea Iturripen ikusteko modua. Centro de Estudios Mikeldi (Bilbo) taldearen kontra izango da. Hasi bezala, amaitu ere etxetik kanpo egingo du liga MU-k, Megacalzado Ardoi (Zizur Nagusia) taldearen kantxan jokatzaz. Etxeko azken

neurketa maiatzaren 2an izango da, Pas Pielagos (Kantabria) taldearen kontra.

Ondorengoak dira EBA ligan MU-k kontrario izango dituen gainerako taldeak: Askartza (Leioa), Carlomar Estela (Kantabria), Basket Burgos 2002, Fundacion Baloncesto Valladolid, Easo Pastas Arruabarrena (Donostia), Clavijo (Logroño), La Gallofa Cantbasket (Kantabria), Take Tolosa eta Santurtzi.

Beñat Barberenarekin

25 urteko arrasatearra etxera itzuli da, ondo ezagutzen duen EBA ligan MUri laguntzeko.



Beñat Barberena. | GOIENA

FUTBOLA

Berdinketa batekin bukatu zen egubakoitzean Aloña Mendi eta Bakioren artekoa

Bakioko Futbol Taldearen 25. urteurrena ospatzeko partidua izan zen eta 2-2ko berdinketarekin amaitu zen. Atsedenerako tarte gutxi dute oñatiarrek izan ere, etzi, Soraluze hartuko dute etxean eta zapatuan, Jose Luis Agirreren oroimenezkoa jokatzeko dute, Laudioen kontra. Taldearen aurkezpen partidua izango da zapatuko hori.

FUTBOLA

Mondra, Bergara eta Elorrio, Arrasate Hiria txapelketan, zapatuan

Datorren zapatuan, hilak 6, jokatzeko da Arrasate Hiria txapelketa. 16:30etan hasiko da hiruko torneo eta lehenengoan, Elorriok eta Bergarak neurtuko dituzte indarrak; ondoren etorriko da Mondra eta Elorrioren artekoa eta azkenik, Mondra eta Bergararen arteko partidua.

TXIRRINDULARITZA

91. postuan bukatu du Mikel Aristi bergararrak Etorkizuneko Tourra

Abuztuaren 23an hasi eta zapatuan bukatu zen proba 91. postuan bukatu du bergararrak. Tourreko laugarren etapan egin zuen Aristik denborarik onena, etapako irabazlearekin batera iritsi baitzen bergararra helmugara, pelotoian. Espainiako selekzio taldearekin egin du itzulua Aristik.

Ume bakoitzak merezi du atribuzio positibo bat gelan

'Golden 5' izeneko hezkuntza programari buruz aritu da Maria Jose Lera

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Golden 5 hezkuntza programa bat da, eta Maria Jose Lera da programan aitzindaria. Duela bi urte hasi ziren programa hori Ordiziako, Lasarteko eta Durangoko Berritzeguneetan lantzen. Datorren ikasturtean, Irungo, Donostiako eta Eibarko Berritzeguneak eta Iruñeko Irakasleen Laguntzarako Zentroa hasiko dira. Programak proposatzen du, besteak beste, haurraren motibazioa gailurrera

eramateko eskolan positibo nabarmentzea.

Atribuzio positiboak

Oinarria da ikuspegia aldatzea: "Aldaketak txikiak eta errazak dira, eta lorpenak handiak", dio Lerak. Abiapuntua atribuzioen eta espektatiben teoriar datza, eta *Golden 5* programak proposatzen du atribuzio positiboak bakarrik egitea ikasgelan. Beste modu batera esanda, ume bakoitzak merezi duela atribuzio posi-

tibo bat gelan, eta denen aurrean. Esatea zer ona den halako gaian. Eta horrek berak motibatuko du ikaslea. "Familiak ikuspegi honen partaide egin behar dira", dio Lerak. "Ikerketek frogatu dute ikasle batekiko espektatiba altuak dituen helduak oharkabean arreta gehiago eskaintzen diola, azalpenak hobeto eta bere modura ematen dizkiola, gehiago animatzen duela, bere akatsak gutxies-ten dituela, tematzen dela...".

Esperientzia positiboak

Beste faktore batzuk ere kontuan hartu beharrekoak direla adierazten du Lerak, laguntzen dutelako ikasleen motibazioa hobetzen. Lehenengo eta behin, garrantzitsua da testuingurua zaintzea. Ikasgela polita eta goxoa bada, motibatuagoak egongo dira ikasleak. Umeek, bestalde, konpetente, autonomo eta ongi harreman-dunak sentitzeko beharra dute. Gaitasun horiek bultzatu behar dira.

Landu behar da, baita ere, pentsatzeko era: "Ikasle onena ez da inoiz erortzen ez dena, baizik eta erori ostean zutitzen dena. Gehiagotan zutitzen dena indartsuagoa da. Eskola porrota, zentzu horretan, etsitzea da, erori eta ez altxatzea". Lerak argi dauka: "Zutitzeko behar duguna da esperientzia positibo asko eta asko izatea norberaren garapenean konfiantza izateko".



Neska-mutilak ikasgelan. | NATHA1308

"Sentitzeko, ikasteko eta izateko modu berezia dute"

Gaitasun handiko haurren inguruan jardungo du aurrerantzean Amaia Agiriano aretxabaletarrak

L.Z. | ARRASATE

Adimen handiko bi umeren ama da Amaia Agiriano. Izan ere, gaitasun handiko haurrak eza-gutzen direnak baino askoz ere gehiago direla dio *Guraso.com* atarian, eta hezkuntza sisteman asko dagoela egiteko ezezagun zaizkion eta ahaztuta dauden haur horien alde.

Aupatuz elkartea osatu dute adimen gaitasun handiko haurrak dituzten Euskal Herriko familiek. Defendatzen dute ezjakintasun handia dagoela gai horren inguruan, eta beharrezkoa dela hezkuntza behar bere-

ziak dituzten haur horiendako profesionalak sentsibilizatzea eta prestatzea. "Ezjakintasunak, mitoek eta estereotipo faltsuek oztopatu egiten dute, askotan, erantzun egokia eskaintzea", dio.

Oso talde heterogeneoa

Adimen gaitasun handiko haurren taldea oso heterogeneoa dela dio Agirianok: "Ez dago gaitasun handiko haur eredu bakarra". Aipatu ditu goiztiartasuna duten haurrak, talentudunak, aparteko gaitasunak dituztenak, jenioak, haur prodijioak... Eta denek

dituzte ezaugarri bereziak eta ezberdinak elkarren artean. "Ez dugu ahaztu behar lehenik eta behin haurrak direla eta familia dela lehenengo ingurunea eta giza garapenaren ingurune garrantzitsua (...) Zeresan handia du etxeko heziketak haurraren garapenean, bere izaeraren eraikuntzan, pentsamenduan, hizkuntzaren garapenean, afektuan... Horregatik, komenigarria da gurasook ere adimen gaitasun handiko haurren berri izatea (...) sentitzeko, ikasteko, eta funtsean, izateko modu berezia baitute".

Agirianok argi du laguntza hobe eskaintzen dela "adimen intelektualaz gain adimen emozionala ere zainduta. Oso haur sentikorrak dira, eta, antzemate goiztiarrak izaten dituzten hainbat jokabide ulertzeko aukera emateaz gain, hezkuntza hobeto bideratzeko eta behar emozional- lei modu egokian erantzuteko aukera" ematen du.

Etiket ere lan egin daiteke jazarle zein biktima jarrerak saihesten

L.Z. | ARRASATE

Haurtzaroan gertatzen diren jazarpen egoerek kezka handia sortzen dute. Egoera gogorrak izaten dira, eta funtsezkoa da lehenbailehen antzematea.

Haur bat jazarle edo biktima izan daiteke. Jazarpen egoera baten lekuko ere izan daiteke. *Guraso.com* atarira ekarri dugun artikulu batean azaltzen dute zer egin dezakegun etxetik horrelakoak prebenitzeko. Gogorra suerta badaiteke ere, planteatzen dute nola prestatu umea horrelako egoera bati aurre egiteko.

Eredu izan

Gogorarazten digute, beste behin, umeek imitazioz ikasten

dutela. Errespetuan eta maitasunean heztea garrantzitsua dela diote. Etxean kolpeak eta irainak jasotzen baditu, jarrera horiek errepikatu egingo ditu etxetik kanpo. Autoritarismotik baino gehiago, autoritatetik hezi behar dugula, alegia.

Etxean jazarpen egoerei buruz hitz egitea ere onuragarria da. Egoera horiek gertatzen direla, ez direla biktimaren erruz gertatzen eta horrelakoetan biktima babestu egin behar dela adierazi behar zaie. Laguntza eskatzeko garrantziaz ere ohartarazi behar ditugu.

Kontua da bai jazarle bai biktima jarrerak saihestea. Heziketak garrantzi handia du horretan.



Jazarpen egoera bat. | TRIXOR

ERREZETA

Basafruituekin egindako sorbete freskoa

L.Z. | ARRASATE

Nork bere gustuko fruituak aukera ditzake sorbetea egiteko, baina zapore konbinaketa eta propietate antioxidatzaileak kontuan hartuta proposatzen ditugu ahabiak —arandanoak—, andare-mahatsa —grosellak—, mugurdiak eta masustak.

Lau pertsonarendako osagaiak dira: 300 gramo basafritu, zuringo bat eta koilarakada bi azukre-hauts. Fruta zati txikitari prestatu eta izoztu egingo dugu. Izozkailutik ateratakoan xehatu egingo dugu, hondar-xehe itxurako emaitza lortu arte. Aukeran, Thermomix edo antzerako gailu batekin egingo dugu. Gehitu zuringoa eta azukre-hautsa. Xehatu berri nahasketa, sorbete krematsua lortu arte. Bukatzeko, zerbitzatu kopa handi batean mendafin orritxo batekin.

IRTEERA

Urkiolatik Saibira, ibilaldi erraz bezain polita

L.Z. | ARRASATE

Umeen adinaren arabera, 45 minutuan egiten den igoera da. Urkiolako gainean dagoen aparkalekutik abiatu eta Saibirako bidea erakusten duten gezi zuri-gorriak jarraituko ditugu. Lehen aldapa igota Toki Alai interpretazio zentroa aurkituko dugu. Urkiolako parke naturalari buruzko parketxea da. Bertan, parkeko ibilbide zein interesguneei buruzko informazioa, erakusketa interaktiboa eta sai kolonia bat bideokameraz zuzenean ikusteko aukera izango dugu. Bidera itzulitakoan eta marka zuri-gorriak jarraituz Saibi txikira iritsiko gara lehenengo, eta Saibi gainera ondoren. Gurutze handi bat dago ton-torrean, Espainiako gerran hildako gudarien omenez. Orientazio maila ere badago. Eguraldi onarekin bista zoragarriak daude.





UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA




Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



Baita hemen ere:  udakoargazkiak

 udakoargazkiak



BEHIAK. Udan Urnietara joan eta handik ekarri digu argazkia Plazaolak: gezurretako behiak larrean. /Argazkia: Aimar Plazaola /Oñati




OPORRAK NEW YORK-EN. New York hiri ederra da argazkiak egiteko, baina harako bidean ere atera daitezke irudi asko; hegazkinetik Portugal, esaterako. /Argazkia: Eliana Martin /Eskoriatza



ILUNTZEA MALTAN. Maltan izan da Olivas bergararra aurtengo ekainean eta hango iluntze ikusgarri bat erakusten digu argazki honetan. /Argazkia: Iraia Olivas /Bergara



SURRAKOGURUTZETIK. Bergara, Surrakogurutzetik ikusita, aurtengo abuztu hasieran. Ez dago urrun joan beharrik oporretan gaudela sentitzeko. /Argazkia: Olatz Larrañaga /Bergara



MOMENTU BIRIBILA ILUNABARREAN. Zarautzen hartu zuen goiko irudia Iñarra bergararrak. Irudi biribil gisa definitu du, Getariako arratoia erdi-erdian dagoela. /Argazkia: Maddi Iñarra /Bergara



HONDARTZAN ITXOITEN. 2010ean izan zen Altube aretxa-baletarra Marokon oporretan. Asilah-ko hondartzan egindako argazkia da honakoa. /Argazkia: Andoni Altube /Aretxabaleta



BEROA. Bero egiten du udan eta Bardeetan zer esanik ez. Hango bizidun bat aukeratu du oñatiarrak argazkirako: intsektua belarraren gainean. /Argazkia: Maialen Martínez de Zuazo /Oñati



Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira.

* Oinarri guztiak: ttiki.com/70956

Sariak:

- 1. saria:** Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
 - 2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
 - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria:** SPC 5604S liburu elektroniko irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
- Boto emateentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:





UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



Baita hemen ere: [f udakoargazkiak](#) [t udakoargazkiak](#)



ATOMIUN. Bruselako Atomium monumentua, 1958eko Erakus-keta Unibertsalerako sortua. /Argazkia: Irantzu Elortza /Oñati



SANRAFAEL. Albufeiran (Portugal) izan da oporretan Olabarria bergarra eta hango San Rafael hondartzan egindako argazkiak bidali dizkigu. /Argazkia: Josu Olabarria /Bergara



BIZITZAREN OREKA. Oreka, eta horren bitartez erabateko lasaitasuna transmititzen du goiko irudiak. Menorcako Pregondan kalan atera zuten. /Argazkia: Sara Zubia /Oñati



ITZURUN. Ilunabar ederra bidali du Kortabarriak; Gipuzkoako kostakoa, Zumaiako Itzurun hondartzakoa, hain zuzen ere. /Argazkia: Itziar Kortabarria



ANDRAMAIXAK. Herriko jaiekin gozatu du Sandovalen abuztuak, hilabete erdialdera ospatzen diren Aretxabaletako Andramaixekin, hain zuzen. /Argazkia: Elena Sandoval /Aretxabaleta



MATXINSALTOA. Oierren eskua eta kolore berde zoragarri bateko matxinsalto, Simon Arrietan. /Argazkia: Ione Moñux /Bergara



ESKOZIAKO SKY IRLAN. Sky irlan halako eskulturarik ikusi duzue sekula? Elortzak bai, behintzat, eta argazkia egiteko aprobetxatu zuen. /Argazkia: Xabi Elortza /Bergara



EGUZKIA SARTZEN. Indiar taldea etxera bidean. Sundarbans-go Parke Nazionala. /Argazkia: Ander Arizaleta /Arrasate



NATURA. Suitzan, Oñatin eta Nojan egindako naturari buruzko argazki sorta bidali du oñatiar honek. Nojan 10 zentimetroko algari ateratu dugu guk. /Argazkia: Mikel Garai /Oñati

KULTURA

Debagoieneko ordezkaritza polita aurtengoan ere, Donostiako Zinemaldian

- Mariasun Pagoaga, Aitor Arregi eta Aitor Mantxola, Sail Ofizialerako aukeratutako filmetan
- Zabaltegin ere Debagoieneko bi izen; Aitor Arregirena eta Asier Altuna *Kixi*-rena

MIREN ARREGI | DEBAGOIENA

Donostiako Zinemaldiaren 62. edizioa berezia izango da; izan ere, euskarazko zinemagintzak inoizko parte hartzerik handiena izango du Sail Ofizialean. Antxon Ezeizaren *Ke arteko egunak* izan zen Sail Ofizialeko lehiaketan parte hartu zuen euskarazko lehen pelikula, eta ordutik ez da besterik izan.

Aurten, euskarazko bi film daude hautatuen artean; Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren *Loreak* –bikotearen bigarren lan luzea, *80 egunean* arrakastatsua eta gero– eta Pablo Maloren *Lasa eta Zabala*. Bada, film horietan hiru debagoiendarrek hartu dute parte; besteak beste, Aitor Arregi zuzendari oñatiarrak *Loreak* filmaren grabaketan; gidoilari

lanak egin ditu eta ekoizle eragilea ere izan da. Baita bigarren unitateko zuzendaria ere. Oñatiarrak ez ezik, Mariasun Pagoaga aktore arrasatearrak ere parte hartu du filmean; paper txiki bat eduki du.

Irailaren 23an, 22:00etan zapalduko du alfonbra gorria *Loreak* filmeko lan-taldeak: "Ikaragarria izango da Kursala jendez beteta ikustea. Urduri eta gogotsu gaude une horretarako", dio Aitor Arregi zuzendariak.

'Lasa eta Zabala', Sail Ofizialean
Pablo Maloren *Lasa eta Zabala* da Sail Ofizialean parte hartuko duen bigarren euskarazko filma. Hori, baina, lehiaketatik kanpo emango dute. Bada, azken honetan parte-hartze zuzena izan dute

bi debagoiendarrek; Mariasun Pagoaga, Lasaren ama izango da fikzioan. Bestetik, Aitor Mantxola oñatiarra argazki zuzendari lanetan aritu da. Hilaren 25ean emango dute, eta gogotsu eta ilusioz beterik daude egun horri begira, Aitor Mantxolaren esanetan.

Zabaltegin ere, izen ezagunak
Zabaltegi sailak ere izango du guretik aurtengoan. Esaterako, Aitor Arregi oñatiarraren *Zarautzen erosi zuen film laburra* erakutsiko da. "Belodromoan emango dute eta oso harro nago *Loreak* ez ezik, hau ere Zinemaldirako aukeratua izan delako", dio Arregik. Zabaltegin ere, Asier Altuna *Kixi* bergararraren *Soraa* ikusteko aukera egongo da.

AITOR ARREGI | ZINEMAGILEA

"Uste baino hobeto aterara dira gauzak"

Zinemagilea eta Huheziko Ikus-entzunezkoetako irakaslea da Aitor Arregi. Haren bi film ikusi ahaliko dira aurtengo Donostiako Zinemaldian.

***Loreak* eta *Zarautzen erosi zuen film laburra* aurten Zinemaldian. Bada zerbait.**

Oso garrantzitsua da bi filmak Zinemaldian egotea. Sail ofizialean emango duten euskara hutsean grabatutako lehen filma da *Loreak*. Sail horretan egote hutsak izena eta aukera handiak emango dizkio filmari.

Gustura zaudete egindako lana-



GOIENA

rekin?

Oso gustura. Askotan gauzak ez dira gura bezala ateratzen, baina *Loreak* filmaren kasuan esango nuke uste baino hobeto aterara direla. Inpresioa da filma handituz joan

dela eta lan oso polita dela emaitza.

Urrezko Maskorra irabazteko esperantzarik?

Amestea libre da, baina egia da oso zaila izango dela. Hala ere, beste sari asko emango dituzte eta, zergatik ez, horietako bat eskuratu genezake. Ederra litzateke, oso motibagarria.

MARIASUN PAGOAGA | AKTOREA

"Pozik nago aukera eman didatelako"

Mariasun Pagoagak Joxean Lasaren amaren papera interpretatu du Pablo Maloren filmean; *Loreak*-en ere hartu du parte.

***Loreak* eta *Lasa eta Zabala* filmak emango dituzte Zinemaldian eta bietan hartu duzu parte.**

Ohore handia izan da bietan parte hartu ahal izatea eta berriz ere zuzendari horiekin lan egitea.

***80 egunean* filmarekin ere izan zineten Donostian. Aurten ere, alfonbra gorria zapaltzeko gogotsu?**

Niretzat mundiala izan zen Zinemal-



GOIENA

dia ezagutzea eta filmak izan zuen arrakastaren testiguizatea. *80 egunean* ez bezala, oraingo hauek Sail Ofizialean aurkeztuko dira. Donostiako Zinemaldian egotea oso garrantzitsua da etorkizunerara begira. Profesional ausartak dira zuzendariak.

Eta zer suposatzen du zuretzat pelikula horien parte izateak?

Oso pozik nago aukera hau eman didatelako, eta biak ala biak Sail Ofizialean egoteak ere asko poztzen nau. Dena den, nik ez diot horri garrantzia gehiegirik ematen; zuzendariendako pisua izango du, baina niretzat ez.

Nagore Aranburu, *Loreak* filmeko une baten. | GOIENA


AITOR MANTXOLA | ARGAZKI ZUZENDARIA

"Beharrezkoa zen horrelako lan bat"

Lasa eta Zabala filmeko argazki zuzendari lanak egin ditu Aitor Mantxola oñatiarrak. Pozik da filmak Sail Ofizialean egotea lortu duela.

Sail Ofizialean emango dute filma. Zure lehenengoa?

Juanma Bajo Ulloaren *Alas de mariposa* pelikularekin izan nintzen lehenengoz Sail Ofizialean, eta, gainera, Urrezko Maskorra irabazi zuen. Ikaragarria izan zen, pentsa, 28 urte nituen orduan. *Lasa eta Zabala*arekin han izateak ilusio berezia egiten dit. Etxean egindako lana



GOIENA

izanik, opari bat da niretzat.

Gustora egindakoa rekin?

Oso gustura. Teknikoki oso maila altuko lana da. Oso neurrikoa eta konplikatu gaia-ri dagokionez. Beharrezkoa zen gai horren gaineko horrelako lan bat.

Lehiaketan ez izatearen penarik baduzue?

Sail Ofizialean egote hutsa gauza handia da. Plataforma ederra filmarendako, aurrera begira. Osagai politiko handiko filma da, eta normalean ikusten dut lehiaketatik kanpo egotea ere.

Kale-instalazioarekin, serie berria aurkeztu du Ramon Arantzabalek

'Erritmoak' izeneko sorta ipini du Bergarako Munibe plazan, margolanekin

JON BEREZIBAR | BERGARA

Ramon Arantzabal margolariak bere lanen bigarren egoitza bilakatu du ia Munibe plaza. Han bertan du hark estudioa eta lehenago ere bertan *Gau magikoak*

Munibe plazan performance-a egindakoa da 2011n. Inguru paregabetzat jotzen du artistak plaza, "herriko eraikinik garrantzitsuen artean" kokatua, eta oraingoan bere sortarik berriena erakuste-

ko erabili du lekua: *Erritmoak*. Bereizgarri dituen kolore bizi eta musikalak dira, berriz ere, protagonista serie berrian, baina oraingoan, azaltzen duenez, "marmoken mugimendu dardarti eta

etengabea" du inspirazio iturri, uhin formak eta mugimendua iradokiz. Margo guztietan bereizgarri diren lerroen eta koloreen bitartez ezartzen den erritmo ia musikala da serie berriaren ezauzgarri bistakoena, "margoaren poro bakoitzak mugimendua iradokitzea" bilatzen duelako. Obretako hesietan kokatu ditu lanak, plaza inguratuz, ordena zehatz barik, eta erakusketari beste astebete eustea da haren asmoa, betiere, eguraldiak ematen duen aukeraren arabera.

Herritarrak txunditzeko zain

Herri erdian kokatuta, artistak aitortzen du arreta handia erakarri duela erakusketak. Halere, kuxkuxero, hainbat herritar gerturatu arren, askori geratu eta begiratzea kosta egiten zaiela aitortzen du. Artistarentzat bera- rentzat, era berean, dibertsioa ere bada erakusketa berezi hau, erreakzioak ikusteko balio baitio kale-instalazioak. Deigarria bada, gutxienez; plazaren erdian, mahaia, aulkiak eta arroparik gabeko manikia kokatu ditu, eta lehen begi-kolpean horretxek harrapatzen du ikuslea. Munibeko dama ei da, Arantzabalek azaltzen duenez, eta bere totem modura ikusten du. Ikur horrekin, bere aurreko lanak eta Munibe lotzen ditu, *Gau magikoen* oinarri zen Jean Sibelius konposatzailearen *Tuonelako zisnea* lanaren pertsonaietako bat den itsaslamia baita panpina, kasu honetan.



Kale-instalazioa, Munibe plazan, "dama" erdian duela. | IMANOL SORIANO



'Geltokia' ikuskizunaren promozio irudia. | AUKERAN

Muruamendiarazen 'Geltokia' ikuskizun berria, hilaren 12an

J.B. | BERGARA

Pikupe Produksioen eskutik eta Udalaren laguntzarekin Edu Muruamendiarazen Aukeran dantza konpainiak *Geltokia* ikuskizuna egingo du Bergarako pilotalekuan, hilaren 12an, 22:00etan. Sarrerak salgai daude, Interneten edo Pikupekoen-gana jota. Tren bidaia batekin alderatzen du bizitza Aukeraren ikuskizun berriak, eta, narrazio ildo gisa geltokia bera, maletak ala bidaiariak hartuta, ikuspegi transzendental horrek ematen dio forma ikuskizun ederrari. Gidoia, hain zuzen, Miren Agur Meaberena da, eta Xabier Zeberio arduratu da musikaz.

Geltokia-n ere Murumendiarazek euskal dantza tradizionala erabiltzen du, dantza garaikidearen lengoaiari txertatuta.

Urnietar Prestu

Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreografo bergarra aurtengo Urnietar Prestu izendatu du Gipuzkoako herri horretako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzar- rarak. Ohiturazko euskal dantzak erakusteagatik, dantza horiek ikuspegi berritzailez eraldatzeagatik eta Aukeran dantza konpainiarekin dantza ikuskizun modernoak sortzeagatik eman diote izendapen hori. Saria irailaren 29an jasoko du.

Surf rocka eta bluesa zapatuan Oñatin, gaua animatzeko

J.B. | OÑATI

Udalaren udarako programazioaren barruan blues eta rock kontzertua egon zen zapatuan Atzeko kalean. Los Ladrones de Guitarras eta The Romanticos taldeek jo zuten halako kontzertuetarako giro ezin hobe zegoen zapatu gauean. Lehen taldeak antzina-ko gustuko surf-rock eta rock-and-roll instrumentala egiten du. Moldaketa oso ezagunen artean, nabarmentzeko modukoak izan ziren *spaguetti western* generora gerturatu ziren piezak. Bigarrenak Gaztelupeko Hotsaken eskutik etorri ziren eta blues eta afroamerikar sustraietako kontzertu atsegina jo zuten. Txalo egin bai, baina hotz antzean

erreakzionatu zuten zapatuan ikusleek oholtzara igotako bi proposamen txukunen aurrean.

Surf festa, bertan behera

Erreleborik lortu ezin eta bertan behera geratu da aurtengoa asteburu honetan zortzigarren aldiz egitekoa zen Oñatiko Surf Festa. Antolaketa taldean lekukoa nork hartu ez da egon eta eten egin da orain arte Usakoko jauzi txapelketagatik ala sardina jana- gatik, besteak beste, herrian eza- gun egin den ospakizuna. Musika ere parte garrantzitsua izan ohi zen eta, hain zuzen, Atzeko kaleko kontzertua izan zen festak zukeen egitarautik egin zen ekitaldi bakarra.



Los Ladrones de Guitarras. | IMANOL SORIANO

Dotore eta Joana Serrat, Kulturete akustikoetan

J.B. | ARRASATE

Dotore donostiarrak hirugarren lana aurkeztuko du Arrasateko Kultureten hilaren 7an. Lanaren aurrerapenek erakusten dutenez, doinu eta estilo aldaketa dakar *Los veranos y los días* txalotuaren jarraipenak. Joana Serratek, oster, 13an joko ditu Espainiako bakarlariren artean bere txokoa eskuratzeko balio izan dioten abestiak.

Bossa, country eta soula

Aurtengo saio akustikoak, berriz, Txuma Murugarren gipuzkoarrak hasiko ditu. Sasoi ilunak ohiak barikuan joko du. Zapatuan lekukoa Thaïs Morell brasildarrak hartuko dio. Bossa nova egiten du Morellek, jazzera ala popera gerturatzeko abiapuntu gisa. The Fakeband getxoztarra Tulsa eta Smile taldeetako kideek osatzen dute, eta 12an joko dute. Arcana Has Soul, aldiz, valentziarrak dira eta instrumentazio oso bereziko neo-soul musika egiten dute. Kontzertu guztiak 20:00etan dira, areto nagusian, eta sarrera doakoa da.

Iñaki Olazabalen eskulturak Aroztegin, domekara bitartean

Iñaki Olazabal (Andoain, 1959) artistaren eskultura erakusketa dago ikusgai irailaren 7ra bitartean Aroztegi aretoan, Bergaran. Neurri ertaineko eskulturak dira eta 2014 izena du sortak. Artista gipuzkoarrak Alemaniako eskultura sozialaren eskolan kokatu du bere abiapuntua eta, hain zuzen, eskultura publikoan hainbat lan esanguratsu dauzka, Gipuzkoako Batzar Nagusien sarrerakoa kasu, eta baita bilduma pribatu ugari- tan ere.

Peter Pan eta Malú ikusteko autobusak antolatu ditu Pikupe

Pikupe Produksioak taldeak Peter Pan musikala eta Malú kantari espainiarraren kontzertua ikusteko irteerak antolatu ditu, autobusez. Te- le- bistari esker ezagun egindako Malú kantariaren kontzertua urriaren 17an izango da Gas- teizko Buesa Arenan, eta Peter Pan musikala, oster, Bilboko Euskaldunak urriaren 25ean. Musikala ikusteko azken auke- ra izango da, gainera. Anto- latzaileek, interesa izanez gero lehenbailehen informatzeko dei egin dute.

GURE MUSIKA TALDEAK

LADISLAO



Ladislao laukotea Pantailak diskorako promozio argazkian. | LADISLAO

"Zuzenean grabatu dugu, freskotasuna eta naturaltasuna lortzeko asmoz"

- Hilaren 13an, Elkartasun Egunean, Muxibarren joko du Ladislao
- Brigada Criminal eta Captain Nemo desagertu ostean batu zen laukotea

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Brigada Criminal, Captain Nemo, Eskoria-Tza eta Los Rockinsons taldeetan ibilitako musikariek sortutako proiektua da Ladislao. Tartean, Josu Errasti eskoriatzarra dago, eta estreinako diskoa kaleratu zuen Artza anaiek, Errastik eta Lakuonak osaturiko laukoteak: *Pantailak*.

Nola hasi zen Ladislao?

Kontua da Brigada Criminal –Joseba eta Iker Artza– eta Captain Nemo –Josu Errasti eta Xabier Lekuona– taldeek amaiera jo zutela, eta laurok gure artean proiektu bat egitea erabaki genuen.

Aspaldiko lagunak gara, eta, talde barik geratu ginenez, bertsio batzuk jotzeko elkartzea erabaki genuen. Horrela hasi ginen, besteak beste, Flag Blag, Celibate Rifles, Rose Tattoo, Rip eta TDK taldeen kantuak jotzen. Pixkanaka, gure kantu propioak egiteko beharra sentitu genuen, eta horretan hasi ginen. Bertsioak jotzea oso dibertigarria da, baina beste pauso bat ematea erabaki genuen.

Diskoa prestatzen hasi zineten. Material propioa sortzen hasi ginenean, Josu Artza Argentina-

ra joan zen bizi izatera hilabete batzuk, eta besteok lokalean lanean jarraitu genuen. Bueltan etorri zenerako kantuak borobiltzen hasi ginen. Hori duela bi urte izan zen, eta ordutik diskoa prestatzeko lanetan ibili ginen, martxoan estudioan sartu ginen arte.

Zelakoa izan zen grabazioa?

Bonberenea Ekintzekin kaleratu dugu diskoa, guretzako aukera naturalena delako. Aspaldiko lagunak ditugu bertan, eta, bertsioak jotzen genituenean, Bonberenean egin genuen kontzertu baten ostean, diskoa editatzeko

interesa azaldu zuten. Esan beza-la martxoan sartu ginen estudioan Karlos Osinaga *Txap*-en gidaritzapean eta hiru bat egunean grabatu genuen guztia. Oraingo honetan, Brigada Criminalekin eta Captain Nemorekin ez beza-la, zuzenean grabatu ditugu kantuak; Brigada Criminalen azken singlea horrela grabatu genuen, baina ordura arte disko oso bat zuzenean ez dugu grabatu. Egia esan, horrela grabatzeak beste freskotasun bat ematen dio diskoari, zuzenagoa dela uste dugu. Horrez gain, grabazio prozesua arinagoa eta atseginagoa da. Bestalde, ez dugu izan nahi zuzenean entzungo ez diren efektuak edo instrumentuak sartu. Azken finean, lokalean entzuten dena diskora eraman nahi izan dugu, soinu naturalagoa eta zuzenekoagoa bilatu dugu.

Nondik dator *Pantailak*?

Bizi garen gizarte honetan iruditzen zaigu denok gaudela pantailen menpe, gu ere barne. Etxera heldu eta 200 bat pantaila ditugu gure inguruan eta egun osoa horiei begira gaude.

Biniloa noizko helduko da?

Biniloa hilabete honetan argitaratuko da; arazo batzuk direla-eta nahi baino gehiago atzeratu da, baina espero dugu aste gutxi barru esku artean izatea.

Inguruan ikusteko aukerarik?

Arrasaten hilaren 13an egongo gara jotzen, Elkartasun Egunean, Muxibar tabernan, 18:00etan. Eta Arrasaten amaitu ostean Beasaingo gaztetxera joango gara.

ZERTZELADA

**PANTAILAK****Estiloa:** Punk-rock.**Egilea:** Ladislao (Eskoriatza-Lazkao, 2014).**Argitaletxea:** Bonberenea Ekintzak.**Iraupena:** 27:20 minutu.

Eskola zaharreko txakurrak

Eskoria-Tza, Heriotza, Brigada Criminal, Captain Nemo, Señor No eta zerrenda askoz luzeagoan ibilitakoak, Lazkao eta Eskoriatzakoak, dira. Punka adiera askotan lantzen dute: oso gitarreroa, hardcore-punk amorratua eta Ezin Izan taldearen hardcore melodikoaren hazia ere. Abestiek oinarri indartsua dute, askotan abiadura ere eta gitarrak zorrotzak, baina Lekuonak ahots garbia, ulergarria eta melodia dezentekoa du. Gainera, AEBetako eta Andoaingo 80ko hamarkadako punk-hardcorearen arrastoa dute, eta baita La Perrera eta hastapenetako NCCrena ere, 'Pantailak' kasu. 'Hemen eta orain' hitia bada ere, 'Huang'-ek taldearen ezaugarri guztiak batzen ditu.

IKER BARANDIARAN

Foursquarek diseinu eta estrategia berriak ditu, zerbitzua birpentsatuta

Swarm aplikazio osagarria behar da orain lehengo 'check-in'-etarako

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Estrategia berriarekin epe luze-rako iraupena kolokan jar dezaketela dirudi. Ausarta da bide berriak urratzeko saiakera berria, zerbait izatekotan, inondik ere.

Bitan banatu dituzte lehen Foursquarek zerabilzkien askotariko funtzioak. Planteamendu berriarekin, Foursquaren lekuen gomendioak geratzen dira eta Swarm-en bitartez *check-in* eta kontaktuen

kokapena ikus daiteke. Balorazio nahiko txarrak izan ditu aplikazio berriak sarean, baina Foursquaretik diote erabiltzaileen hiru laurdenak jada baduela aplikazio berria instalatuta.

'Chec-in'-ak Swarm-en


Diseinu berria eta, batera, estrategia deigarria abiatu berri du geolokalizazioari esker eta sare sozialetan lekuen gomendioak egiten dituen Foursquare aplikazioak. Hain zuzen, bi aplikazioetan banatzen da orain arte Foursquarek bakarrean bideratzen zuen zerbitzua: Foursquare, bate-tik; eta bestetik, Swarm.

Diseinu berria

Aplikazio nagusiari goitik behe-ra aldatu diote diseinua. Milioi-ka erabiltzaile ditu Foursquare aplikazioak, baina jadanik ez ditu hasierako funtzioa guztiak; izan ere, *check-in* ezagun horiek orain Swarm delako aplikazio berrian egin behar dira eta Foursquaren soilik gomendioak agertzen dira. Hala, *check-in*-ak egin eta lagunen kokapena ikusteko, Swarm aplikazio independentea erabili beharra dago eta Foursquare aplikazioan geratzen dira beste erabiltzaileen *check-in*-en zenbaketak, leku berrien gomendioak eta horiei buruzko informazio osagarria,

iruzkinekin. Geolokalizazioari lotutako gomendioen eremuan lehia aurkez diezaiokeen aplikazio bakarra Yelp da, baina azken horrek, hain zuzen, *check-in*-etan egiten du huts; orain Swarmen bitartez gauzatzen den ekintza. Gomendioen trafikoan egin gura du negozioa Foursquarek eta litekeena da hori dela-eta horretara bideratu izana, esklusiboki, Foursquare. Apustu horrek, ordea, izan du bere ifrentzua, ze erabiltzaileei banaketa horren aurreko *check-in* guztiak ezabatu baitizkiete Foursquaretik, eta osagarri moduan Swarm aplikazioa jaitsi beste erremedio ez dute erabiltzaileek, lehengo zerbitzu bakar-raren truke, orain bi aplikazioaren behararekin. Estrategia horrek ez ditu erabiltzaileak kontentitu eta Swarmek oso balorazio txarrak izan ditu. Foursquaretik diote dagoeneko erabiltzaileen hiru laurdenak jaitsi duela aplikazio berria eta biak aldi berean erabiltzen dituela, osagarri moduan.

Azken astean lehiakide berria, eta ez, gainera, txikia, atera zaizkie Foursquare eta Swarm aplikazioei. Izan ere, Google Maps kokapenaren eta gustuen arabera lekuen iradokizunak egiten hasi da aplikazioan bertan, mapen baliabide guztiekin. Googlek bere mapak, bilaketak eta erabiltzaileei buruzko datuak gurutza ditzake eta erabiltzaileak berak *check-in*-ik egin gabe nahikoa informazio du sistemak gomendio pertsonalizatuak egiteko.



Foursquare-n eskaera pantaila bat, mugikorrean. | 450

Windows Phone ezagutzeko gunea

Sistema eragile mugikorra erabiltzen erakusteko webgunea abiatu du Nokiak

J.B. | ARRASATE

Mugikorrerako sistema eragile erabilien artean hirugarrena da Windows Phone; BlackBerry, makina bat arazoren ostean, atzean lagata. Azkenaldian telefono merke eta eraginkorrek eta aplikazioen eskaintza areagotuta, merkatuan duten lekua hobetzea lortu dute Windowsek. Sistema eragileari dago-kionez, Windows Phone 8 da azkena eta erabiltzaileei gauzak erraztu gura dizkiete orain kuota zabaldu nahian.

Nokiak bultzatuta

Nokiaren domeinuaren barruan, sistema eragilearen aukerak erabiltzen ikasteko bideo-tutorialak ipini dituzte eskuragarri, horrekin batera, segurtasun ezarpenak eta konfigurazio aukera desberdinak azalduta. Gainontzeko sistema eragileen interfazeetatik zertxobait desberdina da Windows Phone, neurri diferente askotako leihoe-kin. iOSek eta Androidek pantaila nagusiak aplikazioen

botoiak erakusteko erabiltzen dituzte eta Windowsek neurri moldagarria duten koadrikulak erabiltzen ditu edukiak antolatze-ko. Koadrikula bakoitzak, erakusten duen aplikazioaren arabera, portaera zehatz bat du eta informazioa erakusten dute aplikazio bera irekitzeko beharrik izan barik.

Hasiera botoiaren itzulera

Sistema eragile berriari dago-kionez, udazkenerako merkaturatzeko gertu beharko luke Windows-en bertsio berriak, bederatzigarrenak. Azaleratu diren pantaila-irudien arabera, *Hasiera* botoiaren itzulera erakusten dutenak daude. Egungo diseinura egokitutako hasierako menu berria ikusten da pantaila-irudietan eta Windows Modern erabiltzaile-interfazearen aplikazioak, adibidez, pantaila osora beharrean, leihotetan erakusten ditu. Hain zuzen, Modern-en nahitaezko erabilerak esklusibo hori izan da kexa nagusietako bat.

Applek eta VISAk denda fisikoetan mugikorrekin erosteko sistema dute

J.B. | ARRASATE

Teknologiaren eta kredituaren bi handikiak batu eta iPhone bidez erosketak ordaintzeko zuzeneko sistema bat gertu izango lukete bi enpresek. Telefonoaren azken modeloaren Touch ID erabiliko luke sistemak.

Indar batuketa handia

Sareko enpresa handi guztiek ordainketa sistemetan dihardute lanean. Kreditu txartela eskuko telefonoarengatik ordezkatzeko da helburua eta dagoeneko proposamen bat baino gehiago dago merkatuan, batez ere, garraio publikorako eta erosketak txiki-oren ordainketak egiteko. Asmoa, ordea, ordainketa guztiak mugi-

korretik bideratu eta kudeatzea da. Albiste da horren inguruan negozioazietan dabilzala bi munduetako handikiak.

Apple ere aurretik ibili da garapenak aurkeztzen, baina ematen du saiakera definitiboa dotorren udazkenean aurkeztuko dutela, *The Information* atariak aurreratu duenez. Cupertino enpresak VISArekin batera sistema seguru eta propioa aurkeztuko du iPhone erabiltzaile guztientzat. Segurtasun sistema berezia izango luke ordainketa aplikazioak, antza; jada garatu eta identifikazioa telefonoaren azken modeloak daukan Touch ID hatz-marka irakurgailuaren bitartez egingo litzateke.



iPhone 5S modeloak duen ID Touch irakurgailua. | GOOGLE

Aldats maila ere badakar jada Google Mapsek orain

J.B. | ARRASATE

Google Mapsen azken eguneraketarekin, bereziki txirrindulariengan pentsatutako berrikuntza dakar. Orain arteko oinezko eta autozko ibilbideez gain, bizikletaz egiteko bideen berri ere badakar, aldatsen malda mailari buruzko informazioa barne.

Maldari buruzko informazioa gehitu diote mapei Googlek eta orain aukera dago ibilbide baten barruan bideek duten aldatsa ikusi eta kalkuluak egiteko. Ez da hori Google Maps aplikazioaren azken eguneraketaren berrikuntza bakarra. Mapari erabiltzaileak aurrez zehaztutako puntuak gehi dakizkio orain, eta baita ahots bidezko aginduak eman. Uber aplikazioa ere txertatu dute oinezko eta garraio publikoaren informazioarekin batera. Hirugarren berrikuntza oso erabilgarri bat ere badago, aurrerantzean bi punturen arteko distantzia kalkulatzeko aukera ere ematen baitu Google Mapsek, zehaztasun handiagoarekin eta, gainera, edozein ibilbidetan.

ETXEKO SUKALDERAINO

Oihana Kortazar | Mendi lasterketetako korrikalaria

- Munduko, Europako eta Espainiako txapelduna da lasterketa bertikaletan
- 'Trail'-etan, maratoi erdietan eta mendi lasterketetan nabarmentzen da

"Gosaria da garrantzitsuena, lasai jateko momentua da niretzako"

ANE ELORDI | ELGETA

Mendia maite du Oihana Kortazarrek (Elgeta, 1984), eta bi ume-ren ama da. Korrika zein oinez, mendiaz eta naturaz gozatzea gustatzen zaio. Hori da bere afizioa eta ofizioa.

Nolakoa da Oihana?

Pertsona geldiezin, nahiko burugorria, pazientzia txikikoa eta diziplinatua.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Batez ere, kirola eta naturarekin zerikusia eta lotura duten gauza guztiak, egitasmo lasaiak.

Kirola: ofizioa eta afizioa?

Zortea da gustuko duzun horretatik bizi ahal izatea. Hala ere, afizioa ofizio bihurtzen denean bere alde txarra ikusten diozu.

Sukaldean moldatzen zara?

Moldatzen naiz eta gustatzen zait; gainera, nahiko berezia naiz ni sukalde kontuetan, ondo jatea gustatzen zait, baina ez naiz oso erraza edozein tokitara joan eta edozer jateko. Nire modura koiznatzea gustatzen zait, esaterako, barazkiak. Ondorioz, hortik kanpo kostatu egiten zait beste jateko batzuetara ohitzea. Diziplina-
ren barnean sartzen da elikagaiak zaintzearena ere.

Eguneko zein otordu da zure gustukoena?

Gosaria da garrantzitsuena; egunean lasai jateko dudan momentua da niretzako, eta haurrak jaiki aurretik gosaltzea gustatzen zait, horretarako jartzen dut iratzargailua nahita.

Jatea ala egitea nahiago duzu?

Jatea nahiago dut.

Zein da zure plater gustukoena?

Gutizia bezala bada, patata-tortilla da gustukoena; baina bestela, edozer gauza.



Lehen platera: Arroz integrala baporean egositako barazkiekin.

Bigarren: Labean egindako edozein arrain; adibidez, legatza edo zapoa.

Postrea: Jogurt naturala marrubiekin.

Edatekoa: Ura.

Sukaldean, esperimentatzea gustuko duzu ala betiko jatekoak nahiago?

Betiko jakiak egin ohi ditut, nahiz eta gustatuko litzaidakeen gauza berriak egitea eta errezeta berriak probatzea, baina denbora faltagatik ez ditut egiten.

Lagun on bat zertara gonbidatuko zenuke?

Paella eder bat jatera.

Mendian ibiltzeko, bakarrik ala konpainian nahiago?

Bakarrik nahiago, inguruko mendietara oso gustura joaten naiz bakarrik, niretzako pentsatzeko momentu bat delako. Entrenatu ere bakarrik entrenatzen naiz, nire helburuak betetzeko. Hala ere, beste irteera batzuetarako taldean joatea gustatzen zait, mendia ezezaguna baldin bada, taldean ere besteengandik ikasi egiten delako.

Eta korrika ala oinez?

Lasterketa denboraldian oinez joatea faltan igartzen dut, eta lasterketak alboratzen ditudanean oinez joan nahiko nuke. Nire afizioa mendia da, ez mendian korrika egitea.

Zein da zure mendirik maiteena?

Euskal Herri mailan Anboto mendia da niretzat berezia, Bizkai aldea asko gustatzen zait eta



Oihana Kortazar. | GOIENA

"Gutizia bezala bada, patata-tortilla dut gustuko; bestela, edozer"

Anbotoko magaletik asko pasatzen naiz, sarritan, saiatzen naiz tontorrera igotzen.

Ametsik betetzeko aukera izango bazenu, zeintzuk izango lirateke?

Ametsetako bat izango litzateke semeei kirolarekiko lotura eta balioak transmititzea, kirola bizitza ohitura bat izatea, lehiakortasuna sustatu gabe.

Mendia ofizio eta kostaldea bizileku, itsasoa ala mendia nahiago?

Mendia nahiago dut.

Herrialde asko ezagutzeko aukera izan duzu; bat aukeratu beharko bazenu, zein izango litzateke?

Toki bakoitzak bere gauzak ditu, baina Hego Amerika asko gustatu zait, batez ere, bertako herri-tarren umiltasunagatik.

Eta egitea gustatuko litzazukeen bidaia bat?

Egiptora joatea, ametsa da niretzat, umetatik.

Zer esaldi edo aholku konpartituko zenuke?

Jendea arrazoi gabe ez kritikatzeko, zu ere toki berean egon zaitezkeelako beste batean.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

PASTA FRESKOA LANGOSTINOekin

A benduaren 24a zen errezeta hau lehen aldiz egin nuenean. Arrandegira joan nintzen. Imajinatuko duzue zela zegoen. Adin ertaineko herritsu batzuen artean tokia egitea lortu nuen, ahal izan nuen moduan, txanda eskatzeko.

Bazirudien mundua akabatzea zihoala. Denak etxeko bunke-
rrak betetzera. Erregimentu haiei jaten eta edaten eman beharko zieten arrandegian batutakoek... Neurri bakoa zen dena. Horregatik, arrandegikoa harrituta geratu zen, eskukada bat langostino bakarrik eskatu niolako. Pinta onekoak ziren, hori bai.

Botila bat txakolin ere erosi nuen. Eta gazta apur bat. Parmesanoa. Pasta prestatu behar nuen-eta. Ez nuen besterik behar. Gabon gaueko afarira gonbidatu moduan



Edozein momentutan jateko moduko pasta platera. | PATRIZIA VITELLI

nindoan eta eroan behar nuen postrea prest neukan hozkailuan. Ontzen.

Erosketa karro urria

Nire erosketa karroak ez zeukan besteekin zerikusirik: mariskoa, solomilloa, pateak, txerrikiak,

ardoak eta bestelako edariak...; baita azken orduan erositako opariak eta sorbeteak egiteko cava txarrak ere!

Samur egitekoa

Etxera heldu nintzen eta, irten aurretik, pasta fresko apur bat

jarri nuen desizozten. Madrilera egin nuen azken ihesaldian erositakoa. Kalitatezkoa. Crema saltsarekin eta langostinoekin lagundu nahi nuen pasta ederra. Samur prestatzeko moduko platera. Hogei minutuan eginda neukan.

Fitxa

- Denbora: 20 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIK (BI PERTSONARENDAKO)

- Pasta freskoa, 250 g.
- Langostinoak, 12-13.
- Esne-gaina, 150 ml.
- Txakolina, baso erdi.
- Berakatz, ale bat.
- Gatza, olio eta piperrautsa.
- Pipermina (aukeran) eta perrexila, apur bat.

Prestaketa

- Langostinoak ondo garbitu. Zuritu, eta burua eta hesteetako haria kendu. Gorde.
- Berakatz ale bat ondo txikitu eta zartaginean erre, oliba-olio apur batekin. Pipermin apur batekin ere egin daiteke, nahi izanez gero.
- Berakatz gorritzen hasi denean langostinoak gehitu eta ikusiko dugu apurka-apurka kolorea aldatzen zaiela. Laranja kolorekoak daudenean, txakolina gehitu (beste ardo zuriren bat ere izan daiteke) eta alkohola desagertu arte utziko dugu su bizian pare bat minutu.
- Esne-gaina gehitu zartaginean, perrexil txikitu apur bat, gazta parmesano birrindu apur bat, eta dena nahastu. Saltsa apurka-apurka, su motelean, egiten laga.
- Pasta puntuan egosi ostean, lapikotik atera, ura ondo kendu eta langostinoekin egindako saltsarekin nahastu, eta prest mahaira ateratzeko!

TELE-BEGI

OIHAN VEGA

'The Big Bang Theory'

Friends telesail komikoaren ostean, arrakastarik gehien lortu duen telebista saioa bilakatu da *The big Bang Theory* (Neox).

Gaur egun, eten gabe, telebistak ez duela ezer berririk eskaintzen entzuten dugu, kaltegarria dela, *telezaborra* baino ez dagoela...

Ba, kasu honetan, Chuck Lorre ekoizle estatubatuarrak erakutsi du, posible dela kalitatezko telebista egitea, oso ongi jositako gidoi gatzdun eta burutsuekin.

Zalantza barik, telesail honetako protagonista nagusia Sheldom Cooper da, Jim Parson aktoreak antzezten duen zientzialari maniatiko, bitxi eta eszentrikoa.

Arrakasta horren handia izanik, lau protagonistei soldata laukoiztu diete, ondorioz, milioi bat dolar kobratuko dute kapitulu bakoitzeko. Bai, milioi bat dolar.

Hori bai, nire ustez, komedia honen smakizunik handiena Mayim Bialik aktorearen agerpena izan da; alegia, Cooper protagonistaren neskalaguna den Amy; orain arte, guztiok Blossom moduan eza gutzen genuen aktorearen lanak urrezko domina jartzen dio, berez, podiumean zegoen gidoilari taldeari. Zorionak!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 1	MARTITZENA, 2	EGUAZTENA, 3	EGUENA, 4	EGUBAKOITZA, 5
Espeleo Txiki Zapatuan Espeleo Txiki abentura egin zuten Arrikruz kobetan, eta han jasotakoa ikusgai izango da. 20:00	'Berriak' Egunero bezala, gertatutako albiste garrantzitsuenen berri, Goiena telebistako albistegian. 14:30	'Erakusleihu' Arrasateko Ferrerías kalean dagoen Izpi Alaia ile-apaindegia ezagutu ahal izango da. 20:00	Kultura kontuak Asteburuan Debagoienean izango diren kultura hitzorduen berri jasoko da egue-neko saioan. 20:00	Legatza saltsan Iñaki Uribetxebarriak legatza saltsan pres-tatuko du <i>Debagoiena zuzenean</i> -eko sukaldaritza tartean. 20:00
12:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak 13:00 Ibilean 13:30 Ikusi irratia 14:15 Ikusmira 14:30 Berriak 15:00 Kontzertua 15:30 Aniztasunean bizi 16:00 Amaia DJ 16:30 Berriak 17:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak 18:00 Ibilean 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Amaia DJ 19:30 Harmailatik 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Harmailatik 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Harmailatik 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Harmailatik 13:00 Ibilean 13:25 Zorion Agurrak 13:30 Amaia DJ 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik 15:30 Onein 15:55 Zorion Agurrak 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Ikusmira 17:20 Ur eta lur 17:55 Ikusmira 18:15 Erreportajea 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Harmailatik 19:30 Ibilean 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 21:00 Debagoieneko jaiak 22:00 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Harmailatik 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak 13:30 Harmailatik 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Onein 15:30 Kontzertua 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Harmailatik 17:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak 18:30 Berriak 19:00 Ikusi irratia 19:45 Ikusmira 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Kontzertua 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Kontzertua 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Ur eta lur 13:15 Ibilean 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Kontzertua 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Kontzertua 17:30 Ur eta lur 18:00 Ibilean 18:30 Berriak 19:00 Ikusi irratia 19:45 Ikusmira 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Amaia DJ 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Harmailatik 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Amaia DJ	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Ikusmira 12:50 Jaiak: Debagoieneko jaiak 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Amaia DJ 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Kontzertua 17:30 Ur eta lur 18:00 Ibilean 18:30 Berriak 19:00 Ikusi irratia 19:45 Ikusmira 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Erreportajea 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Kontzertua 00:00 Debagoiena zuzenean

ARRASATE IRRATIA

'Uda giroan' irratsaioa gaurtik aurrera eskainiko da, egunero

Abuztuko oporren bueltan, gaur, astelehena, itzuliko da 107.7ko uhinetara *Uda giroan*, 10:00etan. Astelehenetik egubakoitzera eskainiko da saioa eta gaur, esaterako, Maroko-ko Gobernuak Saharatik kanporatu duen bigarren euskal brigadan dauden bi oñatiarrekin hitz egingo da.

Patxi Zubizarretaren 'Hiru gutun Iruñetik' liburua zozketan

Egubakoitzeko zozketan Patxi Zubizarretak idatzitako *Hiru gutun Iruñetik* liburua zozketatuko da Arrasate Irratian. Zozketan parte hartzeko modu hauek daude: 943 25 05 05 telefonora deitu daiteke edo bestela irratia@goiena.com helbidera bidali mezua. Animatu, parte hartu eta zorte on!

Malen Ruiz de Azua atletarekin berbetan, bihar 11:00etan

Oregonen ospatu zen munduko txapelketan lehiatzen izan zen Malen Ruiz de Azua arrasatearra eta bertan bizi izandako esperientziaren berri emango du atletak bihar, martitzena, *Uda giroan* irratsaioan 11:00etan. Lehiaketa zer moduz joan zitzaion azalduko du eta udan nondik nora ibili den ere kontatuko du.

TELE-ALBISTEAK

Ohiko saioak itzuliko dira gaurtik aurrera Goiena telebistara

Gaur hasiko dira 'Debagoiena zuzenean' eta 'Harmailatik'; egunean hasiko da 'Amaia DJ'

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Goiena telebista ohiko programaziora itzuliko da gaur, astelehena, udako oporren ostean. Gaur estreinatuko dira denboraldi berriko *Debagoiena zuzenean* saioa (20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean) eta *Harmailatik* (19:30ean eta 22:00etan), eta egunean hasiko da *Amaia DJ* saioa (19:30ean eta 22:00etan).

Eguneko albisteen berri egunero jaso ahal izango da Monika Belastegik aurkeztutako *Berriak* saioan (14:30ean, 16:30ean, 18:30ean, 20:30ean eta 21:30ean).

'Debagoiena zuzenean'

Gaur, astelehena, Txomin Madinak aurkeztuta, asteburuan Arrikruz kobetan egindako Espeleo Txiki abentura nolakoa izan zen jasoko da. Eta abuztuko eguraldi kontuei buruz jardungo du Pello Zabala eguraldi adituarekin. Astelehenetik egubakoitzera bitartean eskainiko da saioa.

'Harmailatik'

Markel Uriarte Orbeako rider aretxabaletarrak Tourmalet mendate mitikoa gupil bakarrean igo zuen, eta Uriarte izango da



Debagoiena zuzenean saioko aurkezle Txomin Madina, telebistako platoon. | GOIENA

'Debagoiena zuzenean' saioa egunero eskainiko da 20:00etan

gaur, astelehena, Xabier Urzelai aurkezlearekin batera platoon. Esperientziaren berri emango du Uriartek. Eta asteburuan jokatu den Bergara Hiria torneoak eman duena ere ikusi ahal izango da kirolen saioan.

'Amaia DJ'

Bideoklipen saioan gazteen eskaerak jarriko dira. Hauek dira kantuak eskatzeko bideak: Whatsapp (688 69 00 17), Twitter bitartez [@amaiadj](https://twitter.com/amaiadj) eta Tuentitik DJ Amaia Txintxurretara idatzita.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Ziortza Ibaibarriaga Aipoita
Irailaren 7an, 12 urte.
Zorionak eta urte askotarako, maitia. Muxu mordo, etxekoan partetik.



BERGARA
Asier Garitano Agirre
Irailaren 7an, urtebete.
Zorionak etxeko txikienari eta muxu handi-handi bat etxekoan partetik.



ESKORIATZA
Malen Bengoa Muxika
Irailaren 7an, 4 urte. Lau urte beteta, neska handixe egitten zabiltz gero, e? Besarkada potolo bat eta muxu pila-pila zuretako.



BERGARA
Ane Azkarate Unamuno
Irailaren 4an, 13 urte. Urte askotarako familiakoan eta, bereziki, Uxue ahizparen izenean. Ondo pasatu eguna!



BERGARA
Maren Unamuno Martinez
Irailaren 3an, 10 urte. Zorionak, printzesa, eta egun ona pasatu zure urtebetetzean. Familiakoan eta, bereziki, Naiaren izenean.



ARETXABALETA
Oier Aranegi eta Haritz Garai
Irailaren 2an, 7 urte. Oierrek abuztuaren 9an, 5 urte eta haritzek irailaren 2an, 7 urte. Zorionak, bikote! Muxu eta besarkada handi bat bioi familia guztiaren partetik. Aupa Erreala!



ARETXABALETA
Izar Zuazo Oianguren
Irailaren 2an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Zazpi urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo-potolo bat Unaxen, amaxoren eta aitaxoren partetik!



ARETXABALETA
Alluitz Lazkano
Irailaren 2an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean. Ia zenbat sorpresa aurkitzen ditzuzun, txapeldun! Muxu mordo bat; batez be, Zaraitzuren partetik!



ARRASATE
Nerea Urrizalki Ayesa
Irailaren 2an, 10 urte. Zorionak, Nerea, etxeko guztien eta, batez ere, Ainhoaren eta Maialenen partetik.



ANTZUOLA
Julen Gezalaga Esnaola
Irailaren 2an, 8 urte. Zorionak, Julen! Asko maite zaitugun guztien partetik, ondo pasa dezazula zure egunean eta opari asko jaso ditzazula, guapo.



OÑATI
Ekain Olalde Suarez
Irailaren 1an, 5 urte. Zorionak, Ekain! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean, potxoli! Amaxoren, aitaxoren, Uxuriren eta gainerako familiakoan partetik. Muxu handi-handi bat!



ESKORIATZA
Oxel Bengoa Muxika
Abuztuaren 30an, 2 urte. Bi urtetxo egin dituzula! Patxo bat familiako danon partetik.



ARETXABALETA
Julen Gutierrez Olave
Abuztuaren 29an, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik. Jarraitu holaxe, txapeldun!



ANTZUOLA
Ainhize Azkarate Vazquez
Abuztuaren 28an, 4 urte. Zorionak gure etxeko txikienari. Muxu potolo bat zuretzat.



OÑATI
Uxue Aranburu
Abuztuaren 28an, 3 urte. Zorionak, politturi! "printzesa-sorgintxo" bat eginda zauz honezkero. Musu erraldi bat Haizearen, Naiaren, aitaxoren eta amaxoren partetik.



BERGARA
Aitzol Puga Saez
Abuztuaren 27an, 6 urte. Zorionak, Aitzol! Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu pila guztien partetik eta handiena Izarorena. Aupa Osasuna.



ARETXABALETA
Ane Lasagabaster Arrieta
Abuztuaren 27an, 2 urte. Zorionak gure etxeko txirripistinari! Ondo pasatu zure egunien! Patxo bat.



ARETXABALETA
Manex Amozarrain Olabarria
Abuztuaren 25an, 4 urte. Tranpati! Aurten lau! Patxuak!



ARAMAIO
Aratz Ezpeleta Etxeberria
Abuztuaren 22an, 8 urte. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu eguna!



ARETXABALETA
Aner Villar Pastor
Abuztuaren 22an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat familiako danon partetik!



ARAMAIO
Ilargi Bengoa Gomez de Segura
Abuztuaren 21an, 7 urte. Zorionak! Maripertxenta bat eindazaz honezkero! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta gozatu oporak! Patxo bana Hegoaren, aitaxoren eta amaxoren partetik!



OÑATI
Lide Lazkano
Abuztuaren 20an, urtebete. Zorionak zure lehen urtebetetzean! Patxo handi bat etxekoan partetik! Egun polita pasatu, printzesa!



OÑATI
Beñat Telleria Rodriguez
Abuztuaren 17an, 8 urte. Zorionak etxeko danon partetik! Ondo pasatu zure eguna Galizia aldi.



ARAMAIO
Irati Garaitonandia Martelo
Abuztuaren 15an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo bat etxekoan eta, batez ere, amama Klararen eta tia Pakitaren partetik.



DEBAGOIENA
Aroa Garro eta Maddi Arriaran
Abuztuaren 14an, 8 urte. Aroak abuztuaren 14an eta Maddik 15ean, 8 urte. Zorionak, bikote! Primeran pasatu biok oporretan eta irailan batera ospatuko dugu. Horrela jarraitu biok eta patxo potolo bat gurasoen partetik.



OÑATI
Nahia Umerez
Abuztuaren 12an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo. Oso ondo pasatu genuen zure egunean. Milaka patxo familiako danen eta, bereziki, Heleneren, Ekainen, Izaroren, Aiuriren, Hodeiren eta Amets txikiaren partetik.



OÑATI
Helene Kortabarria Otxoa-Aizpurua
Abuztuaren 12an, 3 urte. Zorionak! Hiru urtetxo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Merendolan. Patxo handi bat familia danaren partetik.



ARETXABALETA
Oinatz Urkia Berezibar
Abuztuaren 11n, 5 urte. Zorionak, Oinatz! Jada bost urte! Zorionak etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Jaione Lazpiur
Abuztuaren 8an, 30 urte. Zorionak, Jai! uda ostean danok batera ongi ospatuko dugu. Heriotzaren hirukotearen partetik. Asko maite zaitugu! Muxu asko.



BERGARA
Danel Olañeta Cueva
Abuztuaren 8an, 4 urte. Zorionak, maitxia! Gaur lau urte. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat amaxoren, aitaxoren, ikerren eta Unaxen partetik.



ESKORIATZA
Laia Urzelai Barriocanal
Abuztuaren 7an, 4 urte. Zorionak, printzesita! Jaso muxu handi asko amaxoren, aitaxoren eta Gariren partetik.



ARRASATE
Iñigo Altzola
Abuztuaren 6an, 24 urte. Zorionak, Iñigo, Zurizako lagunen partetik! Ia ba urtiak aurrera fan ahala malaxete hori pasetan jatzun! Kar, kar, kar.



ARETXABALETA
Iraide Larrañaga
Abuztuaren 5an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Zelako ederki pasatu dugun zure eguna oporretan! Muxu potolo-potolo bat familiaren eta, bereziki, Jonen partetik.



BERGARA
Unai Beistegi Frias
Abuztuaren 5an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Aitorren, Aneren, Martinen eta Eriken partetik!



ARRASATE
Nerea Baena
Abuztuaren 5an, 30 urte. Zorionak, preziosa! Nahiz eta Santiago bidean izan, oso ondo pasatu zure eguna! Denok zutaz akordatu eta sagardoakin topa egingo dugu zure omenez.



ARRASATE
Nerea Oroiz Muñoz
Abuztuaren 5an, 4 urte. Zorionak, preziosa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Musu potolo bat etxeko guztien eta, bereziki, Naiararen partetik.



BERGARA
Danel Goikoetxea
Abuztuaren 4an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunean! Patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Maialenen eta Eleneren partetik!



ARETXABALETA
Nahia Vales Martinez
Abuztuaren 4an, 8 urte. Zorionak, Nahia! Jadanik zortzi urte. Ondo-ondo pasatu zure familiarekin eta lagunekin. Patxo potolo-potolo bat denon partetik.



OÑATI
Ixone Guridi Urteaga
Abuztuaren 2an, 6 urte. Zorionak, sorgin hori, etxeko danon partetik. Ondo ospatu zure seigarren urtebetetzea. Maite zaitugu.



OÑATI
Garazi eta Eñaut Arriaran Idigoras
Abuztuaren 2an, 5 urte. Zorionak bixori! Garazik abuztuaren 2an, 5 urte eta Eñautek abuztuaren 6an, bi urtetxo. Merendola eder batekin ospatuko dogu bixon urtebetzea!

ZORION AGURRAK



BERGARA
Egoitz Goiti Zubia
Abuztuaren 6an, 3 urte.
Zorionak, "Txitxarito".
Intzaren, amatxoren eta
aitatxoren partetik.



BERGARA
Maialen Garcia
Abuztuaren 2an, 3 urte.
Zorionak, potxola! Oso
ondo ospatu genuen
danok Ezkarairen zure
urtebetetze eguna.
Patxo handi bat etxeko
guztien eta, bereziki,
Naroa txikiaren partetik.



OÑATI
Ane Garitano Moia
Uztailaren 31n, 6 urte.
Zorionak, Ane! Ze
handixa egin zaren jada!
Patxo handi bat familia
xarearen partetik!



BERGARA
Unax Barrenetxea
Uztailaren 30an,
urtebete. Zorionak,
maitxia! Zure
txalo-txaloekekin jarraitxu
inguruko danok alaitzen
eta ondo-ondo pasatu
zure lehen urtebetetze
eguna!



ARRASATE
**Maialen Urrizalki
Ayesa**
Uztailaren 29an, 6 urte.
Zorionak, Maialen! Ondo
pasatu eguna, Ainhoaren
eta Nerearen partetik!



BERGARA
**Naiara Melendi
Moreno**
Uztailaren 29an, 6 urte.
Zorionak, guapetona!
Ondo pasatu eguna.
Etxeko guztien partetik,
patxo handi bat.



OÑATI
Noa Mugarza Urizar
Uztailaren 28an, 3 urte.
Mila kilo zorion gure
etxeko panpoxarentzat.
Infinitura!



BERGARA
Ander Ortiz Lizarralde
Uztailaren 26an, 4 urte.
Zorionak, txapeldun! Mutiko
handi egiten ari zara
dagoeneko! Zure
urtebetetze egunian
zoriontsu izan zaitezela opa
dotzugu familiako guztiok.
Lau patxo handi zuretzat!



ARETXABALETA
Maddi Eskibel
Uztailaren 26an, 2 urte.
Zorionak eta patxo
potolo bana familia
danaren eta, batez ere,
amatxoren, aitatxoren
eta Haitzen partetik.
Ondo pasatu zeure
egunian!



ARRASATE
Irati Horriolo Tierno
Uztailaren 25an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Bikain
pasatu zure egunean. Mila kilo muxu osaba Ivanen,
izeba Alaiaren eta lehengusina Areneren partetik.



OÑATI
Izaro Agirre Zoilo
Uztailaren 25an, 6 urte.
Zorionak, txapelduna!
Ondo pasatu zure
egunean eta indarra
hartu sei kandleei putz
egiteko. Muxu handi bat
etxekoen eta, bereziki,
Marenen partetik.



BERGARA
**Oier Gantxegi
Gallastegi**
Uztailaren 23an,
urtebete. Zorionak!
Danon partetik eta
Enekoren partetik
bereziki. Muxu.



ESKORIATZA
Itxaso Lopez Feijoo
Uztailaren 22an, 8 urte.
Zorionak gurasoen
partetik, Itxaso. Ondo
pasatu eguna.



ARRASATE
Miren Zabaleta
Uztailaren 22an, 94
urte. Zorionak maitasun
osoz! Lagunen eta
etxekoen partetik! Egun
ona pasatu!



ARRASATE
Nikole eta Elene Urretabizkaia Diaz
Uztailaren 21an, 4 urte. Zorionak, printzesak! Primeran
pasatuko dugu ospakizunean. Familiaren eta
Umezaintzako laguntxuen partetik, egun polita pasatu!



OÑATI
**Ane Arrizabalaga
Txintxurreta**
Uztailaren 21an, 3 urte.
Zorionak, Ane!
Txokolatezko patxo pilia
familixakuen partetik eta
ondo ospatu! Asko
maitte zaittugu.



BERGARA
Maren Lezeta
Uztailaren 21an, 8 urte.
Zorionak, printzesa! .
Mila zorion hainbeste
maite zaituen familiaren
partetik. Aiur, Noa,
aitatxo eta amatxo. Egun
polita pasatu, bihotza!



ARRASATE
Itxaso Barrutiabengoa
Uztailaren 26an, 32 urte.
Zorionak maitasun osoz,
amatxo! Muxu potoloak eta
besarkada handi bat zure
etxeko guztien eta, bereziki,
zure senarraren eta
semearen, partetik. Oso-oso
ondo pasatu eguna. Mua!



OÑATI
Izar Unzurrunzaga
Uztailaren 20an, 6 urte.
Zorionak zure familia eta
lagun guztien partetik.
Muxu handi-handi bat.



ESKORIATZA
Iradi Aramendi Altuna
Uztailaren 18an,
urtebete. Zorionak,
Kukina! Zure lehenengo
urtebetetzerako
¨patxo-patxo eta
muxu-muxu¨pila
bat etxeko guztien
partetik! Mua!



OÑATI
**Oinatz Agirregabiria
Aguirre**
Uztailaren 16an, 3 urte.
Zorionak, Oinatz!
Ondo-ondo pasaTU
eguna eta muxu bat
etxeko danan partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitez *Goiena.eus* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra,
baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariatzaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

**Nora Iturbe Egaña**

Aretxabaleta 3,280 Kilo. Abuztuaren 24a. Gurasoak: Itsazne eta Gorka. Argazkian, Nora aitaren besoetan.

**Peio Uriarte del Campo**

Oñati 3,520 Kilo. Abuztuaren 24a. Gurasoak: Jessica eta Aitor. Argazkian, Peio jaioberria, sehaskan.

**Axular Ibarra Auñabeitia**

Elorrio 4 Kilo. Abuztuaren 24a. Argazkian, Axular jaio berria gurasoekin eta anaiaren besoetan.

**Laia Mier Pinacho**

Arrasate 3,380 Kilo. Abuztuaren 24a. Gurasoak: Oihana eta Gorka. Argazkian, Laia amarekin.

**Izeia Martin Arana**

Arrasate 2,930 Kilo. Abuztuaren 19a. Gurasoak: Amagoia eta Mikel. Argazkian, Izeia, ahizparekin eta amamarekin.

**Paul Diaz Uberuaga**

Bergara 2,580 Kilo. Abuztuaren 21a. Gurasoak: Susana eta Unai. Argazkian, Paul txikia aitarekin.

**Aimar Garcia Lopez**

Oñati 3,100 Kilo. Abuztuaren 21a. Gurasoak: Rakel eta Jose. Argazkian, Aimar txikia amaren besoetan.

**Irati Galdos Umerez**

Oñati 3 Kilo. Abuztuaren 22a. Gurasoak: Ene-ritz eta Iker. Argazkian, Irati, izeba Aiorarekin eta amarekin.

**Ibai Benitez Gongueta**

Elorrio 3,350 Kilo. Abuztuaren 24a. Gurasoak: Amaia eta Antonio. Argazkian, Ibai, sehaskan lo.

**Leire Kortabarria Alvaro**

Arrasate 3,600 Kilo. Abuztuaren 26a. Gurasoak: Amaia eta Aitor. Argazkian, Leire jaioberria.

**Lier Nin Ibarruri**

Bergara. 3,420 Kilo. Abuztuaren 19a. Gurasoak: Mikel eta Itxaso. Argazkian, lier jaioberria sehaskan,

**Laia Umerez Ezeolaza**


Oñati 2,830 Kilo. Uztailaren 22a. Gurasoak: Aintzane eta Aitor. Argazkian, Laia txikia lasai-lasai sehaskan.

**Danel Vara Riera**

3,140 Kilo. Uztailaren 23a. Gurasoak: Iratxe eta Gontzal. Argazkian, Danel jaioberria sehaskan.

**Unax Garai Sarrao**

Bergara 3,300 Kilo. Uztailaren 20a. Gurasoak: Saioa eta Arnaitz. Argazkian, Unax txikia sehaskan.

**Ekain Akizu Arenaza**

Aretxabaleta 4,280 Kilo. Uztailaren 18a. Gurasoak: Aitziber eta Jon. Argazkian, Ekain amarekin.

**Lia Guedes Hernandez**

Arrasate 3,660 Kilo. Uztailaren 23a. Gurasoak: Tamara eta Antonio. Argazkian, Lia jaioberria amarekin.

JAIOTAKOAK



Manex Bilbao Uribetxebarria

Elorrio 3,200 Kilo. Uztailaren 23a. Gurasoak: Leire eta Aitor. Argazkian, Manex aitarekin.



Endika Pineda Fernandez

Antzuola 3,370 Kilo. Uztailaren 21a. Gurasoak: Saray eta Javi. Argazkian, Endika, anaia Anderren besoetan.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

zorionak!

Eroskik zuen lehen beharretarako,
OPARIA*
egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua



* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENArek ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Eguna hasteko, benetako buru-jana

Selfie-n modaren ostean, hona hemen hurrengo joera posiblea: ogia nahi dugun argazkiaren araberak xigortzen duen xigorgailua. www.likecool.com



720

ORDU

2020ko abenduaren 31n estreinatuko dute historiako pelikularik luzeena izango dena. *Ambiancé* du izena, Anders Weberg suediarra da zuzendaria, eta, behin bakarrrik eman ostean, suntsitu egingo dute. Ikusgai dago aurrerapena: 72 minutuko *teaser*-a. www.thelongestfilm.com



Max. 27°

Min. 14°

Eguraldiak hoberako joerari eutsiko dio nahiz eta hodei batzuk sortu ipar isurialdean. euskalmet.net

goiena

2014-09-01

Miriam Cabeza 'Mi querido Klikowsky', 'Vaya Semanita', 'Irrikatown', 'Euskadi Movie'... irailean Cuatron estreinatuko den 'Gym Tony' da aktore donostiarrak egingo duen hurrengo urratsa. | TXOMIN MADINA

"Badirudi, nik jakin barik, 'choni'-a oso barruan daroadala"

1. Zenbat pentsatu zenuen *Gym Tony*-ri baietz esan aurretik?

Data kontuengatik, hemengo ekoiztetxeak baimena ematean esan nuen baietz. Gogoan nuen: proiektu interesgarria da, eta nazio mailan oihartzuna izateko balio ahal dit. Oso itxura ona duen komedia da.

2. Bertan Vanessa zara, telebis-tako izarra izan gura duen neska.

Choni hutsa da. Horrelako pertsonaia espezializatzen nabil; badirudi, nik jakin barik, oso barruan daroadala! Neska inuzentea da, bururatzen zaion edozer dioena, festazalea, urdanga samarra...

3. Zu joaten zara gimnasia?

Proiektu honekin ez zait besterik geratu! Egun osoan makinetan grabatzen nabilenez, neuk ere derrigorrez sasoiari jarri behar izan dut benetako gimnasio baten. Gihar-minekin bizi naiz!

4. Miren Ibarguren, Barbara Goenaga, Marta Etura... Madrilen arrakasta duen beste donostiar bat izateko prest?

Eskerrik asko alderaketagatik! Prest egon banago, baina hau bide luzeko lasterketa da. Horretarako borrokan nabil, eta badirudi bide onetik noala.

5. ETBko saioetan hainbat paper egin dituzu. Zer egin ez zoratzeko?

Zorua izatearena apur bat berezkoa dudanez... Batzuetan bada nahaspila, baina bakoitzari ukitu ezberdina ematen saiatzen naiz, jolasen; hori da dibertitzen nauena.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Zentzu komun dosi bat emango nioke mundu osoari, eta nire ingurukoendako zoriontasuna eskatuko nuke"

AGM

6. Jendea harritu egingo da euskara ez duzula menderatzen jakinda.

Kostatzen zait buruz ikastea, ulertu arren ez dut-eta normalean hitz egiten. Lankideek asko laguntzen didate. Euskaltegia nabil, baina zaila da umetatik ikasten ez baduzu; ausartu egin behar da, gainera.

7. Ezagutzen zaituzte *Ocho apellidos vascos*-eko eszenagatik?

Oso eszena motza den arren, jende asko gerturatzeko zait horrekin. Eta nik pentsatzen dut: "*Jolin*, lanean daramadan denbora guztiarekin, pare bat minutuko kontuagatik ezagutzea...". Baina pozik!

8. Edozein pelikulatako edozein pertsonaia aukeratu ahal bazenu...

Beti ez daukaguna gura dugu, eta pelikula intimista bat egingo nuke, dramatiko, zinema independentea; estetika zaindua duen Amelie bezalako pertsonaia bat ere bai.

9. Umetatik izan gura duzu aktore. Bainugelan Oscarraren hitzaldia entseatzen zuenetakoa zara?

[Barreak] Ezin dut ukatu, egin dut -eta! Honetan ibiltzen zen irakasle bat nuen umetan, eta haren esanek animatu ninduten. Familian uste zuten pasako zitzaidala, baina ez!

10. Eta nondik dator bisuteria diseinatzeko afizioa?

Amak eskulan-denda bat zuenez, gertuko mundua nuen. Lan barik nengoenean egiten nuen; jendea-ri gustatu, erosten hasi eta hazten joan zen. Orain, hainbeste lanekin, apur bat geldu dago; B plana da.

MARKOS BALENTZIAGA



Itzulera gori-gori

Aurten ere iraila pil-pilean dator. Hasteko, Wert-en Hezkuntza Legea abiarazi beharra izango da. Horrek hogei-taka urtetan politikan ibili (1992-93an Hezkuntzako ministro) eta ekainean utzi egin zuen Alfredo Perez Rubalcabari ere eragingo dio, unibertsitatera itzuli baita Kimikako irakasle.

Rubalcabarenak bati baino gehiagori Julio Anguitak, Izquierda Unidako buruak, eginikoa ekarriko dio gogora. Anguita 2000. urtean ardura politiko guztiak bertan behe- ra utzi eta eskolako lanpostu zaharrera itzuli zen, "deskantsatzera", garaiko hedabideek zabaldu zuten. Osasun- arazo oso serioak ere bazituen gizonak.

Anguita, beraz, politikako katramiletatik ihesi, eskolara bueltatu zen "deskantsatzera". Horixe da freskura bila sumendiaren aho-ahoraino joatea! Eta zer gertatu zen sumendiaren ahoan? Apenas zen giro han ere eta, hilabete batzuen buruan, "deskantsutik" erretirora largatu zen.

Orain galdera da: zenbat iraungo du Rubalcabak irakaskuntzan -unibertsitatean bada ere- energia-enpresaren bateko kontseilura, "deskantsatzera", edota erretirora zuzen-zuzenean joan aurretik?

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxe: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net